


Sebastian Salaberria

Sagardotegiak



8483

GAS-128/103



EUSKALZAINDA

Arabako Oñdenkatza

Sagardotegiak

Auspoa Liburutegia

247

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Sebastian Salaberria

Sagardotegiak

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-55-0

Legezko Gordailua: S.S. 522/97

Itzaurrea

SEBASTIAN Salaberria aspaldiko ezaguna dute *Auspoa*-ren irakurleak.

Oiartzunen 1915-ean jaioa izanik 36-ko kintoa zanez, gerrara joan bear izan zuan noski. Orduko bere gertakizunak nobela gisan kontatu zizkigun bere leen liburuan, *Neronek tirako nizkin* izenburuarekin, *Auspoa*-ren 38-garrenean. Idazki orrek *Agora Saria* irabazi zuan 1964-an; eta, agortua zanez, bigarren argitalpena izan du 1994-an.

Salaberria adiskidea bertso-jartzaille oparoa ere badanez, aren saillak bildu eta liburu batean agertu ziran, *Auspoa*-ren 172 zenbakian, 1984 urtean, *Nere soroko emaitzak* izenburuarekin.

Beren egillearen literatur-sena argi eta garbi azaltzen dute liburu oiek. Denborarik balu, beste zerbait ere idatzi naiko lukeala bein baiño geiagotan entzun izan genion berari. Orregatik, jubilatu zanean, alako gaitasuna berekin duan gizona idaztera bultzatu bear zala dudarik etzegoan. Berriro ere liburugintzan jarri, alegia. Ortarako zein bidetatik jo, ordea?

Alkarrekin itz-aspertu gozo asko egiñak geran ezkerro, eta aoren itz-jarioa biotzaren ugaldmenetik baidator, bere gazte denborako sagardotegietara sarritan ekarri zuan Salaberriak izbidea: etxeen izenak, nun ziran, ango giroa, gertakizunak, biltzen

zan jendea, kantatzen ziran bertso eta kantuak, zelebrequeriak, apustuak...

Zer geiago bear zan liburu bat egiteko? Bazegon or gaia orriak eta orriak betetzeko. Sagardotegi bakoitzeko oroipenak papereratu zitzala, eta besterik gabe kontakizun egokia bezin bikain eta aberatsa osatuko zuala.

Ekin zion, beraz. Arrastoak egin eta egin, alegia, soroan golde-lanean bezela. Ortarako iraupen aundia bear dala esan bearrik ez da. Baiña egonarri oneko gizona degu gure Sebastian, eta azkenean ona emen aren *soroko emaitza* berria.

“Gure kolejoak sagardotegiak” esan omen zuan bertso batean Udarregi bertsolariak. Liburu au irakurtzen duanak ere jator aitortuko du sagardotegiak Euskal Erriarentzat gauza garrantzitsua izan dirala, Gipuzkoako Beterri aldean batez ere.

Gure izaeraren iturri oien berri ematen digun idazkia degu, beraz, esku artean. Orrelakorik falta bazan, orra liburu berri au utsune ori betetzera etorri.

Bejondaiola, beraz, Salaberria jaunari, eta gure esker ona ar dezala, Euskal Erriari egin dion mesede berri onengatik.

A. Z.



Eskeintza

Lazkao Txiki zanari biotzez:

**Ain aundi ziñan Lazkao Txiki,
zerutik entzun zaidazu:
urrundu ziñan gugandik baiña
beti gurekin zaude zu.
Bertsoak ditun ezkutu danak
erakutsi dizkiguzu,
ain maite zendun Euskal Erria
biurturik paradisu;
egin zenduan lan aberatsa
Jaunak ordainduko dizu.**

Sebastian Salaberria

Lenengo asekada

LEZOKO Gabiria baserrira morroi joan nintzanean, zazpi edo zortziren bat urte nituan nik.

Garai artan gaur baiño baserritar geiago joaten zan Santo Tomasetan errenta eta kapoiak baserri-nagusiari eramatera, eta baserri ontako nere nagusi Joxe Agirrek ere eraman bear izaten zizkion Donostian bizi zan bere baserri-nagusiari. Errenta eta kapoien ordaiñez, nagusiak ematen zizkion bakaillo bat, bi tomate pota eta libra bat txokolate.

Auzoan bagenduan Daita izena zuan baserri bat. Ango maiztarrak ere, ain zuzen, Donostiara eraman bear izaten zituan errenta eta kapoiak. Antxe bizi baizan bere baserri-nagusia.

Kapoeikin eramaten zituzten bi baserrietako saskiak Gabiriako nere etxeakoandreak ekartzen zituan Donostiatik bere etxera; eta, nere nagusiari bezela, berdin ematen zizkion bere baserri-nagusiak Daitako gizonari ere: bakaillo bat, bi tomate pota eta libra bat txokolate.

Santo Tomas egun artan, arratsaldean, iru t'erdia alde ortan, nere etxeakoandre Eulalik bialtzen niñun. Xestoa eskura ematen zidan esanez:

— Tira: au eraman zazu Daitara, eta txintxo-txintxo etorri illundu baiño lenago.

Ala joaten nintzan, nere xesto ori artuta, baserri artara. Ate ondora inguratzen nintzanean, ots egiten nuan, esanez:

— *¡Ave María purísima!*

Gure gurasoak orrela mintzaten erakutsi baiziguten, iñora joaten giñanean.

Lenengo ongi etorria zakur aundi batzuek egiten zidaten, zaunka ta zaunka, beren kateak puskatu bearrean. Gero azaltzen zan emakumeren bat, eta sotoko atea zabaldu eta esaten zidan:

— Etorri al zera, Xaixtien? Atoz, atoz, gizarajo ori barrena, kanpoan otz izugarria dago ta.

Alaxe, eramaten niñun sukaldera. Emen izaten ziran beste bi emakume; eta neri atea zabaltzen zidanarekin, iru: bat bertako etxekoandrea, andre lodi-lodi bat; eta beste biak etxekoandre onen koiñata eta izeba zirala uste det.

Dana dala, neri beintzat maian exeritzeko esaten zidaten, eta ez nintzan asarre izaten, tripazai ona izan bainaiz nere denboran, eta orduan ere bai. Berealaxe ekartzen zidaten baxo erdi bat ardo; eta, au edaten nuan bezin laster, kafea, bero-beroa, kopatxo bat patar txuriarekin.

Au ere artzen nuan; eta iru emakume aiek suari atzea eman eta irurak neri kontuak galdezka. Nik esaten nizkioten eta aiek naiko parra egiten zuten nere kontura.

Gero, lau t'erdiak alde ortara, or ekartzen zizkidan emakume oietako batek gazta-pusketa bat ogiaren tartean eta baso bat ardo. Aiek ere jan da edaten nituan.

— Eskerrik asko. Gabon pasa -esan eta illuntzerako etxera.

Orrelaxe ibili nintzan urte batzuetan, kapoiekin ibiltzen zuten xesto ori Gabiriatik Daitara eramaten, eta urtero len esan dedan arrantxo modua ematen zidaten.

Baiña baserri artara xesto ura eramaten asi eta andik iru edo lau urtera, ez dakit ba nik zenbat urte izango nituan, amaika edo amabi beintzat geienaz ere; eta, jakiña, gaur ere gogoratzen naiz oraindik ederki, beste urteetan galtza motxekin bezela, egun artan nola joan nintzan galtza luxeeekin.

Beti bezela, ate inguruan ots egin det, esanez:

— *¡Ave María purísima!*

Zabaldu didate atea eta sukaldera. Bereala esango zidaten:

— Etorri al zera, Xaixtien? Atoz, atoz, gizarajo ori su ondora eskuak berotzera.

Ala, eskuak berotu eta maira baxo erdi bat ardo eman zidaten, eta bereala kafea, bero-beroa, bere kopatxo batekin.

Jakiña, emakume aiek zaleturik egoten ziran ni xestoarekin joateko. Nik ez dakit zer izketa egingo nituan, baiña amaika algara gozo egiten zuten aiek nere kontura.

Gero, beti bezela, lau t'erdiak alde ortan or ekartzen didate merienda. Nik ez dakit galtza luxeeekin joan nintzalako edo zergatik, baiña baso bat ardo, beti bezela, ekarri zidaten; eta, beste urteetan gazta-pusketa bat ogiaren tartean eskura ematen zidaten bezela, urte ortan gazta osoa ekarri zidaten plateran maira, iru librako ogia eta kanibita.

Nunbait emakume aiek pentsatuko zuten egun artan ni galtza luxeeekin joan nintzala eta gizon egiña izango ote nintzan, eta zerbait iruditzen zitzaioten gazta pusketa bat ogiaren tartean eskura ematea ume bati bezela, eta gazta osoa ekarri zidaten, komeni zitzaidana artuko nuala pentsatuta.

Jakiña, emakume gajo aiek gauza bat pentsatuko zuten; eta nik, berriz, bestea.

Neri janari aiek aurrean jarri zizkidatenean, amerikanorik aberatsena baiño ere kontentuago jarri nintzan; eta, aiek danak neretzat izango zirala pentsaturik, batere malizirik gabe, artu nuan ezkerreko eskuan iru librako ogia, eskubikoan kanibita, eta *zarrast* ebaki eta artu nuan erdia baiño geiago. Bere gaiñean jarri nuan gazta osoa, eta “Kaixo, motell! Au dek Amerika, au!” nere modu esaten nuala, asi nintzan *kiski-kaska* gazta ta ogia jaten.

Emakume aiek ekiten diote batak besteari begiratu ta algaraz eta parrez, eta nik nere modu esaten nuan:

— Zer arraio ote dute emakume sorgin oiek? Txoratu egin ote dira?

Alako batean or konturatu naiz gaizki egin nuala gazta osoa ogiaren gaiñean artzea, pusketa bat kendu bear niola baizik. Baiña xaguak bezela jira guztian janda neukan, eta gero uzterik ez.

Ardoarekin ibili nintzan larri. Aldiko pixka bat bakarrik edaten nuan, baiña ala ere aitu egin zitzaidan. Emakumeak ikusten zuten basoa utsa zegoala, baiña ez aiek geiago eman. Artean ere gazta ta ogia dexente jateko, eta zerbait edan gabe ezin jan. Ura zan komeria. Ezin geiago jan eta utzi naita ere oso itxusia zegoan gazta ura, larrua kendutako pelotaren moduan; eta ederki kostata eta lotsatuta jaten bukatu nuan.

Noizbait utzi zioten emakume aiek parra egiteari. Bat pranko serio jarri ere egin zan. Izan ere, ez da arritzekoa, nik egin nuan lotsagabekeri ura eginda.

Nik ere larri aldegin nuan andik, “Eskerrik asko, gabon pasa eta urrenarte” esanda.

Ez nintzan geiago etxe artara xestoa eramatera joan. Izan ere, ainbesteraiñoxe lotsatu nintzan Santo Tomas egun artan, Daita baserrian gazta asekada izugarri ura egin nualako.

Etorri nintzan ba etxera, eta orduantxe ari ziran ukuilluko lanak egiten Bixente, Fermin eta Joakin. Neroni ere asi nintzan zerbait laguntzen. Ala, bukatu genituan ukuilluko lan oiek, ate zirrikitu guztiak zakarrarekin ondo-ondo itxita. Leioetan ere zaku zaar batzuk jarri genituan, otz ikaragarria baizan, nik ez neukan otz aundirik baiña.

Beintzat, egunez ere, teillatutik beera zintzilik bazeuden gutxienez metro erdi bateko jela-barrak, eta ortik atera kontua zenbateraiño otza izango zan.

Alaxe, argiak itzali eta gora sukaldera apaltzera. Su ederra zegoan eta geienak su ondora joan ziran lendabizi, eskuak berotzera. Nik nola ez neukan batere otzik, berotasun galanta baizik, maian jarri nintzan.

Ala, gure etxekoandre Eulali asi zan aparria maira ekartzen, eta esan nion:

— Nik ez det apaldu bear.

— Ez dezula apaldu bear? Izerditan zaude. Etzera ba gaixo egongo!

— Ez; bestela. Korrika etorri naiz Daitatik. Anjan dedana estomagoaren gaiñean gelditu zait, eta oira noa.

— Tori kafesne pixka bat.

Artu nuan eta oira joan bai, baiña ezin lorik egin iñolako moduz. Gaiñontzekoak ere oiratu ziran apaldu zutenean. Aiek danak zurrungaz lo, baiña ni esnai nengoan, kopetatik beera izerdi-lurrun ederra botatzen nuala.

Gauean, amabiak alde ortan, egarriak ito bear nuan eta jeiki nintzan oitik. Alkandora xaar bat bakarrik neukan soiñean, txilborreraiño juxtu-juxtu irixten zana. Joan nintzan, nengoan bezela, sukaldera. Piztu nuan krisillua, artu nuan au esku batean eta bi litroko txarroa bestean, eta an joan nintzan sagardotegira, etxeordekora.

Egunez eta eguraldi ona egiten zuanean, etxeordeko ontara kanpotik sartzen giñan. Bazuan ate aundi bat gurdiak eta gaiñerako tresnak sartzeko. Baiña gauean etxe barrutik leio moduko ate txiki batetik sartzen giñan bertara. Jarria zegoan eskailera moduko bat, eta an jetxi nintzan komeriante bat bezela, al nuan moduan.

Jarri nuan krisillua zintzilik. Emezortzi kargako kupela zegoan sagardoarekin. Bete nuan txarroa, jarri nintzan bertan exerita eta lendabiziko lau edo bost trago bertan egin nituan.

Etxeordeko au olakin egiña zan, eta ol auen zirrikituetatik inpernuko etsaia baiño ekaitz-aize gaiztoagoa sartzen zan; eta, pentsaturik pulmoni txarren bat arrapatuko nuala, artu txarroa eta krisillua eta sukaldera joan nintzan; eta, txarroa ustu nuanean, oira.

Baiña ura zan ezin egona! Lertuko nintzala uste nuan. Baiña nolabait ere pasa zan beintzat Santo Tomas gau ori eta ez nintzan asarre.

Urrengo egunean asi zitzaizkidan danak illea artzen:

— Atzoko ortan merienda onen bat eman ditek Daitan -esanez-. I aizen bezelako jalea eta apaldu gabe oira?

— Bai. Berandu zala pentsaturik, korrika etorri nintzan, da nunbait gaizki asentatu zitzaidan an eman zidaten merienda.

Nik ez bainuan esan nai zer lotsagarrikeri egin nuan.

Baiña andik egun batzuetara lertu zan aunditxo. Daitako etxeoandrea eta gurea alkartu dira Errenteri aldean eta or esan dio zer egin nuan: gazta osoa jan nuala alegia.

Uste det egun artan sekulan baiño azkarrago etorri zala gure etxeoandre ori etxera. Berealaxe

igarri nion serio xamar ote zetorren, eta laster nabarmendu zan. Bereala asi zan neri ots egiten:

— Sebastian, atoz onera. Joan dan Santo Tomas egunean zer egin dezu Daitan?

— Zer ba?

— Zer ba esaten dezu? Zer ba? Gazta osoa jan omen zenduan. Egia al da ori? Zuk egingo dituzu oraindik aundiagoak ere, lotsik ez dezun lotsagarrria! Zer esan bear du auzoko jendeak? Pentsatuko dute etxean ez dezula jaten. Labanarekin ebaki eta pixka bat artzea bezela ere gazta osoa artuko zenuan ba ogiaren gaiñean? Zoaz, zoaz! Ona dago Daitako etxeoandrea. Ala esan zidan: oraindaiñoko marka guztiak autsi dituzula. Ala zion: etzuala sinistuko, berak bere begiekin ikusi ez balu, mutil koxkor batek ori egin zezakeanik. Baiña ez al ziñan konturatu, jaten ari ziñala, etzenduala ondo egin gazta osoa artzea?

— Bai. Konturatu nintzan. Baiña ordurako xaguak bezela jira guztiko azala janda neukan, eta nola utziko nuan ba? Etzazu pentsa: ez nintzan lan ederraren jabe egin. Ardo pixka bat izan banu ere, gaitz erdi. Eman zidaten basoa, naiz eta kontuz edan, ni konturatzerako aitu zitzaidan, eta gero ziran komeriak. Eskatzea lotsatu egiten nintzan, eta berak ere ikusten niñuten batere gabe nengoala, baiña etzidaten ematen; eta antxe bultza ta bultza. Al nuan bezela bukatu nuan beintzat, bai, eta ez nintzan asarre. Gero gauean gure kupelak pagatu zuan ederki.

Barbotegi


BARBOTEGI sagardotegia Donostian, Ulia mendira goazela, kamioaren ertzean ezker aldetik dago, eguzki epelak eta aizeak ondo jotzen dutela. Urte asko dituana edo antziñakoa degu bera.

Bertako nagusia, Joxe Dorronsoro, ogibidez igeltsero zana, garai artan, orain berrogei ta geiago urte. Bere kontura lana egiten zuanez, astoa bere karroarekin izaten zuan obrako materiala eramane-ekarrirako; eta, urte batzuk ola jarraitu ondoren, astoa eta karroa utzi eta kamioneta koskor bat erosi zuan.

Baiña bere orrekin asi ta bereala, andre bat il zuan kamionetarekin jota; eta Dorronsorok, bera urte askoren jabe zanez, utzi egin zuan igeltsero-lan ori, eta etxean tabernako lanak egiten jardun zuan, mundu ontatik bestera joan zan arte.

Urte askoan sagardoa egiten jardun ondoren, sagardoa egiteari utzi eta taberna edo ostatua jarri zuten bertan, eta gaur ere ostatua edo jatetxea dago etxe ortan. Donostiatik edo beste nunaitik ere ain eroso dagoanez, jende asko joaten da bertara; eta, norbaitek esan didanez, jaten ondo ematen omen dute.

Nik neronek ere gaztetxo nintzala asita ikasi nuan baserri ortara bidea, orain dala irurogei ta



Barbotegi

amar urte, oker aundi gabe. Orduan amar bat urte neuzkan nik, eta joan izan naiz Barbotegi sagardotegira sagardoa edatera. Eta badet arrazoirik zertaz joan izan naizen esateko ere.

Garai artan, ni Lezoko partean dagoan Gabiria izeneko baserrian nengoan morroi. Gaztetxea nintzala gurasoak il zitzaizkidan, eta baserriak izan ziran nerretzat ikastolak edo ikastetxeak, eta nere gazte denbora guztia etxe oietantxe pasea det murrontzan, gero 36-ko anaiarteko gerra negargarri artara joateko.

Baiña Barbotegi sagardotegiarekin ari naizenez, Joxe Agirrek, Gabirian bertako nagusia zanak, ukui-lluan ganaduentzat azpitarako izaten dan zakardegi aundi bat ibiltzen zuan Ulia mendian, *Tiro de Pichón* kiroldegiazen azpiko aldetik, itxas aldera.

Nagusiaren bi seme, Bixente eta Fermin, bost edo sei egunetan antxe jardungo ziran, egun guztian asko gelditu gabe, zakarra edo ganaduaren azpigaia ebaki eta ebaki. Eurak eramaten zuten etxetik bear zuten janaria eta edaria.

Ebaten zuten zakar ori antxe egoten zan egun batzuetan legortzen edo arintzen, eta gero nagusi Joxe eta biok joaten giñan ganaduak eta gurdiarekin eske. Bezperan esango zidan:

— I, Sebastian: biar goizean goiz joan bear diagu Ulia mendira zakar eske. Goizeko iruretan atera bear diagu etxetik. Ni joango nauk aurretik zakarra bildu edo prestatzera, eta i etorriko aiz ondolik ganaduekin axkar-axkar. Badakik lantokia urruti daukagula; eta zenbat eta azkarrago ibili, guretzat obe.

Baziran amabi edo amairu kilometro joateko, eta beste ainbeste etortzeko. Nagusia bera bide lasterez joaten zan lantegira.

Baiña nik, ganaduak eta gurdiarekin, kamioz joan bear izaten nuan, farol-argia eskuan nuala,

Barbotegi baserriaren ingurutik gora, goiko gaillurreraiño; eta emendik beera itxas ertzeraño. Ederki nekatuta irixten nintzan kargalekura, oin azpiak minberatzeraiño. Inoiz beatz tarteak odoldu ere bai. Eta nik nere gisa esaten nuan:

— Jesukristo gure Jaunak asko sufritu zuala? Nik ere sufrituta irabazi bear badet zerua, onezkero ederki irabazita zeukat.

Nagusia, sasoiko gizona zanez, ni ganaduak eta gurdiarekin joaterako, zakar pilla aundiak edukitzen zituan bilduta; eta, ni goseak auldurik nengotan arren, segituan asten giñan gurdia kargatzen.

Nik ganaduen burutan edo uztarri gaiñean eramaten nituan beti etxean jartzen zizkidaten jatekoa eta edaria. Baiña astirik ez gendualako, arratsaldeko ordubiak edo ordubi t'erdia arte ez genduan ezertxo ere artzen.

Bide aldapatsua eta luzea zalako, iru beajetan ateratzen genduan beeko arroka ingurutik goiko *Tiro de Pichón* kiroldegi gaiñera; eta an leku berdiña edo patxaratsua zegoanez, bertan kargatzen genduan gurdia, eta jartzen genituan lurrean zeuden zakar danak, atzera eta aurrera luzatuz eta zabalduz, ganaduak zakarpean estaltzeraiño.

Barko aundi oietako bat zirudian gure gurdiak. Meta aundi bat egiteko ainbat zakar eramaten genduan aldiko. Baiña etzan jolasa izaten Ulia menditik Gabiria baserrira zakarra eramatea. Gaur ez luke noski inork artuko lan ori, ala ohea ere ta.

Gurdia bear bezela kargatu eta sokaz ondo lotuta jartzen genduanean, esango zuan nagusiak:

— *Bueno*, orain jan egin bear diagu. Ni goseak netxegok.

Nik:

— Oraintxe neroni ere erortzeko zorian nago, ba, auleriaren auleriz.

Eta gosaldu eta bazkaldu biak batera egiten genituan.

Gogoan det oraindik, jaten ari nintzala nola aur batek bezelaxe lo artzen nuan. Baiña etzegoan lo egiterik, etxea urruti geneukala pentsaturik.

Menditik kamiora irteten giñan gurdi zakarrarekin. Baiña ni gurdian zakar gaiñean jartzen ninduan nagusiak, ikusirik oiñak odoldurik neuzkala, ibili ezin nintzan moduan.

Beerakoan, Barbotegi sagardotegia kamio ertzean eroso zegoanez, sagardo ederra bertan edaten genduan. Eta etxeakoandreak, neri oiñetara begiratu:

— Zer dezu, mutiko, oiñetan? Miña al daukazu?

Eta nik:

— Bai, nekatu egin naiz ta.

Baiña nola etzegoan luzaro sagardotegian egoterik, bereala Errenteri aldeko kamioa artuko genduan; eta, emendik Lezora edo etxera. Pasai Antxora inguratzen giñanean, nagusiak esango zidan:

— To amar xentimo tranbeko beajea pagatzeko. Errenterin jetxi eta joan adi azkar etxera; eta uztartu beiak eta etorri adi beera puntakoa egiteko.

Bide aldapatsua baigenduan etxera igotzeko. Eta noizbait, ez nik nai ordu, illunduta etxeratzen giñan. Eta nik, apaltzeko premia neukan arren, danak utzi eta lotara joaten nintzan azkar, eta ez nuan izaten seaskari eragin bearrik lo artzeko.

Probatu ez duanak ez daki aurtzaroan guraso gabe gelditzea zeñen tristea dan. Ez diot iñori opa.

Len esan det amar xentimo ematen zizkidala nagusiak tranbeko beajea ordaintzeko. Garai artan, orain irurogei ta amar urte, prezio auek izaten bairan Donostiako tranbe zurian ibili bear zuanarentzat: Errenteritik Pasaira, amar xentimo; Ategorrietara, ogei xentimo; eta Donostiara, ogei ta

amar xentimo. Eta etzan, ba, beste munduko gauz bat. Baiña askotan aiek ere izan ez patrikan. Bear-tsuari, esaera dan bezela, ez baizaio bein ere alkan-dora ipurdira irixten.

Ganaduekin kamioan ibiltzeko ere etzan gaur daukagun eromenik edo eragozpenik izaten. Tranbea kamioaren bi ertzetatik, aldizka pasako zan kotxe edo kamioi zaarren bat, eta garai artan kamioa itzaientzat izaten zan, eta alaxe ibiltzen giñan.

Andik egun gutxira, eguraldi ona bazan, berriro ere Ulia mendi aldera begira jarriko giñan. Nagusiak bezperan esango zidan:

— Biar goizean ere goiz atera bear diagu etxetik.

Nik:

— Biar ere Kalbario mendira joateko eguna al degu? Beste nekaldi bat geiago! Nere oiñak ez dira, ba, ondo sendatu.

Eta berak:

— Motell, motell, ori ez dek ezer!

Eta beldurrez joaten nintzan lotara.

Olaxe ibiltzen giñan urte guztirako zakarra edo ganaduen azpigaija etxeratu arte. Meta-illara luzea jartzen genduan etxe inguruan.

Ganadua ere asko edukitzen zuten baserri ortan: idiak, bederatzi edo amar bei, beste zortzi bat zekor, oillo-mordo bat eta konta ezin ainbat konejo ere bai; eta izaten genduan galtzak bete lan.

Ikusten dezutenez, gazterik ikasi nuan gurutze astuna eramaten. Eta gaur ere, larogei ta bat urteren jabe izan arren, emen daramakit sorbalda gaiñean ain astuna dan gurutze arantzadun ori. Azken une samingarri onetara iritxi raizen arren, ez daukat bizitzeko ere pozik. Badet neure etxea, badet emaztea eta baditut seme-alabak ere; baiña ez banitu bezelaxe aurkitzen naiz. Ez didate aurpegira begiratzen. Eta ni emen, Ernaniko zaarren Egoitzan, bizi naiz. Auxe izango da noski nere azken ostatua.

Badet Barbotegi sagardotegiari buruz zerbait geiago ere esan bearra. Au gertatu zala izango dira berrogei bat urte, oker aundirik gabe.

Igandea zan. Len sagardotegia zan bezela, garai artan taberna zan Barbotegi baserrian, gaur dan bezelaxe. Eta lagunarteko umorea, alkarri broman gezurrak esatea, txisteak kontatzea, edo bertso zaar eta berri kantatzea, sagardotegietakoa edo taberne-takoa izaten zan garai artan.

Baiña egun artan bertako giroa une batetik bestera zearo aldatu zan; onetik txarrera alegia. Len pake santu ederrean ain umoretsu geundenak, beldurgarriko burrukaldi bat ikustera beartuak izan giñan.

Baziran bi lagun. Bat ezagutzen nuan; bestea ez. Bat kale-garbitzaillea edo barrenderoa zan; igeltseroa bestea.

Bertako etxekoandreak esan zigunez, egun guztia bertan paseak ziran jaten eta edaten. Edan geiago noski jan baiño, an giñanak ikusi genduanetz. Alako ondorenak izan ziran gero.

Ni arratsaldean joan nintzan, lagun batzuekin meriendatu asmoz; eta, otordua egin genduanean, beti bezela nere lagunak asiko zitzaizkidan zirrikaka:

— Zer? Gaur ez al degu bertsorik, ala? Ik bada-kizkik, ba, Sebastian, Txirritak eta Pello Errotak alkarri kantatuak bertso eder askoak!

Eta, pakerik izango bazan, ekin bear izaten nion kantatzeari, bertso zaar eta berri, jendearen naia egitearren.

Alaxe, danok umore ederrean geundela, illuna-barrean, zortzirak alde ortan, aserretu ziran, ba, eguna jan-edanean pasa zuten bi lagun aiek, alkarri itz gogorak eta itxusiak esanez; eta azkenean, zearo berotu edo euren onetik atera ziranez, ekin zioten biak burruka, eta saio latza egin.

Ondoren, kale-garbitzailleak atera zuan patrika-tik labana aundi bat, eta ekin zion *zist* eta *zast*. Ez

genduan ikusi zenbat bider sartu zion sabeletik; baiña etzan bereala aspertu. Gustora jardun zan, txikiatzaille baten gisa.

An erori zan lurrera igeltsero gizarajoa; eta, zutitu nai eta ezin, naiko lan bazeukan berekin.

Gu ere joan giñan, ba, berari lagundu asmoz, eta or ikusten ditugu lurrean egoardian bazkaltzen jan zituzten arkumea eta illarrak.

Bereala aldegin zuan lasterka kale-garbitzailleak, eta eraman zuten igeltseroa ere Klinika San Inaziora.

Nunbaitik ere agertu zan aldi luzean goseak zebillen zakur oietako bat, eta berak jan zituan sabeletik atera berriak ziran arkume pusketak. An etzan ezer alperrik galdu.

Baiña illarrak ziran lurrean aruntz eta onuntz zebiltzanak, eta batek baiño geiagok oinpean ere artzen zituan, eta ala dio agure erdeldun batek:

— *¡Mantenga limpia la ciudad!*

Une artan etxeoandrea mostradorean zegoanez, entzun zuan agure erdeldunak esan zuana, eta bereala bialdu zuan neskaxa eskoba eta palarekin. Kosta zitzaion ederki illarrak biltzen, baiña bildu zituan beintzat. Ikusi genduan nola txerriaren ontzira bota zituan, eta urrengo egunean txerriak jango zituan, eta kito. Esan bezela, an etzan ezer alperrik galdu.

Gero joan giñan, ba, len geunden maira; eta, artean ain berandu etzanez, zortzi t'erdiak aldea izango zan, berriro ere umoreari jarraitu genion. Jende geiagok ere nai zuan nik zerbait kantatzea, eta nere lagunak zioten:

—Sebastian, gertakizun onek merezi likek bertso bat kantatzea!

Etzidaten pakean uzten eta onelatsu izan zan
une artan kantatu nuana:

Ain umoretsu gaude gu emen
baiña aztu dira parrak,
mingaña zuten len indarrean
eta gero atzaparrak.
Lanak aguro egiten daki
txikiatzalle azkarrak,
nunbait odolak irakin dio,
orren suak eta garrak,
usu arraio atera dizka
arkumea ta illarrak.

Nik bertsoa kantatzen bukatu bezin laster, etorri
zan etxeoandrea sukaldetik lasterka eta esan
zigun:

— Naiago nuke, mesedez, ixilik egongo baziñate,
poliziak etortzekoak dira ta.

Eta andik aurrera gauz onik etzala pentsaturik,
ixildu egin giñan eta jendea asi zan tabernatik kan-
pora irteten. Eta guk ere alkarri esan genion:

— Obeko diagu emengo umorea aztu eta etxe
alderako bidea artzea.

Eta, zer gerta ere:

— Agur, etxeoak! Gabon pasa! -esan da aldegin
genduan.

Urrengo egunean norbaitek ekarri zuan egunka-
ria gure etxera, eta bertan irakurri nuan bezperan
Barbotegi ostatuan gertatu zan funtzioaren berri.
Ala zion dalako egunkari ark:

Kale-garbitzaillea poliziak arrapatu eta kartzelan
sartu zuala; eta sendagilleak lanik asko izan zutela.
Operatu egin bear zala igeltsero zauritua, eta anes-
tesia ematen asi ziran. Baiña nola ardo eta patar
alkool asko zeukan bere barruan, ezin zuan bear

zuan lanik egin anesthesiak. Eta batere kordea kendu gabe operatu omen zuten.

Pasako zituan bereak eta bi. Eta, luzaro klinikan egon ondoren, sendatu ta etxerako moduan jarri zutenean, eman omen zion medikuak alta.

Baiña orain dator ixtori polita. Garai artan ez baizan gaur daukagun dalako *Seguridad Social* ori, eta gaixoaldia edo operazioa nork bere patrikatik ordaindu bear izaten zuan, sendagilleak alta eman zionean, operazioa zenbat kosta zan txartela ere eman omen zion: amasei milla pezeta. Naiko gutxi. Anestesia eman izan baliote, potoloagoa izango zan txartela.

Baiña igeltsero gizarajoak nola etzuan xentimorik, poliziak, medikuaren aginduz, artu aurrean eta espetxera eraman omen zuan, eta antxe kale-garbitzaillea eta biak berriro ere alkarrekin...

Garai bateko dirua

LEN esan det tranbeko beajea edo joan-etorria zenbat kostatzen zan garai artan, eta xentimoak esaten genituan. Baiña orain esan nai nuke zer diru klase ibiltzen genduan emen, orain larogei urte.

36-ko gerra mingarri ura piztu zanean, soldadu joan bear izan nuan, Pamplonara lenengo; eta, kuartelean nenbillela, gaixotu egin nintzan. *Pape-rak* izeneko gaitza izan nuan, eta *Alfonso Carlos* izena zuan ospitalera eraman ninduten.

Etxe aundi bat zan ospital au, eta bertan berrogei bat egun pasa ondoren, medikuaren aginduz, gaitza pixka bat menderatu nuanean, jeiki eta poliki-poliki ibiltzen asi nintzan.

Dalako ospital au moro zaurituz betea zegoan. Ni zer ikusi etxe guztian ibiltzen nintzan aruntz eta onuntz; eta ibiltzeko moduan ziran moroak, jokoan aritzen ziran, lurrean exerita, eta zebilkiten diru dana xentimoak izaten ziran, kobrezkoak.

Orregatik eman nai nuke nik ezagutu dedan diruaren berri: xentimoak, bost xentimokoa, amar xentimokoa, kobrezkoak; bi errealeko zillarra, pezetako zillarra, bi pezetako zillarra, duroko edo bost pezetako zillarra, paperezko bost durokoa, paperezko amar durokoa, paperezko ogei durokoa, paperezko bosteun pezetakoa, paperezko milla pezetakoa eta ontzako urrea.

Beingo batez Ernanin ikusi nuan zerbait esan nai nuke orain. Nik sei bat urte izango nituan; orain irurogei ta amalau urte, oker aundirik gabe.

Oraintxe egiten dan bezelaxe, ostegunez peria egiten zan; eta, garai artan Erreterian bizi giñanez, nere osaba batek esan zidan:

— Xaixtientxo, joan nai al dezu nerekin Ernani-
ra? An erosiko ditugu karameloak.

Eta nik:

— Bai, osaba. Pozik joango naiz bedorrekin.

Gogoan det oraindik nola Erreterian tranbe zurian sartuta Donostiara etorri giñan, eta emendik beste tranbean Ernaniara. Nik uste nuan gutxienez mila kilometro pasa genituala; eta, oso beldurturik, galdetzen nion nere osaba Antoniori —au nere amaren anaia zan, Antonio Yarzabal, berrogei ta amar urte zituana—:

— Osaba, gero gure etxea billatuko al degu?

Eta berak:

— Bai, umea. Nik badakit nundik joaten dan etxera.

Ernaniara iritxi giñanean, bereala erosi zizkidan karameloak, eta baita alpagata txuriak ere. Ura poza nerea! Egun artan etzan ni baiño aberatsagorik Ernani guztian.

Etxera joan giñanean, amak bi musu eman zizkidan. Ondoren:

— Zer moduz ibili zera osabarekin?

Eta nik:

— Oso ondo, ama. Ara zer erosi dizkiten osabak.

Papera kendu eta erakutsi nizkion karameloak eta alpagata txuriak. Eta amak:

— Zer politak diran! Auek zikindu gabe jaso egin bear dira.

Eta nik:

— Bai, ama. Bedorren kuartoko armarioan jasoko ditut.

Garai artan gaur *Plaza Berri* deitzen diogun lekuan egiten zan Ernanin ganadu larrien peria: idiak, beiak, zekorrak, zaldiak eta astoak. Baziran bertan zugaitz aundi batzuk plantanoak izenekoak, eta ganaduak aieri lotzen zizkioten. Eta txerriak, landareak, arropak eta kinkilleroak, gaur *Atzietaz* izeneko kalean jartzen ziran salgai.

Eta orain dator gertakizun xelebrea. Gu, osaba eta biok, arratsaldean ordubiak aldera inguratu giñan peri aldera. Txerriak zeuden lekura joan giñanean, oso jende gutxi zebillen artean, eta baserritar andre bat etorri zan asto-karroan, bost txerrikume saltzeko zituala.

Beste gizon bat, baserritarra au ere, txerrikume bat erosi asmoz joan zan, eta txerri-jabea eta biak asi dira tratuan, eta gizon erostunak galdera:

— Txerri auetako batek zer balio du, etxeokandre?

Andreak:

— Ez dakit, ba, zenbatean ari diran, oraintxe etorri naiz ta.

Gizonak:

— Nik presa det, ba. Etxera joan nai nuke azkar, belarrak bildu bearrak dauzkagu meta egiteko eta.

Andreak:

— Zure kontzientzira egingo degu, nai badezu.

Gizonak:

— Bueno, ontzako bat pagatuko dizut, nai badezu.

Andreak:

— Ontzako bat? Ez, ez. Ezta pentsatu ere! Txerri au gaur emendik eraman nai duanak, amasei duro pagatu bearko ditu.

Saltzallea eta erostuna biak gauza bera esaten ari ziran, ontzako urreak amasei duro balio baiduan; eta ori etzekian nunbait saltzalleak. Ai zer bi jakintsu alkartu ziran egun artan Ernaniko perian!

Azken-Portu

ORAIN irurogei ta bost urteko kontuak dira nere liburu ontan idazten ditudanak.

Azken-Portu baserria Donostian, Aiete baillaran, kamio ertzean dago: etxe txiki baju xamar bat. Bost bat laguneko famili bat bertan bizi izan zan: Juan Mari Arriaga eta bere emazte Manuela Goñi, euren iru seme-alabekin: Mariatxo, Arantxa eta Joxe. Ni ere urte askoan baserri ortan bizi izan naiz famili orrekin.

Aspaldiko etxe zaar xamarra zanez, euri asko egiten zuan gau batez, etxeke danok lotan geundela, teillatuaren erdia erori egin zan; jakiña, gu lo geunden alderdia ez, bestea baizik.

Orduan, beste baserri bat ere ibiltzen genduan, Mantulene deritzaiona, au ere kamio ertzean, Azken-Portutik Donostia aldera larogei bat metro tara. Gaur *Juan Mari-enea* dauka bere izena. Bertan ganaduak edukitzen genituan; eta, etxebizitza zanez, bertara aldatu giñan.

Geroztik, Juan Mari, Manuela eta Mariatxo il ziran. Jaunak berekin ditzala zeruan. Baiña famili orrek jarraitzen du *Juan Mari-enea* baserri ortan.

Gero erori egin zan Azken-Portu. Baserri au bere jabeak berritu egin zuan, eta sei edo zortzi famili bizi dira bertan; eta gaur ere taberna dago, Azken-Portu izenarekin.

Baserri au, antziñatik asita, sonatua izan da beti, taberna eta sagardotegia bertan izanik.

Ni urte askoan famili onekin bizi izan naizenez, zuzen eman nezake bertako gertakizunen berri.

Amar-amabi urtean jardun izan naiz ni ere sagardoa egiten Juan Mari eta bere familiarekin batera, eta sagardo on txinpartatsuak ere atera izan genituan, jendearen gogozkoak alegia; eta, Donostia inguruan sudur oneko sagardozeleak ditugunez, errez aurkitu izan dute Azken-Portura bidea.

Beste askoren artean, bazan Donostian gizon aundi bat, Iñaki Perurenaren edozein arrik ainbeste pixatzen zuana, medikua edo sendagille sonatua zana. Don Jose esaten zioten. Ez dakit nola zuan abizena. Baiña gogoan daukat traje dotorea, korbata eta sonbreroarekin ibiltzen zala.

Ain sagardozelea zanez, noiznai genduan Azken-Portun. Iñoiz aztu izan zitzaion gaixoei jartzeko termometroa. Baiña poltxikoak berekin izango zituan beti sakakortxoak edo kupela zulatzeko ginbeleta.

Baserriz baserri asko ibiltzen baizan gaixorik zeudenak sendatzen; eta bera joaten zan baserrian bertako nagusia gaixorik bazegoan, berak txoxtuko zuan kupela edo barrika, eta:


— Au dek mama, au!

Ori esateko oitura zuan beti, eta baso aundia edaten zuan. Batzuetan txarrotik ere bai; eta iñoiz korbata sagardo busti ere bai. Baiña gustora gizona.

Errezeta egiterakoan, gaixorik zeudenei sendagai berdintsua agintzen zien beti:

— Zuk sagardoa edan bear dezu nai dezun guztia. Pixa asko egin bear dezu, zuk daukazun gaitzak pixean atera bear du ta.

Etzion aspirinak salduta farmaziari irabazi askorik emango.



Azken-Portu

Beste erremedio on bat ere bazuan, il bear zuan asko salbatu zituana. Bolara artan Euskal Erri osoan, bildurgarrizko gripe mingarriaren mende bizi zan jende geiena; eta Don Joseri bururatu zitzaion sangratu egin bearko zitula gaitz maltzur orren mende zeuden gaixo asko, eta alaxe egin ere. Besotik sangratzen omen zituan; eta bestela ilko ziran asko eta asko, bizirik atera.

Ortatik ere fama aundia artu omen zuan ain sagardozeala zan mediku jaun arek.

Sartu nadin arira. Goraxeago nion gaixo zeudenei sagardoa agintzen ziela; eta, gaixoarekin bere eginkizuna bukatutakoan, etzitzaion aztuko berriro ere kupelari edo barrikari bixita egitea. Tiro batekin bi txori iltzeko oitura baizuan: gaixoa eta kupela bixitatzekoa alegia.

— Agur, etxeakoak! Urrenarte! —esanez aldegingo zuan.

Sendagille jaun agurgarri au etzan jan da edatera bakarrik etortzen Azken-Portura. Kirola ere gogozkoa zuan, eta kirol mota edo klase askotakoak egin izan oi zituan.

Jakiña, bere barrena sagardoz pixka bat berotu arte etzan lan oietan asten, eta gelenetan bertako nagusi Juan Marik eta biak egingo zituzten arrigarrizko saioak.

Lenengo, beintzat, lanik bearrezkoena egingo zuten sagardotegian zeuden kupelak edo barrika danak txoxtu; eta, “Au dek mama, au!” esanez, musu ematen zion bere gogozkoa zan kupelari, esanez:

— Bejondeikela! Aurten ere portatu aiz, guk merezi ainbestean, Juan Mari! Emendik bear dizkiat nik milla botilla etxerako. Beti bezela, zaldikarroan eramango dizkidak.

Geroxeago meriendatu egingo zuten. Obeto esan, apari-merienda izango zan: bakalloarekin egindako

tortilla aundi bana, ondoren txuleta galantak jaten zituzten, eta gero postrea, gazta erdi bana intxaur mordo batekin.

Andik aurrera etzan giro izaten aien ondoan. Eta, jende-talde aundi bat bertan biltzen zanean, ekingo zioten kirolari esanez:

— Galtzen duanak bion gastuak pagatzekotan!

Baiña asterako au esaten zion Don Josek Juan Mariri:

— I, Juan Mari! I tranposo xamarra aiz eta emen gure artean gizon jatorrak bazeudek, eta auetako bat jarriko diagu juez.

Geienetan, Malmiztegi baserriko Migel Urrestarazuk beteko zuan eginkizun ori.

Atearen atzean egoten zan arri trakets bat, len noizbait arri-jasotzailleak erabiltzen zutena, eta arekin egiten zuten lenengo saioa.

Pesta polita ikusi ere bai beingo batez. Don Jose asi da arri orrekin burrukan; eta, bizkarreratzeko gutxi falta zuala, or erori zaio lurrera; eta, min artuko ez bazuan, anakak zabaldu egin bear gogotik, eta nun puskatzen zaizkion galtzak, lertu alajaiña, eta an agertu ziran ikusi bear etziran gauzak eta danak.

Ango jendearen gozatua! Danak parrez lertzeko zorian. Baziran bat baiño geiago ere euren galtzetan pixa egiñak. Nere ondoan zegoan batek ala zion:

— Don Jose, biar emazteak izango du ordu pare bateko lana bedorren galtzak konpontzen.

Eta Don Josek:

— Etzeukak beste zer egiñik. Aundiagoa dek nik artu dedan lotsa. Kaiolan ixil-ixilik zegoan txoria ere agertu dek, eta zuek danok arriturik berari begira. Ez al dezute bein ere txoririk ikusi ala? Nun dezute edukazioa?

Eta ala dio batek:

— Don Jose, belearen antza geiago zuan orrek, txoriarena baiño!

Eta berriro ere jendea lertu bearrean parrez, eta nulo egin bear izan zuten arri-apustua.

Gero, zeñek salto luzeagoa egin, arrai aundi bat eginda. Ortan biak berdintsu egin zuten.

Baiña oraindik falta zan apustu inportanteena, aari-apustua alegia, eta Juan Marik esaten zion:

— Orain aari-apustua egin bear degu, Don Jose.

Eta berak:

— Bai, motell. Ortan ere jokatuko diat, nai badek.

Kentzen zituzten gerriz gorako arropak, eta an agertzen ziran bi globo aundi ziruditen bi sabel edo tripa. Bat bestearengandik amar bat metrotara jarri erazten zituan juezak, eta ekingo zioten alkarri danbaka, *plast!*, bonba batek lertzen danean ateratzen duan soiñu ikaragarri baten antzera.

Atzeratuko ziran biak aariak bezelaxe euren arraietara; eta, juezak agintzen zienean, ekiten zioten berriro korrika, eta *plast!*, soiñu aundi bat nabaitzen zala, lotan zeuden aurrak eta danak esnatzeraiñokoa.

Orrelaxe jarduten ziran aldi luzean, eta bukatutzat ematen zuan juezak.

Gorputzez aundiagoa zalako-edo, geienetan mediku jauna irtengo zan garaille. Juan Marik etzuan beti ontzat artzen erabaki ori, eta bere asarrea bertsotan agertuko zion Don Joseri.

Eta, berriro ere euren eztarriak mama gozoarekin bustiaz, ekingo zioten alkarri bertsotan. Biak ere ondo zekiten kantatzen, eta or asten da Juan Mari bere asarrea agertzen. Gutxi gorabeera onelatsu kantatu zuten:

Apustu au neretzat
ez da izan fiña,
juezak ez du egin
justizi berdiña.
Nik neure aldetikan
jo det alegiña,
baiña bedorrek beti
tranpa ta zikiña.

Don Josereren erantzuna:

Juan Mari, ikusten aut
naiko zapuztua,
galdu dekala eta
ez ago prestua.
Nik irabazi diat
ari-apustua,
orain ire gain zegok
emengo gastua.

Zorioneko apustua zala eta etzala, iñoiz naiko kopet illun ibili izan ziran alkarrekin. Baiña Don Josek au esaten zion beti:

— Juan Mari, ez adi olakoa izan. Aztu egin bear dik orrek. Lagun bear diagu. Goazemak kupelera. Edan dezagun, penak aztutzeko ona izaten dek eta.

Zorioneko sagardoak aztu erazten zituan ikami-ka eta asarre danak, eta berriro ere bereala asiko ziran alkarri loreak botatzen. Azkenerako biak ere sagardoaz bapo bustitzen baiziran, eta sake librean asten ziran alkarri aundi xamarrek esanez.

Ala zion Juan Marik:

— Don Jose, oraintxe bertan gizon gazte bat baletor bedorregana bere emazteak aurra egin bear duala esanez eta ea azkar joango dan mese-dez, nola asiko ote litzake bedorri lanean?

— Lenago ere bein baiño geiagotan esan diat nik au, Juan Mari: parto batera tientoan joaten banaiz,

etzaizkidak gauzak nik nai bezin zuzen irteten; eta, zurruta puska bat eginda joaten banaiz, berriz, lan guztiak oso ondo egiten dizkiat.

Au neronek ere askotan entzun izan nion: tien-toan asi ta urduri jartzen zala, emakumeak pena geiago ematen ziotelako.

Eta Juan Mari beti toreatzen ari bear zuan oietakoa zan eta or kantatzen dio Don Joseri bertsoa:

Nola baserrian da
kalean ere bai,
iñoiz andre gazteak
egiten dute ai;
aurrak jaio bear da
medikuaren zai,
ta bedorri ementxe
zurrutean lasai.

Don Joseren erantzuna:

Ni beti prest natxiok,
au izan kontuan,
abixurikan bada
an nauk bi saltuan;
zurruta eginda sartzen
banaiz ni kuartuan,
emakumeak ez dik
sufritzen partuan.

Jakiña, iñoiz etorri izan baizan une artan bere etxean medikua bear zuan norbait Azken-Portura Don Joseren galdezka. Sagardoa txotxean zegoan garaian ez baizan errez bere etxean arrapatzen. Garai artan gaur daukagun mediku aukerarik ez baizan. Konta errezak ziran gaixoak sendatzeko genituan medikuak. Esate baterako, Don Josek izango zuan bere gain Donostiaren parterik aundienetako bat, eta bere izena zan geienbat entzuten zana.

Ondoren esango dedan au ere Don Josek berak kontatua da guri egun batez. Bere emazteak galde-tu omen zion:

— Aizu, Joxe: nun dago Barkaiztegi sagardotegia? Zuk sagardotegi ortara joateko oitura dezu nunbait, eta gure bezero edo kliente askok deitzen didate telefonoz, esanez alegia gure etxe ontara deitzen omen dute, eta gauean berandu arte ez omen zaituzte aurkitzen; eta balekite nun dagon Barkaiztegi, bertara joango omen lirake. Neronek ere badaukat, ba, gogoa baserri ori nun dagon ikusteko; eta, eguraldi ona egiten duan batean, zurekin joan bear det.

Beti kontu berarekin ari omen zitzaion emaztea, eta Don Josek pentsatu omen zuan egun artantxe joan bear zutela paseo eder bat eman ez.

Barkaiztegi Martuteneko baillaran dagoanez, Ernaniko tranbean erosoago joan zitezken. Baiña Don Jose iñoiz pikaro xamarra baizan, eta nekaldi edo aspertu bat eman nai zion nunbait bere emazteari, berriz geiago ez joatearren; eta, Donostian bizi ziranez, artu omen zuten Aiete aldeko kamioa eta Oriamendi aldean barrena ospitaletatik pasa eta Agerre baserriaren aurretik Lukasene baserrira. Gero, emendik Larrañategi sagardotegira, eta emendik Barkaiztegira.

Onera iritxi ziranean, ala dio Don Josek emazteari:

— Auxe da Barkaiztegi.

Eta emazteak:

— Jeeesus! Jesus! Aldean dago! Ni ez nator geiago onera!

Don Josek uraxe entzun nai zuan.

Ala dio emazteak bere aurpegi tristearekin:

— Etxekoandre, silla bat emango al didazu mesedez? Asper-asper eginda nator da...

Ekarri zion silla eta:

— Zerbait artu nai al dezu?

— Bai. Kafesne bat ematen badidazu mesedez...

— Bai; bereala. Bedorrek ere bai, Don Jose?

— Ez. Neri ekarri txarro bat sagardo, egarriak ia itoan nago ta.

Geroxeago meriendatu omen zuten, eta berriro ere etxerako bidea artu bear, Donostiara alegia; eta ala dio emazteak:

— Tranbean joan bearko degu, ba, Joxe, ni oso nekatuta nago ta.

— Bai. An aurrean gelditzen da. Goazen azkar.

Don Josek olako deabrukeri txikiak egiten baizekian, eta geltokia baiño ondotoxoz atzerago gelditu omen zan, esanez:

— Ementxe gelditzen da tranbea.

Etortzen omen zan tranbea; baiña geltokian iñor etzegoala ikusirik, martxa Donostia aldera. Eta emazteak:

— Utsegin degu, ba, Joxe.

Berak uraxe nai zuan.

— Eta beste tranbea noiz dator?

— Emendik ordu betera. Baiña ez gera aren zai egongo. Goazen azkar etxera, gu joaterako norbait egongo da nere zai eta.

Alaxe egin erazi zion joan-etorri beldurgarri ura bere emazte gaixoari. Geroztik ez omen zion geiago esan Barkaiztegira joan bear zuanik.

Ondoren esango dedan au ere Don Josek berak kontatua da. Sagardotegitik noiznai joaten omen zan etxera gauean berandu; eta, portaleko atea giltzarekin itxita bazegoan, bertsotan asten omen zan kalean aruntz eta onuntz. Indartsu kantatu ere, erri guztiak entzuteko moduan. Ez omen zuan alta-boz bearrik izaten.

Eta orduan, naigabez beterik, pakean lotan zegoan bere emazteak zabaltzen omen zion atea, onela esanez:

— Lotsak emangarria zu!

Berriro ere Barkaiztegitik Azken-Portura noa, Don Josek eta Juan Marik ainbat pesta eskeintzen ziguten etxe bedeinkatu artara.

Sagardoak esan erazten zituan gauz askotaz mintzatzen baizan jendea; eta Juan Marik ain gogozko zituan bere bertsoekin ariko zan beti ametsetan, eta jendeak ere parra pixka bat egin nai, eta or asten zitzaizkion:

— Kanta akiok, Juan Mari, bertso bat Don Joseri.

Eta mediku jaun onek berak bezelaxe eskuak ere oso aundiak baizituan, eta esan nai zion alegia, aurra egin bear zuan emakumeari esku aundi ura sartzen bazion, min emango ziola. Eta onelatsu zan Juan Marik Don Jose medikuari kantatu zion bertsoa:

Don Jose, begiratu
kontzientziari,
lagundu aurra egin
bear duanari;
baldin sartzen badio
esku aundi ori,
miña emango dio
andre gaixoari.

Don Josereren erantzuna:

Sagardoz asetzean
egoten nauk trebe,
urduri ez jartzea
neretzako obe;
eskua sarturikan
xuabe-xuabe,
egiten dizkit lanak
miñik eman gabe.

Orain esango dedan au etzan danen gogozkoa izaten. Baiña sagardotegiak eta tabernak lege berdintsua zuten: gauean amarretan erretira egin eta ateak itxi.

Iñoiz izaten baiziran asarreak eta mutur jökak ere, naiz urrengo egunean danak berriro ere lagun, sagardotegian alkarri sagardoa eskeintzen.

Garai artan ez baizan politikari buruz itz erditxo bat ere esaten, eta ditzosozko sagardoak edo ardoak asarretu erazten zuan jendea. Baiña, zorionez, berriro ere edari maitagarri auek egin erazten zuten ain bearrezkoa degun pakea.

Baiña, badaezbada ere, egunero, len esan dedan ordu ortan, bi guarda rural etorriko ziran Aiete baillarako taberna eta sagardotegietara; eta, atea euren bastoi aundiarekin dan-dan joaz, esateko oitura zuten:

— Erretira egin bear da, eta ateak itxi!

Baiña Don Jose Azken-Portun zan egunean, ateak ixten ziran, baiña danok barruan gelditzen giñala. Guardei esaten zieten:

— Atozte nerekin.

Lenengo, naiko sagardoa ematen zieten kupeletik, eta gero sukaldera eraman erazi, eta:

— Etxekoandre, eman gizon auei kafe konpletua nere kontura, merezia dute ta.

Eta sukaldeko atea itxi ta gu danok sagardotegira berriro ere. Don Jose errespetatu egiten zuten guardak ere. Jakiña, euskaldunak ziran eta, auek bertan ziran arte, etzuan iñork bertsorik kantatuko. Ala baizan Don Joserena ordena.

Baiña jendeak bai algara gozoak egiñez txolarte atsegiñak igaro ere. Sake librean asten baiziran Don Jose eta Juan Mari, sumatzen zituzten aundienak alkarri boteaz, eta lertzeko zorian danak parrez.

Guardak, aldi luzean sukaldean egon ondoren, irteten ziran onela esanez:

— Agur, jaunak! Gabon igaro!

Gu ere erretiratu egiten giñan, eta Don Jose ere bai, itz auek esanez:

— Agur, jaunak! Gabon pasa! Berriro arte!

Donostia aldera abiatuko zan, baiña ez espaloitik, kamioitik baizik. Baiña au bi gauz auengatik egiten zuan: kamioan ez baizebillen gaur ainbat kotxe; eta, bestetik, berriz, espaloitik joateko ez baizeukan bere buruarekin konfiantza geiegirik. Ondotxo bustia joaten baizan mediku jaun bertsolaria.

Oriamendi

ORIAMENDI baserria Aiete baillaran, Donostiatik Ernani aldera goazela, kamio ertzean dago, eguzkiak eta aizeak ondo jotzen dutela. Aspaldikoa edo antziñakoa da bera.

Joxe Martin Kalonje zana zan bertako nagusia, urte askoren jabe zana. Aspaldi xamar il zan. Eta bere emazte Frantziska Ezeiza ere bai. Zeruan beza-te atsedean.

Orain baserri ortan Joxe Martiñen erraiña alarguna dan Konsuelo Otxoteko eta bere seme-alabak bizi dira.

Joxe Martin eta Pantxikak sei seme-alaba izan zituzten. Auetatik bost illak dira. Alaba bat, une onetan ez naiz oroitzen nola zan bere izena, Donostian, San Bartolome komentuan, urte asko moja pasa ondoren il zana; Xegundo, Andres, Joxe Leon eta Anizeto. Au Konsuelo Otxotekoren senarra zana. Jaunak berekin ditzala zeruan. Orain, lengoetatik, Julia bizi da bere jaiotetxea dan Oriamendi baserrian.

Baserri au sonatua izan da sagardotegi bezela. Ni orain dala irurogei ta zazpi urte etorri nintzan Aiete baillarako Azken-Portu baserrira morroi, 1929-garren urtean, oker aundirik gabe; eta garai artan, eta geroago ere bai, gizon-sagardoak egiten ziran Oriamendi baserrian. Txinpartatsuak edo jendearen gogozkoak, alegia.

Naiz bidean ibiltzeko oraingo erreztasunik izan ez, nola Donostia aldetik, Añorgatik, Ernanitik edo Astigarragatik ikusi izan genduan nola zeterren jendea Oriamendi baserrira, euren eztarriak busti asmoz.

Neroni ere sagardozalea izan naizenez, gaztetxoa nintzala asita, makiña bat sagardo eder edana nago etxe ortan.

Baserri ortan bazan besteetatik berezia zan *Juan Kutx* deitzen zioten kupel bat, jende guztia arriturik uzten zuana. Ain zan edari gustagarria bertatik edaten genduan mama gozoa. Pekatu txiki bat zuan kupel onek: guk nai baiño lenago agortzen zala, alegia, ain maitea genduan iturritxoa.

Baiña bereala sartuko zioten kanilla beste kupel bati. Eta jendeak azkar esango zuan:

— Au ere *Juan Kutx*-en senidea dek! Au dek mama, au!

Onek esan nai du, alegia, baserri ortan etzala sagardo txarrik egiten, eta etzala iñor egarriak irte-ten sagardotegi sonatu artatik.

Donostia aldeko arrantzale jendea ere sagardozalea zanez, errez aurkitzen zuan Oriamendi baserri-rako bidea; eta noiznai etorriko ziran txardiñak edo bixigu frexkoak artuta, onela esanez:


— Kaixo, Joxe Martin! Zer moduz zerate? *Juan Kutx*-ek zer dio?

Joxe Martiñek:

— *Juan Kutx* agortu berria degu; baiña badegu beste bat asi berria, *sukalde ondoko kupela* esaten dioguna.

Arrantzaleak:

— Ori ere ez da, ba, txarra egongo. Ea, probatu dezagun!



Oriamendi

Eta edandakoan:

— Au dek edaria, au! Lenago ere sagardo ederra atera izan dik kupel onek, eta orain ere etzeukak aitzaki aundirik.

Jarriko zituzten egur ikatzarekin egindako su-brasa ederrean txardiñak eta bixiguak erretzen, eta beroiek janez kupelari bixita maiz egingo zioten.

Arrantzale auek danak, euskaldunak ziranez, bertsozaleak ziran geienak, eta bazekiten bertako nagusi Joxe Martin bertsolaria zala, eta an asten zitzaizkion zirikaka:

— Joxe Martin, kanta akiguzu bertso bat.

Eta pentsatzen luzaro egon gabe kantatzen zion. Ara egun batean jaulki zitzaiona:

Etxearen azpiko
gure sagastia
txertokitikan gora
bete da guztia;
beti onen inbiriz
dago Donostia,
aurten bada txardiñak
zerekin bustia.

Eta arrantzaleak eurak ere kantatzen zituzten, bertsolaria zan mariñelen batek noizbait jarritako bertsoak:

I Bertso berri batzuek
nai nituzke para,
aditu nai duanik
iñor baldin bada;
legorrez aspertuta
itxasoetara,
irureun lagun guaz
Montevideora.

2 Deklaratu nai nuke
dakidan euskaran,
Pasaitik irten giñan
San Migel bezperan;
jendiari aditzera
nai nioke eman
kanpo zabal oietan
nola bizi geran.

3 Ilbeltzaren zortziyan
señalamente zan,
geren buruz etsita
txit estu gebiltzan:
denborale txarrakin
alako tristezan,
sokorritu naiagatik
auzorikan etzan.

4 Barku simple batian
onenbeste lagun,
ez dakit zer biaje
atera biagun;
kubiertan legorrik ez,
bodegan txit illun,
guretzako gauza onik
etzeguan iñun.

5 Orizonte onetan
sartu giñanean,
aizerik ez genduben
zortzi egunean;
jendia aspertu zan
geldi egonean,
eguzkiak erretzen
kubierta gañean.

6 Berrogei egunean
linean igaro,
txit aize gustokuak
jo ginduzen gero;
gure Jaungoikuagandik
degula espero,
ondo allegatuko
gera onezkero.

7 Gizon konsejerua
genduben Juanes,
beñere kontenturik
ez digu eman janez;
guk eskatubagatik
ark guri eman ez,
diruba bazan baña
bentarik inun ez.

8 Barku simple onetan
irureun persona,
txoruak sinistatu
falsuen esana;
beti abundoso da
urrutiko sona,
jan geiegik ez digu
galdu osasuna.

9 Bakallo usaiduna,
ustela sardiña,
urdaia're zeguan
ill zanian fiña;
ura ere ez naikua,
dena arrak egiña,
urruti botatzen zun
usaia zikiña.

10 Frantziatikan urre
Manis Donostiyan,
arrek engañatuta
joan giñan ontziyan;
bera parako nuke
nik nere tokiyan,
ez dezan engañatu
iñor probintziyan.

11 Orra bertso berriak
barkutikan jarri,
aditzera emateko
mundu guztiyari;
abisatzen diotet
bati eta biri,
abitua damutu
zaiola amaikari.

12 Orra amabi bertsoak
egiak kantatu,
gauza pasatakuak
nai ditut kontatu;
iñork jakin nai badu
zer zaigun gertatu,
orra paperak eta
txanpon banan artu.

Eta jan da edan bapo egindakoak, an joango ziran gure arrantzale zintzo eta jator aiek Donostia aldera, onela esanez:

— Gabon pasa, etxekoak! Urrena arte!

Garai artan gaur baiño ugariago ziran baserriz baserri morrontzan ibiltzen ziran mutilzaarrak ere. Baserri bat baiño geiagotan ezagutu ditugu bi morroitaraiño. Aiete aldean, beintzat, bazan garai

artan mutilzaarretik aukera. Bazirudian Aiete inguruan zegoala morroi zaarren *Mixerikordia* edo Erruki-etxea.

Azken-Portun, sagardoa saltzen zegoala, ezagutu ta gaude: eguraldi txarra egiten zuan igande batez, konta errezak ziran Azken-Portura etorri ziran benetako sagardozeak, eta aiek, ain eguraldi txarra zegoanez, illunabarrean garaiz aldegin zuten etxera.

Sagardotegian gelditu ziranak amairu morroi izan ziran. Gaueko guardak amarrak aldean etorri ziranean, ateak itxi eta erretira egin bear zala esanez, danak batera irten ziran kanpora; eta an egonaldi bat egin zuten kontu kontari.

Ni Azken-Portun bizi nintzanez, gelako leiotik entzuten egon nintzan batak besteari nola egiten zion galde:

— Ik illean zenbat irabazten dek baserri ortan?

— Nik zenbat irabazten dedan? Alpargata pare bat ematen zidatek, eta orixe izaten dek nere soldata.

— Eta iri zenbat ematen ditek?

— Ba, neri urtean galtza pare bat eta alkandora, eta orixe izaten dek nere soldata. Etxeko anak noizik bein zerbait ematen zidak, eta alaxe bizi nauk.

Beste batek:

— Iri zenbat ematen ditek?

— Neri bi pezeta illean.

Beste batek:

— Iri asko xamar emango ditek? Oraindik gaztea edo sasoikoa ago ta lan asko egingo dek baserri ortan.

— Bai; illean duro bat agindu zidak nagusiak. Baiña urtean bein eramaten omen dik txekor bat mataderara, eta orduan egingo ditugula kontuak esaten zidak. Nere lengusu batek aldizka zerbait ematen zidak, eta olaxe bizi nauk.

Besteari:

— I ixilik ago. Ez diguk ezer esaten.

Eta taldeko batek:

— Bai. Au maltzur xamarra dek. Besterenak jakin nai izaten dizkik onek, eta bereak ixilik gorde.

— Ba, esango dizuet garbi. Neri etxeakoandreak igandeetan, nagusiaren ixilka, bi erreal edo pezeta bat ematen zizkidak, goizetan ukuillura joaten naitzenean esnari ur pixka bat botatzeagatik. Gajoak nolabait osatu nai izaten dizkik esne artzalleentzat bear ditun litroak, eta naiko komeri ibiltzen dik bere esne orrekin. Jakiña, au etxeakoandreak eta nik bakarrik zekiagu. Ala esaten baitit beti: Jainkoagatik ez iñori esateko esnari ura botatzen diotenik. Zuei konfiantzan esaten dizuet. Baiña deskuido santuan gure nagusiak baleki, artu aurrean eta bialduko netxiokek etxetik; eta ori ere etzaidak komeni, ez neri eta ez etxeakoandreari ere. Faborez, zuek ez beintzat esan iñori.

Orrelaxe jardun ziran amairu mutilzaar aiek.

Bazituzten euren izengoitiak ere. Batek *Itxua*, gutxi ikusten zualako; *Frantzes*a, Joakin Landa, *Pipas*, *Patxi Kokotz*, *Arto* bi anaiak, *Kostel*, *Norte*, *Abarkax*. *Patxi Lixar*; eta taldean bazuten beste mutilzaar bat oso zuzena etzana: *Joxe Beltxa* eta *Galarretako Beltxiña* esaten ziotena, beste asko bezelaxe baserriz baserri morrontzan ibiltzen zana.

Deabrukeri pranko egiña zan batean eta bestean. Baserrietan gauean kanpoan freskatzen zeuden marmita esneak irauli edo ankaz gora bota. Baiña lenda-bizi naiko esnea edandakoan egingo zuan ori. Eta beste baserriren batean etxe ondoan gurdia ikusten bazuan, artu eta aldapan beera bota.

Azio koxkor auek geienez gauez egiten zituan. Eta urrengo egunean gurdi-jabea egun guztian gurdi billa erotu bearrean, ezin aurkiturik:

— Zein demoniok eraman ote dik gure gurdia? Nik ikusi izan banu, kenduko nizkioan mutur ezur-reko otzak! —esanez.

Noizbait aurkitu omen zuan gurdi ori, baiña eiztari batek eizean zebillela ikusi zualako non zegoan. Gurdi billa zebillen baserritar orren adiskide bat omen zebillen oillagorretan, eta ari galdetu gurdiren bat ikusi al zuan. Eta eiztariak:

— Gurdia? Bai. Or beeko zulo ortan ikusi det sasi tartean sartuta dagoala.

— Eskerrik asko.

Ori esan ta joan omen zan gurdi jabea eiztariak esandako erreka-zulo ortara, eta an omen zegoan gurdi ori, pertika puskatuta, kurpilla bat falta, ardatza zearo okertua, saietsetako olak ere puskatuak. Pilarmonika zaar bat omen zirudian.

Baserritar orrek, jakiñik *Joxe Beltxa* biurri xamarrara zala, aren juzku egin zezakean. Baiña garai artan bai-baiziran olamoduzko deabrukeriak egiten zituztenak geiago ere, nola asmatu pekataria nor zan?

Bere amarekin ere beti asarre eta errietan jarduten zan *Joxe Beltxa*. Ala esaten zion:

— Zuk etxeko arrautza guztiak dendako andrearri saltzen dizkiozu, eta sardin zaarrak ekarri etxera. Arrautzak ez dira txarrak etxerako ere.

Eta amak:

— Bai. Ogia edo etxean bear diran gauzak ekarriko baditugu, zerbait eraman bearko diagu.

Beti orrelaxe jarduten ziran ama-semeak; eta gau batez *Joxe Beltxa* sagardotegitik bapo bustita joan omen zan etxera; eta, etxekoak lo zeudela, artu omen zuan eskuan itaia eta an dijoa oillotokira, eta oillarra utzi eta oillo ta oillanda danei lepoak moztu eta martxa meta azpira lotara. Eta urrengo egunean ere berriro sagardotegira txintxurra bustitzera.

Orrelaxe ibiltzen zana zan *Galarretako Beltxiña*. Amari ere, bera lo zegoala, disimulo ederrean miatzen omen zion mantalaren patrika. Baiña ama konaturatu zanean lapurra zebillela etxean, andik aurrera koltxoiaren azpian gordetzen omen zuan mantala.

Sagardotegia zuan bere gogozko lekua. Baiña sagardoa bezelaxe gustatzen zitzaizkion ardoa, txanpaiña, kafea eta kopak ere.

Noiznai joaten zan Oriamendi baserrira. An biar pagatzekotan ematen baizioten sagardoa. Eta kan-kar aundia bereganatu zuan egun batez, pixa egin bear zuala eta kanpora atera zan; eta, etxearen azpiko aldean aldapa bizi-bizia danez, an joan zan bueltaka beeko zuloraiño, eta antxe gelditu loitan sartuta, altxa ezin zala. Eta Joxe Martin goitik begira zegoanez, bertso au kantatu zion:

Zu ikusita urrikaltzen naiz,
Galarretako Beltxiña,
goitikan bera amildu eta
loitan or zaude etziña.
Zartu ezkeru jakiña dezu
iñork ikusi eziña,
obe zenduke konpesatuta
lenbailen ilko baziña.

Ondoren adierazi nai nukean gertakizun au 36-ko gerra garaikoa da. Militarrak gerra garaian, eta noiznai ere bai, lagun urkoaren gauzekin eurak agintzen dute edo jabe egiten dira. Francoren soldaduak Donostia eta inguruko erri eta errixka guztiak berenganatu zituztenean, Ernani aldetik Aiete alde-ra sekulako mando pillak zetozen.

Benta baserriko belardi eta baratzetan zeuden belar eta barazki guztiak, militar oienak balira bezela, jan edo ondatu zituzten; eta Joxe Martiñek ondorengo bertso au kantatu:

Goseak amorratzen
orrenbeste mando,
Gobierno batentzat
ez derizkat ondo:
berak ez baluteke
obetogo jango,
neskak kortejatzero
ez lirake joango.

Joxe Martin gizon jatorra eta langillea zan. Lan egokia edo artetsua gogozkoa zuan, baserri-langintza, naiz ganaduan eta soro-lanetan.

Baiña bazuan besteetatik aparte apizio aundia zuan beste eginkizun bat: sagar-landarea zuan bere maitea, eta sagar motarik onenak aukeratu eta landatzen aleginduko zan geienbat. Orretxegatik izaten zituzten sona aundiko sagardoak Oriamendi baserrian.

Gogoan det: 36-ko gerra ondorenean sagar-urte ikusgarria izan zan. Baiña Joxe Martin urte askoren jabe zana, almenak urritzen zijoazkion, eta giza indar gutxi etxean.

Semeak, geienak, ezkontza bidez irtenak ziran etxetik. Gazteena, Anizeto, soldadutzan. Emakumeak, berriz, izaten zuten lanik asko baratzen, eta gizarajoa bakar samar aurkitzen zan.

Ni auzorik aldeenekoa izanik, neregana etortzen zan, laguntzera joango al nintzan mesedez esanez. Eta, ain biotz oneko gizona zala jakiñik, bi bider pentsatzen egon gabe ematen nion nere baiezkoa, eta biok oso ondo moldatu izan giñan beti.

Sagastian sagar-zakuekin gurdia kargatu eta tolarean bear ziran lekuan jartzen nizkion nik.

Laguntza au ez nion egiten diruz ordaintzeagatik, borondaterik onenez baizik. Baiña etzitzaion aztuko eskupekoa ematea. Ezta ere, sagardoak egiten zuanean, barrika koxkor bat, sagardoak beteta, gure etxera ekartzea, esanez:

— Edan ezazute au familian.

Nik garai artan ganadu gutxi neukan ukuilluan, eta baratzez ondo osatzen nintzan. Baiña ongarrri edo simaurrez urri antxean. Eta goiz batez or ikusten det Joxe Martin gurdikada aundi bat simaurra-ekin, gure baratzan ustutzen ari dala.

Esan nion:

— Zer ari zera, Joxe Martin, gure baratzan simaurra ustutzen?

Eta berak:

— Bai; gizona zera ta.

Sagar-urte arrigarri bat izan zan urte batez, eta gizarajoak izan zuan naigaberik asko. Sagar-zugaitza ain maitea zuanez, eta sagarra adarretatik zintzilik austeko zorian, eta adar auek puskatu ez zitezen, urtxilloak azpitik gora jartzen zeramazkin egunak.

Baiña eginkizun au bukatu xamar zuala, laiño beltz itxusiak estali zuten zeru aldea. Asi ziran tximistak eta trumoi ots izugarriak, eta arratsaldeko laurak alde ortan or etorri da sekulako arri-erasoa, eta sagar guztiak txiki-txiki eginda utzi.

Errosarioa santua errezatuz etorriko zan noski Joxe Martin gizarajoa etxe aldera, eta auzoko batzuek adarra jotzearren:

— Arria egin digu, Joxe Martin!

Eta berak:

— Bai; eta grazi ederrean gaiñera!

Badet beste zerbait ere esan bearra Oriamendi baserrian gertatua. Joxe Martin eta bere emazte Pantxika, biak ere urtez aberatsak ziranez, lenengo Pantxika gaixotu eta guztiok agurturik zerura joan zan.

Ni baserri ortan asko ibiltzen nintzanez, pertsona bat iltzen danean egin bear izaten diran gauzak neronek egin nituan. Au da, lenengo sendagilleari adierazi edo gertatu danaren berri eman. Ondoren Artzai Onaren edo *Buen Pastor*-ko elizara joan eta

apaiz jaunak esango zidan noiz edo zein ordutan izango zan illeta edo elizkizuna. Ondoren, il-kutxaren gorabeera egin eta urrengo egunean izaten zan gorputza Polloe il-errira eramatea. Lau gizonen arte bizkarrez eramaten zan Donostian, Urumea ibaiaren gainean egiña dagon Santa Katalina izeneko zubiraiño, eta emendik zaldi-kotxean Polloeraiño, gaur gauzak aldatu diran arren.

Etzion Joxe Martiñi on egingo emaztea iltzeak. Emaztea il da andik iru bat illebetera gaixotu egin baizan bera ere; eta gaixotasuna indartzen zijoan bezela, bera makaltzen zijoala ikusten genduan.

Oean etzanda zegoala larritasuna nabaitzen zuan. Orduan guk, bere seme Andresek eta nik, exertzen laguntzen genion, eta asko ixtimatzen zuan. Oearen egalean oiñak kanpora zituala egoten zan aldi luzean; baiña beti umoretsu eta aurpegi alaiz ikusten genduan.

Aldizka bertsoren bat kantatuko zuan. Baiña abotsa gutxitzen zijoakion, eta guk ezin ulertu zer esaten zuan, Ala ere, Andresek bazituan aitari, eriotzean zegoala, entzundako bertso bat baiño geiago paperean idatziak. Baiña Andres bera ere il zan, eta orain ez dakit nun izango diran bertso-paper alek.

Nik neronek ere gogoan artu nion bat, eriotz une larri artan kantatu zuana. Onelatsu da oker aundirik gabe:

Agur egin bearra
nago munduari,
otoitzean eskatu
diot Jainkoari,
komeni baldin bada
emateko neri
asko kostata eindako
zeru eder ori.

Andik laster il zan gizarajoa. Zeruan beza atsedeen.

Bere emazte zana il zanean eskeiñi nion laguntza bera eskeiñi nion Joxe Martiñi ere. Au da, elizako eta gaiñontzeko egin bearrak zuzendu eta, oitura zan bezela, urrengo egunean gorputza eraman Santa Katalina zubiraiño.

Baiña aurrez eman nai nuke Oriamendi base-
rrian une artan gertatu zanaren berri.

Bazan Aiete auzoan, *Paraiso* izena duan base-
rrian bizi zan gizon bat, *Deabrua* esaten ziotena. Ni
geien arritzen naizena *Deabrua* nolaz joan zan
Paraiso-ra bizitzera. Dana dala, Oriamendi baserri-
koak asarre izaten ziran gizon onekin.

Joxe Martiñen gorputza il-kutxan jarririk zego-
an; eta, apaiza etorri zanean, agindu zuan gorputza
beera jeixteko. Une artan iru semek artu zuten
aidean. Baiña lau lagun bear ziranez, eta ni, beste
jende geiago bezela, beean sotoan nengoanez,
Andresek otsegin zidan, esanez:

— Sebastian, igoko al aiz, mesedez, aita beera
jeixten laguntzera?

Eta nik:

— Bai. Banetorrek bereala.

Artu genduan Joxe Martiñen gorputza zegoan il-
kutxa ori; eta, eskailleretan beera gatzela, or sar-
tzen da *Deabrua* il-kutxaren azpira. Berak ere
lagundu asmoz egingo zuan noski.

Eraman genduan, ba, Joxe Martin gizarajoa,
esan bezela, Santa Katalinako zubiraiño; eta, apai-
zak bere otoitzak egin ondoren, zaldi-kotxearen zai
gudela, Joxe Martiñen semeetako batek, Joxe Leo-
nek, au esaten dio bere osaba Linori:

— Gure aita bere denboran lur zalea izan bada
ere, oraintxe izango du, ba, aukera.

Osaba Linok:

— Bai; eta uste diat nere anai au zuzen-zuzenean zerura joango dala.

Joxe Leonek:

— Ala iruditzen al zaio, osaba?

— Bai. Etxetik ateratzerako, deabrua azpian artu dik eta...

Oriamendi baserrian, lengo belaunaldietako Kalonjetarrak bertsolariak izan ziran.

Joxe Martin bertsolari zuzena eta egokia zan. Baiña bera baiño ondotoz obeagoa zan bere anai Lino zana. Bertsoa errez etortzen zitzaion, eta oso kantari ona zan. Gustora egon izan giñan berari entzuten.

Joxe Martiñen semeak ere bertsolari onak izan dira. Andres eta Joxe Leonek etorri ona zuten. Aldizka kantatu izan genduan alkarrekin. Anai gazteenak, Anizetok, etzuan kirol ortarako apiziorik. Baiña besteetatik ondoto nabarmentzen zana, Xegundo, anaietan zaarrena, izan zan, naiz bat-batean kantatzen, eta baita ere bertsoak paperean idazten. Bertso-jarrialdi bat baiño geiago baditu sarituak.

Martutene baillarako jaiak ziran egun batez, izan genduan deia: bertako jaiak zirala eta ea mesedez bertsotara joango giñan. Neri deitu zidan telefonoz jai oien ardura zuanak: Joxek, Aingelu baserriko nagusiak; eta ni joan nintzan Oriamendi baserrira Xegundori abixatzera.

Ala zion berak:

— Bai. Ez dek abixu txarra. Baiña andregaiarengana joan bearrean nauk.

Nik:

— Motell, utzi akiok egun batengatik andregaiarengana joateari.

Eta berak:

— *Bueno, bueno*. Esaiok Joxeri joango generala.

Ama Birjiña Mesedetakoaren egunez ospatzen dituzte Martutenen bertako jai nagusiak. Au da; irailaren 24-an. Alaxe joan giñan, eta bi saio egin genituan, bat eguerdian eta illunabarrean bestea. Eta, gazteak dantzarako irrikitzen zeudenez, trikiti-xa eta panderoa astintzen asi ziran, eta danak dantzan jo ta kea.

Gero, urteak zijoazkion bezela, gaixotu egin zan nere lagun Xegundo gizarajoa; eta gau batez, 1986-ko otsaillaren 4-an, derrepente edo bat-batean, irurogei ta amabost urte zituala, il zan.

Egunkarian beraren izena zetorren eskela irakurri nuanean, biotza minberatu zitzaidan, sinistu ezin litekean moduan; eta ondoren, andik egun gutxi barru, eskeiñi nizkion bertso auek, irakurle, zure gogozko badira irakurri ditzazun.

1 Egunkarian agertu zaigu
berri negargarrizkoa,
irakurri det nola il zaigun
Xegundo Irolakoa.
Len irriparez geundenok orain
begietatik malkoa,
naigabeturik utzi gaituzu,
lagun zar biotzekoa.

2 Udaberrian txorien gisa
gogoz abesten zenduan,
alaitasuna nabaitzen gendun,
Xegundo, zure onduan.
Guk ez daukagu geiago alkar
ikusterikan munduan,
baiña arnasik dedan artean
izango zaitut goguan.

3 Amaika bertso eder botea
zera zu lagunartean,
bai makiña bat idatzi ere
zure gelara joatean.
Argitaratu bearako dira
danak liburu batean,
Aita Zabalak bera bizi dan
etxera eramatean.

4 Orain bost urte egin zioten
oin batetik ebakuntza,
baiña geroztik ondo zebillen,
zintzo zaindurik gorputza.
Uste gabean etorri zaio
bat-batean eriotza,
luzaro gaixo tristeia baiña
au ere ez al da motza?

5 Ezin uxatu zendualako
zeure oiñeko miñikan,
operatu ta or egon ziñan
luzaro Poliklinikan.
Bixitatzera joaten nintzan zu
lagun on bat izanikan,
alkar agurtu gabe il bear
ez daukat beste penikan.

6 Orain berriro amets egin det
zu gurekin zabiltzala,
Euskal Errian premizko gendun
oraindik zure itzala.
Zer naigabea esan bearra
lagun Xegundo il zala!
Otoitzen bidez opa dizut nik
Jaunak berekin zaitzala.

Oiartzungo sagardotegi batean

AMAIKA ibillaldi xeibre egiñak gera gazte denboran gure sagardotegietan. Orain urte askoko gertaera da esatera nijoan au.

Udaberri aldera jakiten genduan sagardo onak saltzen asi zirala an da emen, eta norbaitek or esan digu Oiartzun alde ortan, mendi aldeko baserri oietako batean, oso sagardo ona jarri zutela saltzen.

Gaur baiño sasoi ohea genduan; ez gindun aldapak eta gau illunak asko beldurtzen, eta bi lagun, Oriamendi baserriko Xegundo eta biok, atera giñan igande batez Donostiari dagokion Aiete baillaratik, eta jo degu Oiartzun aldera.

Bide trakets aldapatsu batean gora, egun argiz giñan eta oiñak nuntsu jartzen genituan ere ikusten genduan, eta alkarri esaten genion:

— Or goien izango dek sagardotegi ori.

Noizbait iritxi giñan baserri ortara. Bere izena nola zan esan ziguten, baiña orain ez naiz oroitzen. Oiartzundik Irun aldera goazela, Aldako esaten dioten baserri baten ondotik pasa eta ezkerretako bidean gora, beste baserri batzuen ingurutik pasa eta nik ez dakit nun barrena ibili giñan.

Baiña oroitzen naiz lenengo ongi etorria zakur zaar lotsagabe batek egin zigula. Berez mutur bel-

tza zan arren, ortza zuriak erakutsi zizkigun. Itzegiten etzekian, baiña inguru artan berak agintzen zuala esan nai zigun alegia, eta kontuz ibiltzeko; eta etzuan arrazoi faltarik.

Nere lagun Xegundok, eskuan zeramakin maki-llarekin jotzeko keiñu egin zion. Baiña bai ortza zuriekin azkar kendu ere, eta bera egin zan maki-llaren jabe.

Egarriak geundenez, sagardotegira sartu giñan mama gozoa edatera. Egun artan etzuan euririk egin; baiña baziran bapo bustita zeuden sagardoza-le batzuk: sagardoa edan eta alkarri bertsoa bota. Gu sartu giñanean, beintzat, alaxe ari ziran; eta, gutxi gorabeera, onelatsu kantatu zuan batek:

Noiz ibili bear dek
gizona bezela?
Bart arratsean ere
bildu dek epela.
Or abil gerrikoa
zintzilik dekela,
ta nun deken jakin ez
buruko txapela.

Erantzuna:

Zertan ari aiz emen
neri kargu artzen?
Zer entzun bear deken
ez al dek pentsatzen?
Edorren pekaturik
ik ez dek aitortzen:
nik ez dit mozkortzean
emazterik jotzen.

Naiko kopetillun jarri ziran biak ere, alkarri itz gogor xamarrak esanez. Baiña bereala baretu ziran, eta illunbistan aldegin zuten, etxera zijoazela esanda. Euren lagunak ere bide beretik joan zirala uste det.

Gero, sagardotegian gelditu zan jendea marmarean jardun zan, esanez alegia, senarra sagardotegira joaten zan egunean, emaztea ganbarara joaten zala lotara, gizonak bizkarra berotuko zion beldurrez.

Emakume gajo ura ere etxeakoandrea izango zan; baiña neskame batek bezin arlote bizi bearako zuan, senar biotz gogorraren mende.

Kontuak kontu, lentxeago nion egun artan etzuala euririk egin, baiña bazirala sagardotegi artan bapo bustita zebiltzanak.

Baiña guk ere ase genituan, ba, legorteak. Gustora jardun giñan edan da edan.

Baiña ondoren zetorrenak etzigu poz aundirik ematen. Etxeratuko bagiñan, bide kaskarrari ekin bearra baigeneukan.

Une artantxe bururatu zitzaidan Gaztelu eta Udarregi bertsolariak Igeldo bidean kantatu zuten bertso au. Jakiña, gaur Igeldo bidean, eta nun-nai ere, kamio ederrak dauzkagun arren, garai aietan bide kaskarrak izango ziran.

Kontuak kontu, egun batez, Udarregi eta Gaztelu Donostiara etorri omen ziran; eta, eguna bertan pasa ondoren, gauez abiatu omen ziran euren etxetara, bata Usurbilla eta bestea Aginagara.

Igeldo bidean gora jo bear eta, Mendizorrotz ingurura iritxi ziranean, ekin omen zioten alkarri bertsoan; eta alako batean puntu au jarri omen zion Gazteluk Udarregiri:

Gaiñak artu ditugu
laster gera bian.

Udarregik:

Estrepozoka nator
beldurrak aidian.

Gazteluk:

Ez dakit bide auek
nork egiñak dian.

Udarregik:

Paseatu izan det
paraje obian.

Bi bertsolari auek aitatu ditudan ezkeru, euren zenbait pasadizo edo bertso ere aitatu nai nituzke liburu onetan. Udarregirekin asiko naiz.

Bein lagun-talde bat sagardotegian meriendatzen ari zirala, famili kontua berritu omen zuten: batek ez dakit zenbat seme-alaba zituala; besteak danak semeak zituala; eta beste batek zion, berriz, egiñalak egiten zituztela, baiña ezin zutela aurrik lortu...

Taldeko norbaitek esan omen zion Udarregiri ea bertso batean esango zuan, alegia, zer famili zuan; eta onela kantatu omen zuan:

Iru alaba ditut,
irurak gaztiak,
zarrenak zortzi urte,
sei ta lau bestiak.
Seme bat bear dala
dio emaztiak,
atarramentu txarra
jartzen dit tristiak.

Eta alaba aiek azten zijoazen bezela, iruretako bat senargaia edo nobioarekin jaietan paseatzen asi ere bai, eta bere garaian ezkontzea pentsatu zuten. Euren bigarren pregoiko igandea izan bear zuan. Neskatzak esan omen zion mutillari:

— Datorren igande-arratsaldean ni siestan egongo naiz. Etorri zaitez gure etxeraño. Laster ezkondu bear degu eta ezagutu bear dituzu nere gurasoak, eta aiek ere ezagutu bear zaituzte zu nor zeran.

Ala, joan omen zan, esan bezela, mutil ori base-
rri ortara, eta atea jo omen zuan. Udarregik berak
zabaldu omen zion atea, eta mutillak:

— Arratsalde on Jainkoak.

Garai artan errespeto aundiz mintzatzen baizi-
ran gazteak guraso baten aurrean.

Eta Udarregik:

— Zu al zera gure sui izan bear dezuna?

— Bai, jauna. Ala esaten dute.

Sukaldea beean zutenez, bertara pasa erazi
zuten mutilla, eta kafe beroa eskeiñi omen zion,
geroxeago bere amagiarreba izango zan Udarregiren
emazteak, bertsolaria bera ere.

Bereala asi omen zan gora deika Udarregi:

— Pepita! Ea! Atoz azkar jeikita!

Emazteak:

— Utzi akiozu, berak ere badaki ta!

Eta Udarregik:

— Ez dakit, ba, mutilla ola edukitzea ez da
egoki ta!

Pepita etzan une artan lo egongo noski, erbia
bezin erne baizik.

* * *

Ondoren esango dedan gertakizun au ere Uda-
rregirena dala entzun izan det.

Garai artan atzerritarrak agintzen omen zuten
emen, eta egun batez bildu omen ziran ostatu sona-
tu oietako batean, bazkaldu edo otordu bereziren
bat egin asmoz, goi-maillako agintari-talde bat.

Udarregi ere gonbidatu omen zuten, pentsaturik
maia alaitzeko ere beste edozein ainstebestean molda-
tuko zala; eta, otordua egin ondoren, asi omen zan
bertsotan. Baiña etziran nunbait ain pozgarriak
kantatzen zituan bertsoak, eta agintari jaun oietako
bat urbildu omen zitzaion eta au esan omen zion:

— Juan Jose, badirudi bertsoan beldurrez ari zerala. Baiña gaur nai dezuna esateko badaukazu eskubidea.

Eta orduan kantatu omen zuan ondorengo bertso au:

Aurrean ikusten det
makiña bat jende,
aberats eta pobre,
markes eta konde;
ez genduke esango
beldurrez bageunde:
zertan bizi beagu
erdeldunen mende?

Berriro urbildu omen zitzaion lengo agintari jaun ura, eta itz auek esan omen zizkion:

— Juan Jose, ez kantatu geiago.

Nunbait bertso orrekin min eman zien agintari jaun aiei.

* * *

Orain Gaztelu aginagatarraren bertso bat dakar-
kit orrialde onetara. Gaztelu noizbait andregaiare-
kin paseatzen ibilia izango zan; baiña egun edo une
guztiak etziran neskatxaren gogozkoak izango garai
artan. Bertsolariak parrandero xamarrak zirala en-
tzun izan det, eta ez dakit neskatxari pazientzia
aitu edo, aizea artzera bialdu omen zuan nobioa,
eta Gazteluk bertso au kantatu:

Esan zenidan nekazaritzan
etzenduala etsiko,
denda koxkor bat ipiñi eta
biok giñala biziko;
zazpi ministrok beartuta ere
ez ninduzula utziko,
kariño piña artu zidazun
baiña denbora gutxiko.

* * *

Barkatu mesedez. Oiartzun aldeko berriak ematen asi naiz; eta, batere uste gabe, Usurbil aldera pasa. Baiña banator berriro ere len utzi dedan bideari jarraitzera. Gogoz ari giñala nion, alegia, sagardo edan eta edan. Merienda ere oso ona eskeiñi baiziguten tortilla bakalloarekin egiña; ondoren naiko aragi errea, eta kupelera maiz bixita.

Baiña azkenerako kankarrekoa erantsi zigun disimulo ederrean, eta esan nion nere lagunari:

— *Bueno*, motell: poliki-poliki abiatu bearko diagu aldapa ortan beera.

— Bai? Beste baso bana edan da joango gaituk.

Pena ere ematen zigun ain sagardo gustagarria utzita aldegitak. Baiña gu bizi giñan etxeak urruti zeudela pentsaturik, Xegundok Oriamendira eta nik Azken-Portu baserrira etorri bear baigenduan:

— Agur! Urrenarte! Gabon pasa! -esanez ekin genion bide trakets artan beera.

Ain zuzen, gau artan illargia ere gu baiño zintzogo erretiratua izango zan nunbait, eta beldur giñan karobi-zuloren batera amilduko ote giñan. Illunaren illunez ez baigenduan ikusten oiñak nun jartzen genituan ere.

Ez dakit sagardoaren txinpartak edo zerk egiten zigun; baiña uste gabeko erorkada batzuk ere egiten genituan. Ala ere, aztarrika batzuen ondoren, zutitu berriro ere eta segi, mutillak, aurrera!

Meriendatzen sobratu zan aragia ere artu genduan paperean bilduta poltxikoan, urrengo egunean gosaltzen jango genduala, eta txakurrarentzat ezurak ere bai. Baiña danak an galdu genituan.

Aiek al ziran, ba, bideak? Auntza bera ere etzan zutik egongo. Baiña, kontuak kontu, noizbait, edo obetogo esateko nolabait, etxeratu giñan, bai, eta ez giñan asarre.

Alkar agurtzerakoan, batek besteari esan genion urrengo igandean ere joan bear genduala Oiartzun aldera; baiña bakoitzak bere linterna eramatekotan.

Iritxi zan, ba, ez guk nai baiño len urrengo igandea ere. Etxean esan genduan Ernanira goazela; baiña gu Oiartzun aldera begira jarri eta bai zuzen asko joan ere.

“Gustoko lekuan aldaparik ez” dio esaerak. Baiña berriro pasa bear izan genduan oso gogozkoa etzan aldapa trakets bildurgarri ura, sagardoa edango bagenduan; eta noizbait iritxi giñan beintzat baserri ortara.

Arrigarrizko jendetza zan bertan zurrutean ari zana; eta, norbaitek esan zigunez, egoarte artan ustu omen zan lengo kupela. Nagusiak kanilla sartu omen zion beste kupelari, eta an ari ziran eztabaidan lengo kupeleko sagardoa ohea zala eta etzala.

Guk ere geure iritzia eman nai genduan, eta esan genien kupela berrikoa sagardo ohea zegoala.

Lengo kupelekoak jo egiten baizuan, eta azkene-rako bai berriak ere. Ala zion jendeak:

— Sagardo onek badik deabrukeriren bat. Nik, beintzat, atzo baiño gutxiago edan diat, eta sekulako kankarra arrapatu diat; eta emen nabillek zutik ezin egonik.

Beste batzuk, berriz, buruari eldu eta maian lo.

Beste bat, etxearen atzekaldean zegoan zugaitz baten azpian, oiuka:

— Gizon baldin baaiz, etorri adi onera! Nik kendo-duko dizkiat muturreko otzak!

Bazirudian bertan zegoala Iberduero-ren indar-etxea edo zentrala. Ura zan, ura, sasoi jendearena! Baiña bitartean zutik ezin egon.

Guk ere bagenduan galtzak bete lan disimulatu
nai eta ezin.

Gu abiatzeko aurrean, sartu zan aitona blusa-
dun bat, bera ere naiko bustia:

— Kaixo, jaunak! —esan zuan.

Ekin zion bereala sagardoa edateari, eta onela
esaten zuan:

— Au dek mama, au!

Ark etzuan iñor gonbidatzen. Norbaitek eskein-
tzen bazion, edan, bai. Kupelaren ondoan jarri eta
tragoa maiz. Bera ere beste asko bezela jarri zan,
ba, indarrean. Asi zan desapioka, onela esanez:

— Nai duanari jokatuko niokek amar kilometro
korrika zeñek lenago pasa, eta lau orduan zeñek
belar geiago ebaki!

Urte askoren jabe zan batek esan zion:

— Neronek jokatuko dizut, nai badezu.

Aitonak:

— Bai, bai; konforme! Bota siñaleak!

Baiña an etzuan iñork patrikatik dirurik atera-
tzen, eta aitonak:

— Ik mingaiña luzea, baiña diru gutxi!

— Nik diru gutxi? —zion besteak—. Jokatuko
dizut zeñek geiago.

Aitonak:

— Nik etzeukat diru-pantesi aundirik. Baiña
joaten baldin baaiz gure etxera, nere emazteak
cinco bi zerorekin asko zeuzkak, koltxoiaren azpian
gordeta.

Eta ala zion besteak:

— Emazteak bearko! Zureak kontatzen errezak
izango dira noski!

Ikusirik orduak aurrera zijoazela, etxe aldera abiatzea pentsatu genduan; eta aitona ere, "Gabon pasa!" esanda, gurekin batera abiatu zan.

Bide kaskar artan beera goazela, berak kontatu zigun, esanez:

— Zuek ez dezute jakingo baserri ortako sagardoaren miraria zer dan. Nagusiak berak esan zidan neri Jainkoagatik ez iñori esateko, baiña zer martingala edo deabrukeri egiten zien kupelei: sagardo bete aurretik, botilla bat edo beste pattar, koiñaka alegia, astintzen zizkion *pristi-prasta* kupelari, barruko jira guztian, eta gero sagardo bete, eta edari txinpartatsua edo indar arrigarrizkoa atera izan zuan geienetan. Sagardozaleak batere konturatu gabe, ankaez gora botatzen zituan oietakoa.

Eta nik batere uste gabe egin det, ba, pekatu. Aitona malizi gabe arek esan baizigun ez iñori esateko. Baiña orrengatik ez al naiz noski inpernura joango; eta, joaten banaiz ere, an aurkituko det aitona itz-jario ura, ni bezin errudun baita bera ere, guri esateagatik.

Kontu kontari goazela, bidegurutz batean agurtu gindun, esanez:

— Nik emendik joan bear det.

Eta gu bide trakets artan beera, al genduan bezela. Antxe konturatu giñan linternak etxean utzi genitula aztuta, eta illargia ere bere garaian ezkutatua izango zan noski.

Izarrak maiz xamar ikusten genituan, eta ez zeru aldean, gertuago baizik, zugaitz-adarrak begiondoan jotzen giñunean. Logaleak zegoana esnatu erazten zuten aiek disimulo ederrean.

Alako batean or dijoa nere laguna amilka goitik beera, sasi mordo aundi batean ezkutatzeraiño. Alazion:

— Amildu egin nauk. Etzekiat nola aterako naizen.

Nik goitik esaten nion:

— Miñik artu al dek?

Berak:

— Orain ez diat sentitzen. Biar izango dituk kontuak. Aurpegiko eta eskuetako arantzak aterazten bazeukat egun erdi bateko lana.

Eta, ez bat eta ez bi, or asten da sasi tartean bertsoan. Onelatsu kantatu zidan:

Goitikan bera amildu niok
sagardoaren indarrak,
ongi etorri egin zidatek
emen otiak ta larrak,
aurpegi dana zauriturikan,
baita ere atzaparrak;
arantza zorrotz asko zeuzkat nik
biar atera bearrak.

Garai artan neroni ere, trebeago nintzalako-edo, bat-batean bertsoak kantatzen zerbait jarduten nintzan, eta nik ere nolabait eman nion nere erantzuna:

Zurruta maite duanarekin
edariak agintzen du,
batere uste gabeen jo ta
ankaz gora botatzen du.
Auxe da emen gertatu dana:
guk nai baiño len illundu;
etziñan beko zulora joango
linterna izan bazendu.

Ederki kostata baiña noizbait atera zan, ba, sasi tartetik gora nere lagun Xegundo, eta nolabait jetxi giñan bide trakets artan beera.

Urrutira ikusten genduan Aldako baserriaren argia piztuta zegoala; eta, bertara urbildu giñanean, ez giñan asarre. Andik aurrerakoa errezago egin genduan, bidea ere obexeagoa zegoan eta noizbait edo nolabait etxeratu giñan beintzat, eta kito.

Ala zion nere lagunak bere eskuei begiratuz:

— Ni ez netorrek sagardotegi ontara berriz, kamio berriren bat bertara egin arte!

Urresti-azpi

URRESTI-AZPI eta Urresti-gain bi baserri dira Donostian, Ibaeta baillaran edo auzoan kokaturik daudenak. Gutxi gorabehera, kilometro baten tarte egongo da baserri auetako batetik bestera.

Errezago ulertzeko, Urresti-azpi baserriko gerta-kizunak idatzi nai nituzke lenengo.

Gaur baserri ortan ez da saltzeko sagardorik egiten. Baiña garai batean sona aundiko sagardotegia izan zan Urresti-azpi baserria.

Joxe Mari Erkizia bertako nagusia. Urte asko dira emaztea il zitzaiola, eta bera ere aspaldi xamar il zan.

Sei seme-alaba izan zituzten. Auetatik iru illak dira: Txomin, Mikel eta Markos. Zeruan bezate atsenden. Orain iru bizi dira: Iñazi, Ramona eta Martin.

Famili zintzoa eta langillea benetan, euren gurasoak ziran bezelaxe. Biotz onekoak eta leialak. Zeukatenetik eskeintzeko borondate onekoak.

Eiztariak izan dira geienak. Eiza ere orain baiño ugariago izaten zan garai artan, orain dala irurogei ta bederatzi bat urte, oker aundirik gabe. Negu partean beintzat, inguru aietan eiztariak izaten zuten gozamina: oillagorrak zirala, istingorrak, basoilloak, kuartzak, antzarrak, egaberak, frankoliñak, usoak, erbiak, xoxo ta birigarro... Danetik aukera.

Sukalde aundia dute baserri ortan. Baiña geienetan goi-sapaitik zintzilik sekulako egazti-mordoa ikusi zitekean bertan. Ura zan, ura, edertasuna! Begira jarri eta etzan aspertu ere egiten bat.

Ni baserri ortatik gertu nola bizi bainintzan, Artola baserrian morrontzan alegia, noiznai joaten nintzan bertara nere lagunetara. Negua zalarik, eguraldi bustia edo otza izaten zan geienetan, eta sukaldera igo erazten ninduten, eta jateko edo edateko, zeukatenetik zerbait eskeiñi ere bai: sagardorik onenetik, eta ogi tartekoa ere bai.

Joxe Mari bertako nagusiak azkar esango zion bere alabari:

— Inazi, jarri ezaiozu Sebastiani oillagor bat kaxuelan.

Nik:

— Neri oillagorra? Ez ezertan ibili!

Joxe Marik:

— Zuri ez ematekotan, zeñi eman bear diogu, ba?

Eta Inazik, ain sukaldari txukuna eta egokia danez, bereala prestatuko zidan kaxuela goxo askoa.

Bere seme bat banintz bezelaxe artzen bainindun Joxe Marik; eta bere seme-alabak, berriz, euren anai bat bezelatsu maite ninduten; eta nik ere berdin, ain borondate oneko familia izanik.

Erkiziatarrak, gazteak beintzat, geienak nere kirakoak ziran. Anai zaarrena, Txomin, eta ni kinta berekoak giñan; 36-ko anai arteko gerra beldurgarri artan alkarrekin mendian tiroka jardunak, naiz eta gero zauriturik biok bizirik etxeratu bagiñan ere, zoritxarrez millaka asko ilda mendian gelditurik, eta konta ezin ainbat zaurituak ospital danak gaiñezka beterik. Negargarria benetan!

Urresti-azpi baserri ortan geienetan sagardo txinpartatsuak edo jendearen gogozkoak egiten zituztelarik, sagardozele giñanok errez aurkitzen genduan bertaratzeko bidea.

Nik aspalditxoan gutxi edaten badet ere, oso sagardozalea izan naiz, mutil koskorra nintzanetik, jakiña. Errenterian Sagasti baserrian gurasoekin bizi giñala, sagardoa egiten baigenduan etxerako eta saltzeko ere, eta ortik nunbait nere zaletasuna.

Nik izan dedan edari gogozkoena sagardoa izan da beti, eta nere lagun geienak ere alaxe izan dira.

Igandeetan edo jai-egunetan alkartuko giñan bost edo sei lagun, eta ez giñan luzaro egongo nora joan pentsatzen. Donostian, Loiola auzoan, kokaturik dagoan Txomin-enea tabernan erromeria izaten zan, eta bertara joko genduan lenengo.

Arratsaldeko irurak aldera asiko zan soiñujole bat bere auspoa astintzen, eta an etzegoan geldirik egoterik. Neska ta mutil, oiñetakoak urratzeraiño, jo ta ke dantzan.

Ia lanean baiño geiago nekatu, baiña ajola gutxi guri. Sasoi ortan ez baigenekigun nekea zer zan ere.

An aspertzen giñanean, ez genduan galdezka jardun bearrik nora joan bear genduan. Sagardotegi bateko bidea izango zan artuko genduana; eta lenengo, beintzat, ain legorturik geneuzkan eztarriak busti.

Ondoren, patrikako kutxa bero xamarra baldin bazegoan, merienda pixka bat egin; eta, kutxa otza baldin bazegoan, etxera azkar belarriak kuxkurtuta.

Astelenetik asita, aste guztian lanean, bururik jaso gabe, berriro ere igandea etortzeko irrikitzen. Orrelaxe zan gure gazte denborako bizimodua.

Barrikoteak egiteko ere oitura aundia zan garai artan. Norbaitek galde lezake barrikotea egiteak zer esan nai duan. Ba, au adierazten erreza da.

Barrikotea izaten da eun edo berreun litro sagardo kabitzen dituan barrika koxkor bat. Sagardo berria egiten dan garaian, sagardoz bete eta tolare azpian txoko batean jarri; eta, edateko puntuan dagoanean, lagun-talde bat osatu, eguna aukeratu

eta apari-merienda eder bat egiñez barrika ortako sagardotik edateari esaten zaio barrikotea.

Au sagardotegi batean baiño geiagotan egiña nago, eta badet jakiteko arrazoirik edo jakiteko motiborik.

Baiña geienbat Urresti-azpi sagardotegian ibilia izango naiz barrikotean, anaiarteko gerra beldurgarri aren aurretik asita. Gero, gerra ondorenean ere bai. Bi garai eta giro ezberdiñak ziran aiek.

Gerra aurrean, barrikote bat edo otordu bereziren bat egin nai bazan, ez genduan baimenik bear izaten. Baiña bai gerra ondorenean. Sei lagunetik gora baldin bagiñan, baimen berezia bear izaten zan, orrelako lagunarteko billera bat egingo bazan; eta egingo izan ori geienetan nere gain izaten zan.

Donostian, Okendo kalean, gaur *Hacienda*-ren etxe aundi ori dagoan leku berean zan garai artan Gobernu Zibilla; eta bertara joan bear izaten nuan baimenaren eske.

An esaten zidaten agintariak baimen-eskaria nun eta nola egin bear nuan: zein egunetan eta ordutan egiteko asmoa genduan lagunarteko billera ori; zein sagardotegitan; zenbat laguneko taldea giñan; danon izen-abizenak paper batean idatzita eramateko zortzi egun aurretik. Noiznai bildu izan gera ogei ta amar, ogei ta amabost eta baita berrogei ta geiago ere.

Egun batzuk lenago joango ziran poliziak Urresti-azpi baserrira, Joxe Mari bertako nagusiari galde egitera zer moduko jendea giñan, esandako egun ortan bilduko giñanak.

Eta Joxe Marik, ez estututzeko; inguru artako baserritarrak giñala, Francorekin gerran ibiliak geienak; eta aldizka-aldizka orrelako billerak egiteko oitura genduala. Eta orduan ematen ziguten baimen-agiria.

Baiña ala ta guztiz ere, guk barrikotea egin bear genduan egunean, apari-merienda egiten asi aurretik, an etorriko ziran bi polizi paisano-jantzian.

An asiko zan ain borondate oneko Inazi sukaldari txukun eta iaioa, lapa zoparekin prestaturik zeuzkan kazuela aundiak mai gaiñetara ekartzen. Asten giñan jaten, eta arriturik galdetzen ziguten poliziak ea kazuela aiek danak ustuko genituan.

Guk baietz, eta beste zerbait geiago ere bai.

Joxe Mari nagusiari esaten zioten umorean jarriko giñala ainbeste sagardo edanda. Joxe Marik baietz, umoretsuak giñala geienok, eta bertsolariak ere bazirala taldean. Eta kantatzeko zioten poliziak.

Xepai bertsolari trebea gurekin zanez, jendea azkar asi zitzaion oiuka:

— Ea, Xepai, kanta akiotek bertso bat ire lagun oiei!

Ez baizituan begi onez ikusten Francoren aldeko jende ori. Eta jateari utzi eta or kantatu zioten ondoren irakurriko dezuten bertso au:

Urresti-azpin bildu gera gaur
lengo soldadu lagunak,
geiago ere badira baiña
ez ditugu ezagunak;
gizon koxkor bi agertu dira,
gaiñera bibotedunak;
begiratuan ezagun dute
ez dirala euskaldunak.

Urte asko dira bertso au entzun nuala; baiña gogoan izaten det, gaur goizean kantatua balitz bezelaxe.

Polizi aiek nola etzuten ulertu Xepaik bere bertsoan zer esan nai zuan, txalo beroak jo zizkioten, eta etzan ezer ere pasa. Baiña ulertu izan balute,

Ondarretako Otelean izango genduan gau artako aparria. Aztuko ziran ederki Urresti-azpiko sagardoa eta txuletak. Garai artan Donostian Ondarretan baizan gaur Martutene baillaran dagon espetxe edo kartzela.

Ez det uste Basarrik eta Uztapidek olamoduzko bertsorik kantatu ziotenik polizi bibotedunei. Baiña olakoxea baizan Xepai, bertsoa zetorkion bezela kantatzen zuana.

Jarraitu dezadan barrikotearekin. Lapa-zoparen ondoren, garai artan gaur baiña aukera ohea eta merkeago izaten zan eta bixiguak erreta, baratxuri eta olio-binagrearekin, eta pipermin pixka batekin ere bai, ederki asko prestatuak.

Artatik naikoa jan ondoren, idi gaillegoaren txuletak, egur ikatzarekin egindako su-brasetan ederki erreta. Ondoren, sagardotegietan oitura danez, in-txaurrak eta gazta. Eta andik aurrera barrikoteari bixita maiz.

Poliziei esaten genien jateko. Baiña etzuten jaten. Zigarroa erre bai galanki: bat erre ordu, bestea piztu. Sagardoa, berriz, gurekin egon ziran denbora guztian, baxo erdi bana edango zuten, kafea artzen dan bezela, txurrut eta txurrut. Aspertu ziranean, oso aurpegi alaiz agurtu ginduzten; eta an joan ziran arriturik, guk nola jaten genduan ikusita.

Gu, euskaldunok, ez baigera, aiek bezela, azeitunak piper binagretakoak eta barkilloak janda bizi. Bakoitzak oitura duan bizimodua egiten du.

Polizi aiek gu utzita gustora joango ziran, joan bear zuten lekura; eta gu ere pozez gelditu giñan, bibotedunak aldegin zutenean.

Geure eginkizunari jarraitu genion. Basoak eskuetan ditugula, tolare azpiko barrikoteari berri-ro ere bixitatxo bat egin.

Ondoren, Inazi sukaldari prestua bezin leiala, danontzat kafe beroarekin agertuko zan, kopak eta puroak ere aztu gabe. Ekarriko zituan puroak geienok piztuko genituan. Baiña naiago izaten genduan basoa, kopa baiño; eta berriro ere tolare azpiko iturritxora begira jarriko giñan. Antxe baizegoan gure edari maitagarria.

Barrikoteari ustualdi bat edo arindu bat eman-dakoan, pentsatuko genduan jan da edateari uzteko garaia zala; eta, ain alkartasun eder eta paketsuan, bertso eta txiste kontari gau atsegin bat pasa ondoren, alkar agurtuko genduan, esanez:

— Beste aldi bat arte!

Etixerako bidea artuko genduan, eta an joango giñan umore ederrean, gaueko ordu txikiak entzuten genituala, alkarri onela esanez:

— Urrengoan goizago erretiratuko gaituk.

Frantzes-Txikia bertsolariak bertso batean bere emazteari esan zion bezela, alegia. Nunbait parranda pixkaren bat egiña izango zan; eta, etxera joan zanean, atea itxita zegoala ikusirik, bertso baten bidez aitortu zion bere pekatua, eta eskatu zion ain premizko zitzaion mesedea:

Amaika t'erdik dira,
oraindikan goiz-ta,
atia iriki zazu,
nere andre maistra;
berez okerra dana
zuzendutzen gaitz-ta,
urrengoan goizago
etorriko naiz ta.

Guk artean ez genduan emazterik, baiña etxera joatean orixe bera esango genduan: urrengoan goizago etorriko giñala, alegia.

* * *

Urresti-azpi baserriko beste bi gizon ere aitatu nai nituzke, bertako berri ematen asi naizen ezkerok. Bat, Roke Erkizia, bertako nagusi Joxe Mariren anaia, gizon jatorra eta alai benetan. *Osaba Roke* esaten zioten danak. Ezkongabea edo mutilzaarra zan.

Donostiako udalarentzat egiten zuan lana, kamifñero. Zapatari deritzaion auzotik eta Ibaeta baillara dana, bere etxe aurretik igaroaz, Usurbilko mugan dauden Azpita eta Barrenetxe baserrietako lurretan zuan elmuga. Bi kilometro ta erdi, oker aundirik gabe. Langillea zan. Kamio baztarrak txukun eta garbi edukitzea gustatzen zitzaion.

Barrikotea egin bear genduanean ere, taldeko izaten genduan, Urresti-azpiko famili guztia bezelaxe.

Bertsozaleak ziran danak, eta oraindik bizi dan bertako Martiñek ere oso ondo daki bertsoak kantatzen. Amaika umore eder igaro izan degu alkarrekin, gazteak giñala.

Eta beste gizon jator bat ere aitatu nai nuke: *Patxi Txikia* esaten dioguna. Mutil koxkorra zala asita, urte askoan Urresti-azpi baserrian bizi izan da.

Sendagilletzarako egin zituan bere ikasketak, eta Donostian, Arantzazuko Amaren eritetxean, izaten ditu bere eginkizunak. Mundu guztiari laguntzeko beti prest dagoana. Biotza eskuan daramaten oietakoa.

Ni iztarretik operatu nindutenean ere, izan nuan bere laguntzaren premi. Bere anai bat banintz bezelaxe lagundu izan dit beti; eta berari eta operatu nindun Blázquez sendagille ospetsuari esker irten ziran gauzak oso ondo, eta geroztik nere iztarrak ez daki miña zer dan. Badet gizon oiekin bein ere bear bezela ordainduko ez dieten zorra.

Patxi Txikia sagardozailea izan da beti. Mutil koxkor bat dirudien arren, gizon aundi batek bezela edaten du, eta ez det bein ere balantzaka ikusi.

Espaloitik errez ibiltzeko moduan beti. Makiña bat aldiz izan gera alkarrekin sagardotegian; baiña bera etzan lenengo abiatuko etxera.

— Goazen, Patxi!

Eta berak:

— Bai, beste baso bat edanda!

Sendagille jaunak edari gutxi edan bear dala esaten digute; baiña eurak gogozkoa dute. Ondo baidakite berbenen ura baiño obea dala sagardoa. Egia esateagatik ez al zaizkit aserretuko noski!

Gerrateak geienak izango dira noski tristeak eta negargarriak; eta guk emen izan genduana ere alaxe izan zan. Samingarria eta luzea gaiñera, iru urtean iraun zuana. Gerrak utzi zizkigun ondorenak etziran nolanaikoak izan.

Agintariak ziotenez, alemanak eta italianoak etorri bear izan zuten Españira, Francok gerra irabaziko bazuan, laguntzera; eta arrigarrizko zorrak egin omen ziran.

Zor oiek ordaintzeko, guk emen bizitzeko bearezko genituan gauza guztiak atzerritar oientzat izan ziran: garia bazan, patata, arroza, olio, azukrea, oiñetakoak, kontserba gauzak, arropak, tabakoak, ganaduak, egaztiak, edariak, egurra, burnia... Itz batean esateko, Españian arrapatu zuten dana eraman zuten; eta gu emen goseak amorratzen, alkar jan bearrean. Zer nai dezute gauza negargarriagorik?

Urte aietan etzegoan gerrikoa estutzeko ministroak agindu bearrik. Ministroa baiño aitona aundiagoak estutu erazten zigun gerrikoa, eta ez genduan sendagilleak agindu bearrik izaten flakatu edo argaldu egin bear genduala.

Neskatxa lirain baten pareko jartzen zan gizon-emakumerik lodiena ere. Errez aurkitu zitezkean berrogei ta amar kilo galdutako agure potoloak, zir-

koko pailazoak bezela euren txamarra aundia lurra jotzeraino txintxilik zutela. An etzegoan geiegizko gizentasunez gantzak alkar jotzeko beldurrik edo arrixkurik. Kiroletarako prestaturik zegoan jendea zirudian.

Geroago, urteak zijoazen bezela, asi zan janaria zerbait ugaritzen eta gosea aztutzen.

* * *

Orain konturatzen naiz beste egun gogoangarri bat ere badegula Urresti-azpi sagardotegian pasea: 1939-garren urteko apirillaren bata, ain zuzen. Españian izan genduan anaiarteko gerra negargarria bukatu zan eguna.

Nik garai artan Donostian udaletxearentzat egi-ten nuan lana, jardinetako guarda edo lorezain; eta udaletxeko agintari jaunak berri pozgarri au eman ziguten bertako langille giñan danori: gerra bukatu zala, alegia, eta egun artan jai egin bear genduala; nai zuanak nai zuan lekura joan baimena ematen zigutela; eta, naiago bagenduan kamioietan joan, bazeudela.

Batzuek Martutene aldera jo zuten; beste batzuek, berriz, Astigarragako sagardotegiren batera. Udaletxeak beti izan duan bezela kamioi-aukera zegoanez, gu, euskaldun-talde aundi bat, Markos Eziolaza txoperrak ibiltzen zuan kamioiarekin joan giñan; eta, bi bider pentsatzen egon gabe, Urresti-azpirako bidea artu genduan.

Aurrez bagenekigun sagardo ona zegoala. Tarteka bixitak egiten baigenituan. Gaiñera, egunkarian ere irakurtzen baigenduan garai artan sagardorik onenak nun zeuden.

Ala zion *La Voz de España* zeritzaion egunkariak: sagardorik onenak, Ibaeta baillaran, Urresti-azpi baserrian; Lugaritz baillaran, Flores baserrian; eta Aiete baillaran, Munto baserrian zeudela.

Garai artan iru egunkariren izenak zebiltzen Donostian. Goizez *El Diario Vasco* eta *La Voz de España*. “*Uno mente y el otro engaña*” esaten zuan jendeak. Eta illunabarrean *Unidad* izenekoa kalera-tuko zan.

Iru egunkari auetako bi ezkutatu egin ziran, eta beste bi aukeratu goizez: *Egin* eta *Deia*. Illunabarreko *Unidad* ere ezkutatu egin zan. Eta gaur len aita-tu ditudan beste iru aukeratu eta *Egunkaria* dauzkagu.

Egunkariz, aldizkariz eta liburuz aukera dauka-gu; baiña, zoritxarrez, irakurle geiegirik ez. Samin-garria da benetan euskaldunen artean gertatzen dana. Zinea, fubola, *sala de fiestas* eta orrelakoak zaizkigu atsegin.

Ala, goizetik asi eta egun osoa pasa genduan jan da edan, eta umorea nagusi. Eta goiz partetik zale asko bildu bagiñan ere, arratsalde etzan gutxiago. Berreun lagunetik gora izango giñan; eta ez langille jendea bakarrik. Korbatadun edo goi-maillako jauntxo-jendea ere asko urbildu zan bertara.

Arratsaldean, bostak alde ortan, bertaratu zitzaigun gizon bat, baiña korbatarik gabe: Xepai bertsolaria zan. Arraiak ura bezelaxe maite baitzuan Xepaik ere sagardoa.

— Kaixo, jaunak! Arratsalde on dizuela Jainkoak —esanez, gonbidatu gindun kupelera.

Eta, edandakoan, basoari musu ematen zion:

— Au dek mama, au!

Xepaik, garai artan, Antigua baillaran zegoan *Teodoro Kutz* izeneko zerbeza-fabrikari egiten zuan lana; eta Konporta zeritzaion etxean apopilo bezela bere anai Joxerekin. Konporta zerbeza-fabrikatik, Urresti-azpi aldera, irureun bat metro dago; eta bere anaiak taberna zeukan bertan.

Nik ondo ezagutzen nuan taberna ori. Askotan alkartu izan giñan bertan Xepai eta biok, eta beste lagun geiago ere bai.

Aurrez esaten dedan bezela, 1939-ko apirillaren batean etorri zan Urresti-azpi sagardotegira; atera zuan txaketaren patrikatik ogitartekoa, jan zuan eta ala zion:

— Len baiño okerrago gelditu nauk. Goseak amorratzen bizi gaituk. Gobernuko agintariak bai bapo. Eurak naikoa jan da gu emen jango gendukenean.

Eta jendeak:

— I, Xepai: kanta akiotek bertso bat goi-maillako agintari oiei, esanez gutxiago bialtzeko atzerrira eta gure artean banatzeko ogi pixka bat geixeago!

Ala, sagardoz ase zanean, urbildu zan Xepai neregana eta, bizkarretik elduaz, or ekin zidan bertsoan. Eta nik ere garai artan bat-batean zerbait jarduten nintzan, eta biok egin genduan saioa. Onelatsu ziran jaulki genituanak.

Xepaik:

Urresti-azpin zabaldu dana
albiste zoragarria:
aitona batek eman dit gerra
bukatu dala berria.
Esan dutenez gaurko au degu
egun gogoangarria,
ea poztutzen zaigun negarrez
daukagun Euskal Erria.

Nik:

Iru bat urte inguru dira
gerra piztu zitzaigula,
uztaillaren emezortzia
etzait aztutzen sekula.
Ta ikusirik premizko gendun
pakea egin zaigula,
iruditzen zait lortu deguna
ondo merezi degula.

Xepaik:

Poz geiegirik ez du ematen
egiten dan justiziak,
gobernu onek dauzkan legeak
izanik ain itxusiak.
Atzerritarrak daramazkite
gure janari guziak,
gerra bukatu dala diote
baiña erria gosiak.

Nik:

Denbora pasa iñoiz joaten naiz
Pasaiko portu berrira,
ta egoten naiz ontzia nola
betetzen duten begira.
Italirako barko galantak
ta berdin Alemanira,
guk emen bear genduzken gauzak
aruntz eramaten dira.

Baiña guk kantatzen genituan bertsoak etziran nunbait entzule danen gogozkoak; eta gugandik urruti xamar zegoan lagun bat etorri zitzaigun lasterka, esanez alegia an atzealde artan jendea marmarrean ari zala: gerra irabazi zutenen aurka ari giñala bertsoak kantatzen, eta merezi gendukeala espexera eramatea.

Zer gerta ere, ixildu edo kantatzerari utzi egin genion. Garai artan ez baizan pekatu aundia egin bearrik, artu aurrean eta pekataria itzalera eramateko. Zoritxarrez, erru gabeko askotxo izan baizan otel ortatik pasea, eta ori ez izan ain pozgarria.

Ala, sagardoa edanez beste zerbaitaz mintzatzen asi giñan, pakearen izena aberatsa baita.(1)

(1) Liburu au inprentara bialtzeko egunetan, Urresti-azpi base-
ria bota egin dutela jakin det.

Urresti-gain

URRESTI-GAIN baserria. Bertako nagusia Manuel Lertxundi, Urresti-azpi baserriko Joxe Mariren illoba. Eta beste bizitzako nagusia, Praixku Gómez, erderaz mintzatzen etzekian arren. Bertako pestak eta otorduak Manuel Lertxundik antolatu izan zituan.

Baserri au Donostian, Ibaeta baillaran dago. Bi bizitzako etxe zabal aundi bat, kamioaren ertzean leku zabal patxaratsu batean egiña, eguzkiak eta aizeak ere ondo jotzen dutela. Urte asko dituana edo antziñakoa da bera.

Euskal Errian ezaguna. Ezaugarri bezela, Aingeru Zaindariari eskeiñitako ermita eder polit bat dago. Bertan urtero jende asko biltzen da erromes gisa.

Ibaeta baillarako jai nagusiak martxoaren lenengo egunean ospatzen dituzte, pesta politak antolatuz. Goizean txistulariak edo trikitixa, jendearen alaigarri. Amaiketan meza santua, Aingeru Zaindariaren ermitan. Ondoren, kirolak.

Tiroz plater puskatzea. Ortan, Urresti-azpi baserriko Joxe Mari Erkizia irtengo zan garaille geiengan, tiralari onenetako bat izanik.

Ondoren, arri-jasotzailleak, aizkolariak eta ber-solariak. Urte askoz artu izan zuten parte Basarri



Urresti-gain eta Aingeru Zaindariaren ermita.

eta Uztapidek; eta Xepaik ere bai, beste bertsolari-
ren batekin. Inguru artako jendea oso bertsozalea
baita.

Ni neroni ere aldi luzean urtero joan izan naiz
Aingeru Zaindariaren egunez Urresti-gain baserrira,
otoitz egiñez aingerutxoari, eskerrik beroenak emanez,
eskari bereziren bat egitera.

Ez dakit oiturari jarraitzen dioten. Baiña, orain
irurogei bat urte, Donostiako alkatea zan On Antonio
Pagoaga jauna eta beste alkate geiagok ere
bazuten oitura Aingeru Zaindariaren egunez meza
entzutera Urresti-gain baserrira joateko.

Ondoren, ain gogozko zituzten kirolak ikusiz,
ederki bazkaldu eta eguna patxara ederrean pasa;
eta illunabarrean, bertan geunden danok agurtuz,
Donostia alderako bidea artuko zuten.

Alkate jaunak bere ibillaldietarako txoperra izaten
zuan, kotxean eramateko, gaurko alkateak,
Odon Elortza jaunak, duan bezelaxe.

Orduko txoperra berrogei ta amar bat urte zitua-
na zan, gizon serioa, zintzoa eta zuzena. Elizkoia
ere bai. Egunero aitortu eta Jauna artzeko oitura
zuana. *Buen Pastor* edo Artzai Onaren elizan limos-
na-dirua biltzen jarduten zana. Itz batean esateko,
xantua zirudian oietakoa. Edarian bein ere pasatzen
etzana.

Baiña urte artako Aingeru Zaindariaren egun
artan izan genduan ain pozgarria etzan zerbait.

Eguna jan-edanean eta umore ederrean pasa
ondoren, alkate jaunak esan zion txoperrari Donostia
aldera abiatu bear zutela. Exerita zegoan sillatik al-
txatzera egin zuan, baiña bai azkar lurrera erori ere.

Pagoaga jauna eta inguru giñanak ere beldurtu
giñan, naigabea edo zerbait orrelako pasa ote zi-
tzaion. Baiña bereala antzeman genion erru dana
basoak eta kopak izan zutela.

Aur txiki batek bezelaxe negar egiñez, barkatzeko mesedez esan zion bere nagusiari; kotxea eramateko etzala gauza.

On Antoniok berak ere eraman zezakean kotxea. Baiña bera ere ondo serbituta joaten zan Urrestigain baserritik. Jan da edaten etzion edozeiñek irabaziko, eta dantzan asteko ere etzuan bi bider esan bearrik izaten, berrogei ta amar urte zeuzkan arren. Umore oneko gizona zan, oso lagunartekoa edo gozoa, iñorekin aserretzen etzekiana.

Jakiña, gero okerra nolabait zuzendu bearra zegoan, eta beste txoper bat billatu bear, Pagoaga jauna Donostiara eramango bazan; eta ez Pagoaga jauna bakarrik, baita euririk egin gabe busti zan txoperra ere.

Beste askotan bezelaxe, egun artan ere an agertu zan Xepai bertsolaria; eta, alkar agurtu ondoren, esan nion:

— Kaixo, Akilino! Emengo aldi?

Berak:

— Bai. Bertsotarako deia izan diat, eta asmo orrekin etorri nauk.

Nik:

— Nor dek kantatzeko laguna?

— Etzekiat. Errenteriarra izan bear dik, Zamal-bide esaten diotena.

— Bai. Ezagutzen diat.

— Bertsolari ona izango dek?

— Berak ala esaten dik beintzat. Basarri, Uzta-pide, Lasarte eta oiekin ibiltzen dala, eta iñoiz alkarrerekin kantatu ere bai. Jakiña, eurak bera baiño obexeagoak omen dituk. Baiña berari ere jendeak txaloak jotzen omen zizkiok eta pozturik zegoken, txaloak ez dizkiotela edozeiñi jotzen esanez.

Alaxe jardun giñan kontu kontari. Baiña egun artan Zamalbide etzan agertu Urresti-gain baserrira.

Erromeri egunetan geienetan izaten dira Zamalbideren antzeko sasi-bertsolariren bat edo beste, eta oietako batekin egin zuan Xepaik bere bertso-saioa.

Gero, bazkaltzeko garaia zanez, mai ingurura bildu giñan.

Arratsaldean ere jarraitu zuten kirolak, eta egun atsegin paketsu bat igaro genduala esan bear.

Baiña, len esan dedan bezela, egun artako pesta etzan dana urre kolorekoa izan. Tartean izan genduan ain pozgarria etzan zerbait ere. Alkate jaunaren txoperra edariak mendean artu zuala, alegia, eta egun artan etzala kotxea eramateko gauza.

Gu beste alderdian zegoan mai batean zerbeza edanez patxaran gaudela, sekulako zalaparta nabaitu genduan alkate jauna zegoan jangelan, eta Xepai ta biok joan giñan, eta beste jende geiago ere bai, zer gertatu ote zan jakin asmoz.

Txoperra ikusi genduan lurrean aztarrika zebillela, zutik jarri eziñik; eta jendeak:

— Xepai, bota akiok bertso bat gizon orri! Txekor jaio berria ematen dik orrek, zutik jarri nai eta ezin jarri!

Eta Akilinok, sasoian zegoanez, neregana urbil-durik:

— Ekingo al diagu, *Motxa*?

Xepaik *Motxa* esaten baizidan neri, gerran oiña moztua dedalako.

Une artan neroni ere umoretsu aurkitzen nintzan, eta or asi giñan biok kantari, jendearen naia bete asmoz. Onelatsu izan ziran kantatu genituanak.

Xepaik:

Gaur nola izan dezun
beltzetik aukera,
siesta egiteko
bapo jarri zera;
orain joan nai zenduke
Donosti aldera,
kontuz jetxi zindezke
aldapa ortan bera.

Nik:

Txoper ori ase da
ardoaz ta patarrez,
ori egingo zuan
bere on bearrez;
basuak eta kopak
ustu ditu errez,
eta orain aurtxo bat
bezela negarrez.

Xepaik:

Txoperrarentzat lagun
txarra da zurruta,
ara zer egin dizun:
ankaz gora bota;
alkate jauna, kontuz
edana dago ta,
zauritu zindezteke
arbolen bat jota.

Nik:

Zer gertatzen ote dan
begira nagola,
ikusit det lurrean
zotinka dagola;
erori da ta ezin
zutitu inola,
Aingeru Zaindariak
lagun dezaiola.

Nik bertsoa bukatzearekin batera, Pagoaga jaunak ots egin zidan esanez:

— Salaberria, zuk badakizu ni ezin da geiago bertsozalea naizela; baiña naiago nuke ez bazenduteke kantatuko.

Eta ixildu egin giñan. Ala zion alkate jaunak:

— Nere txoperrari etzaio bein ere orrelakorik gertatu, eta berekin dauka penarik asko, gaur edarian pasa dalako. Ikusten dezu ez dala gauza kotxea eramateko ere. Nik aurki Donostia aldera abiatu nai nuke, eta ez dakit emen txopertzan ondo dakian gizon konpiantzazkorik egongo dan nere kotxea eramateko. Zer bear duan pozik ordainduko nioke.

Eta nik:

— Bai, On Antonio. Uste det emen dabillega Tomas Lizarazu, Arpita baserrikoa; eta, une onetan ez badu beste eginkizunik, orrenbeste egingo diola uste det. Esango diot zer gertatzen dan.

Atera nintzan kanpora, eta an ikusi nuan bere lagun batzuekin kontu kontari zegoala. Esan nion:

— Tomas, alkate jaunak zurekin itz egin nai luke.

Joan giñan beragana eta baietz esan zion Tomasek: berak nai zuanean, prest zegoala bere kotxea eramateko. Eta alaxe eraman zituan Donostiara Pagoaga jauna eta bere txoper elbarria.

Andik egun batzuetara egon nintzan nere lagun Tomas Arpitarekin, eta galdetu nion ondo eraman zituan nagusi-morroiak.

Eta berak baietz; etzuala iñungo eragozpenik izan. Bidean, bera abiatu ordu, lo artu zuala txoperrak, eta gizarajoa etzala konturatu ere nola etxeratu zan. Kotxetik irtengo bazan, esnatu erazi egin bear eta auxe esaten omen zuan:

— *Mujer, por Dios, déjame dormir, que tengo sueño.*

Usteko zuan bere emaztea zeukala alboan.

Alkate jaunak asko eskertu ziola; eta, eskupeko oparotsu bat eskeiñiz, biotzez istimatu ziola egin zion neurri gabeko mesedea.

Tomas Lizarazu, gizon jatorra eta leiala danez, ezaguna da Donosti inguruan. Bere ogibidez autobusarekin ibili izan baita urte askoan, jendea eraman-ekarrian, Ibaeta baillaratik Donostiara eta emendik berriro Ibaetara.

Goraxeago esaten dedan bezela, konturatuko zera, irakurle, aspaldi asita bete duala Tomas Lizarazuk eginkizun ori. Ni oker ez banago, 1933-garren urtean artu zuan autobusa joan-etorri oiek egiteko.

Ain zuzen, lantegi ortan asterako, Aingeru Zaindariari eskeiñitako ermitara eraman zuan bedeinkatzera dalako autobus ori, otoitz beroen bidez bere joan-etorrietan ondo ibiltzeko laguntza aingerutxoari eskatuz.

Eta ortxe ibili dira, jubilatuta diran arte, bera txopertzan eta bere emazte leiala dan Joxepa Salaberria kobratzen edo diru biltzen jarduten zala. Emakumeak gogozko lana dute ori.

Orretxegatik dira ain ezagunak eta istimatuak Donostia inguruan Tomas eta Joxepa serbitzari leialak.

Len esan ez dedan zerbait esan nai nuke orain. Gaur Urresti-gain baserrira kamio ona dagoan arren, garai artan bide estua eta kaskarra zan. Oker aundirik gabe, kilometro bat inguru izango da, eta dana aldapatsua. Orregatik esan zion Xepaik bere bertsoan Pagoagaren txoperrari bide ortan beera kontuz jeixteko.(1)

(1) Liburu au inprentara eraman baiño egun batzuk aurretik, ainbeste argibide zor diodan Tomas Lizarazuren il-berria irakurri det egunkarian. 1997-ko martxoaren 4-an utzi zuan mundu au, larogei ta amar urte zituala. Zeruan beza atsedan.


Igeldoko Pako Kalonje eta Andoaingo Xanti Mendikute

DONOSTIAN, Igeldo baillaran, badira sagardotegi entzutetsu bat eta ostatu edo jatetxe sonatu bat. Biak jabe batenak dira. Pako Kalonje bertako nagusia, gizon langillea bezin jatorra edo lagunartekoa. Ez nion bein ere itz gogorrik entzun izan, eta beti ondo konpondu izan giñan alkarrekin.

Nik orain irurogei bat urte ezagutu nuan. Garai artan igeltsero-lanetan jarduten zan, eta taberna edo jatetxea zeukan Igeldo errian, *Mendizorrotz* izenarekin. Gero, igeltserotzako lana utzi eta sagardoa egiten asi zan.

Igeldon gora Orio aldera goazela, ezker aldera dago taberna eta jatetxea, eta kamioz eskubi aldetik sagardotegia, arrigarritzko bi kupela illara bertan ikusten dirala, gizon-sagardo txinpartatsuz beteak.

Igeltsero-lanetan ona zan Pako, baiña bai sagardo onak egiten ere. Bere gogozkoa zuan nunbait tolaroko lan ori, eta sagardo apartak egiten zituan, sagardozaileen gogozkoak alegia; eta oraintxe bezelaxe jendez beteta ikusten genituan sagardotegia bezela ostatua edo jatetxea ere.



Mendizorrotz jatetxea.

Pako Kalonje eta Xanti Mendikute andoaindarrak, biak oso lagunak ziran, eta guk ere etxekoa baltz bezela genduan Xanti eta noiznai artzen genduan Igeldorako bidea.

Garai artan ni Aieten Oriamendiko ur-deposituaren arduradun nintzanez, neregana etortzen zan, eta lendabizi:

— Arratsalde on, Sebastian!

— Kaixo, Xanti! Berdin!

Berak:

— Zer: lan asko al dago edo?

Nik:

— Bai. Lanez ondo gabiltza. Zerbait nai al zenduan, Xanti?

— Bai. Joateko moduan bazera, sagardo pixka bat probatuko genduke Barkaiztegin, edo Ernanin Alberronean, edo Igeldon Pakonean.

Sagardotegi batean baiño geiagotan ibili izan geranez, Igeldorako bidea maizago artuko genduan. Arratsaldean zazpiretatik aurrera asten da jendea sagardo probaketan; baiña gu, Xanti eta biok, seirak alderako joaten giñan.

Pako bera geienetan lan askorekin ibiltzen zan, eta sagardotegiko giltza ematen zion Xantiri, esanez:

— Lan asko zeukat eta badakizute etxeko berri, eta proba itzazute sagardoak. Baiña ez dedilla beste iñor sartu zazpirak arte.

Alaxe, sartzen giñan sagardotegian, atea ixten genduan barrengo aldetik, eta basoak artu eskuetan eta lenengo kupeletik asten giñan sagardoa probatzen. Gero bestea eta urrengoa, eta alaxe jira osoa ematen genion kupelategiari; eta, naiz kupela danetan sagardo ona egon, konturatzen giñan onentxoena zein kupeletan zegoan.

Bat oso ona izan liteke eta beste bat ohea. Gauza onen berri edozeinek daki noski. Esate baterako, arraunlari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Karga-jasotzaille bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Aizkolari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Segalari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Korrikalari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Txirringulari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Pelotari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea. Eta bertsolari bat izan liteke oso ona, baiña beste bat ohea.

Onelaxe ditugu konta eziñak diran beste gauza asko ere, eta sagardotegi batean ere berdintsu gertatzen da: ogei edo ogei ta amar kupeletan oso sagardo ona, baiña kupela bat edo beste nabarmendu litezke besteak baiño edari ohea daukatenak.

Mendikutek famili aundia eta konta ezin ainbat lagun eta adiskide zituanenez, sagardoa aukeran edukitzen zuan etxean; eta sagardoa bezela ardo onak eta beste edari klase geienak ere.

Neri ere etxean sagardo ona edukitzea gustatzen zitzaidanez, Mendikutek eta biok artuko genituan botilla-mordo bana Igeldotik, eta gero beste batzuk Barkaiztegitik edo Ernanin Alberronetik, eta orrelaxe jartzen genduan urte guztirako edaria etxean.

Xanti Mendikute Euskal Errian oso ezaguna genduan. Mendi eta basoetako lanak egiten ibiltzen zan kontratista zan. Aldi berean, mendi askotan izaten zuan lana: basoetako zugaitz urtetsuak edo zaararak bota, mendiak garbitu eta landare berriak aldatu: piñuak, aritzak, gaztaiñak, lizarrak, pagoak, akaziak, makalak, plantanoak, intxaurrak eta beste zugaitz klase asko.

Gipuzkoako Diputazioa ere mendi askoren jabea danez, lan asko izaten zuan Mendikutek. Do-

nostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak ere baditu mendi eta basoak bereak, eta oietako lanak ere Mendikutek egin izan ditu.

Xanti Mendikutek bazuan oitura on bat: lana zuan mendi bakoitzean txabola eder bat egitekoa, basomutillak bertan jan da lo egin zezaten.

Mutillak bearrezko zituzten janari eta edariak ere Xantik berak eramaten zizkieten. Etzuten gose-egarririk izaten.

Berarekin lanean ari ziran mutillak ere etziran señoritoak izaten, lan gogorrean oitutako jendea alegia, eta geienak euskaldunak.

Erdeldunak ere izaten zituan, baiña aiek ere baso-lanean zaildutakoak. Extremadura aldean izan bear du Navacepedilla de Corneja izeneko baillara aundi bat, eta inguru aietakoak izan bear zuten.

Beren gogozko janaria emengoaren ezberdiña izaten zuten. Mendikutek danentzat naiko janaria eta edaria aukeran jartzen zuan, baiña belarrimotzak beren gogozko janaria etxetik ekartzen zuten. Urdaia edo zerriak izaten baita nunbait beren paraje aietan jaten dana.

Euskaldun basomutillak zatoa estutuz ardoa edaten dute. Baiña erdeldunak urdai-pusketa egurrezko ziri baten puntan su gainean jirabiraka ibili eta uraxe jaten dute gustora, eta botijotik ura edan.

Mendikutek bazuan euskaldun bat taldean, baserrietan morroi batzuetan eta urrena basomutil ibiltzen zana, Bernardo Otaño zeritzaiona eta bertsoan ere jarduten zana. Zatoa zimurtzen zijoan bezela irteten zitzaizkion bertsoak.

Oitura alaxe zuten, erdeldunak beren lurraldea famatzen aritzen ziran beti. Konta ezin ainbat zerri, arrigarrizko algarroba-saillak, sandiak, pepinoak, kalabazak, azeitunak, pipermiñak, tipulak eta

orrelako gauza askoren jabeak omen zirala. Eta egun batez ondorengo bertso au kantatu zuan Bernardo Otañok:

Auentzat oso ona
dek Extremadura,
baiña etortzen dituk
gure ingurura.
Zerrikia janari,
botijotik ura,
aurki dituk igeri
igelen modura.

Xanti Mendikute gizon langillea, burutsua eta leiala zan, lanean bezelaxe, otordu on bat egin bear zanean ere bere familikoekin. Goi-maillako lagun edo adiskideekin beti ondo portatu izan zan. Ni ere gonbidatzen nindun eta taldeko izaten nintzan geienetan.

Ostatuko etxekoandreak serbitzen gindun neskatxarekin maira. Bialtzen zuan txartelaren arduradun Xanti bera izaten zan beti. Biotzbera eta esku-zabala baizan danekin, makiña bat kaxuelkada legatz eta txuleta eder janak gera Mendikutereren kontura, naiz ostatuetan eta sagardotegietan.

Erretira zintzo egiten genduan geienetan. Urrengo egunean ere goizean goiz asi bear izaten baigenduan lanean.

Telefono bidez ere lan asko egiten zuan Xantik, beste mendietan bezelaxe, Miramongo sailletan ere.

Ni Oriamendin ur-depositoaren arduradun nintzanez, noiznai deitu izan zidan goizean, bost eta erdiak alde ortan, esanez alegia ea mesedez abisaturko nien basomutillei. Txabolan izaten baiziran geienean amabi edo amalau mutil, eta beren izenez esaten zidan: olako eta olako -lau edo bost mutil-erremintak, gosariak eta zato ardoa artuta, sei ta erdietarako prest egoteko kamioan, Iruna edo beste norabait joan bear zutela lanera.

Leku askotan izaten baizuan Mendikutek lana, eta gustatzen zitzaion goizean goiz astea. Baiña len-dabizi berak utziko zion oeari oztutzen eta jarriko zan zutik.

Ni neroni ere goizean goiz lanean asteko aldekoa izan naiz beti. Goizean goiz lana mendean artzen duana or nunbait ibiltzen baita, eta eginda dagoan lanari begira gustora egoten baita bat. Gero beste zerbaitetan asteko ere poztasun geiago izaten baita.

Urte batzuk badira Xanti Mendikute il zala. Zeruan beza atsedan.

Andoañen, bere sorterrian, *Gure Babesa* izena duan etxean bizitzen zanez, illeta-elizkizunak ere San Martin eliz parrokian eskeiñi zitzaizkion.

Naiz eliza ederra bezin aundia izan, bere animaren alde otoitz egin nai zuten danak etzuten elizaren barrura sartzerik izan, eta atez kanpotik jarraitu bear izan zioten elizkizunari. Arrigarrizko jendetza bildu baigiñan berari azken agurra egin asmoz. Euskal Erriaren alde askotatik etorri baizan jendea, eta apaiz jaunak meza garaian esan zituan itz samingarriak entzunda, begiak malkoz busti zitzaizkigunak ere ez giñan gutxi izan.

Aldi luzean gaitz beldurgarri baten mende egon ondoren, irurogei ta iru urte zituala eman baizuan azken arnasa. Pazientzi aundiz eraman zuan berari zegokion gurutze astuna. Alakoxea baizan Xanti Mendikute zana. Biotza eskuan daramaten oietakoa.

Geroztik, bere seme Joxe Joakiñek egiten ditu, len bere aitak egiten zituan mendi eta basoetako lanak.

Ara orain zer egin dedan. Barka zaidazute, arren, nere irakurle maiteok. Igeldoko Pakoren sagardotegitik asi eta Andoaingo nere lagun jatorra zan Xanti Mendikute zanaren zenbait berri eman gabe ezin, ba, utzi. Ala ere, berak merezi ainbat goral-

men ez diot eskeintzen nere idazlan labur onetan. Jaunak berekin dezala zeruan opa diot biotzez.

Pako Kalonje Igeldokoa ere urte batzuk badira mundu onetako lanak bukatuta azken agurra egin zigula. Zeruan beza atsedean.

Ostatuko edo jatetxeko eta sagardotegiko gorabeerak bere familiak egiten ditu orain. Pakoren seme-alabak ere, aita zana bezelaxe, borondate onekoak eta leialak dira. Aurpegi alaiz artzen dute bertara dijoan jendea, eta orrek poza ematen du.

Oiarbide

OIARBIDE baserriko Jabier Sarasolaren sagar dotegia Astigarragan dago.

Ernanitik Astigarraga aldera goazela, Ergobia baillara baiño lentxeago eskubi aldera artuta, *Sagardoaren ibilbidea* degu, edo *Paseo de la Sidra* erderaz. Kamio ortan gora goazela, ezker aldera artu ta goi xamarrean, Santiomendi aldean, dago Oiarbide baserria.

Etxe aundi eder bat da bera, eguzkiak eta aize osasungarriak gogoz maitatzen dutela, zugaitz ederezz apaindurik, kamio ertzean dagoana.

Lurrez, ganaduz, belazez, sagastiz, egurrez eta urez ondo osatzen dan baserria da Sarasola jaunak darabilkiana. Berrak erakusten duala da esaera, eta Jabier Sarasola ere gazterik gelditu zan guraso gabe, eta gogor ekin bear izan zion baserri lanari. Uste det izango zuala eskua nora luzatua.

Beste baserri askotan izaten ziran bezelaxe, izango ziran Oiarbiden ere zorrak edo an edo emen pagatu berrak, eta olakoetan izaten da naiko buruauste. Garai artan iñor gutxi joaten zan libretarekin Aurrezki Kutxara dirua ateratzera, aterako bada aurrez sartu egin bear izaten baita, eta ortan izaten ziran komeri latzak. Beste jokabide baten bidez etxeratzen ziran txanponak: lana galanki egiñez, alegia.

Baserriko eginkizunez aparte ere, jardun izan da Jabier batean eta bestean lanarekin borroka. Amabi-amairu urte zituala, itzantzan idiak eta gurdiaekin arri karraio Ermaña aldeko arrobotik, Ernani Florida baillaran fabrikak eta etxe berriak egiten ari ziran obretara.

Baita ere luzaro lanean jarduna da Ernanin, gaur *Txirrita kalea* dan obrak egin ziranean ere.

Basomutil ere ibilia da Astigarragako Markesaren basoetan, moztu bear ziran zugaitzak moztu eta mendiak garbitzen eta txukuntzen. Danetara oitu bearra baitago, emen bizimoduak alaxe erakusten dualako.

Ernaniko Mendia jaunaren Papeleran ere urte askoan lanean jarduna da.

Baiña, naiz kanpoan lanean ibili, baserriko eginkizunak al duan modurik onenean egiten saiatu izan da beti.

Bere garaian ezkontzea ere pentsatu zuan Jabierrek. Etxean ondo etortzen baita emakume baten laguntza: otordua prestatzea dala, erropa garbitzea dala eta konta ezin ainbat lan sortzen zaio emakumeari edozein etxetan dala ere, eta baserri batean ez gutxiago.

Maitasunik gozoenez ezkondurik alkarganatu ziran gaur bere emazte leiala dan Maria Jesus Mujika eta biak. Borondaterik onenez alkarri lagunduz, txoriak udaberrian bezin alaitsu bizi dira, eta osasuntsu eta alaitasunik ederrenean orrelaxe jarraitu dezatela urte on askotan opa diet biotzez.

Jabier Sarasolaren sagardotegia beti izan da sonatua, eta gaur ez gutxiago. Oiarbide baserrian beti izango zan familirako sagardoa, baiña urte asko dira saltzeko sagardoa egiten duala, eta ez det uste damutu zaionik. Gogozko lantegia du nunbait tolarako lana, eta bein ere baiño sagardo geiago egiten du eta urtean baiño urtean obeagoak irteten zaizkio.



Otarbide

Nik galdetu izan diot iñoz:

— Nolaz egiten dituzute, Jabier, ain sagardo onak, eta orrenbeste sari eder etxeratu?

Eta au izaten da bere erantzuna:

— Sagardo ona nai bada, sagar onarekin egin bear izaten da. Garestixeago irteten da, baiña ori da joko segurua. Lapikoak, zer janari sartzen zaion, ala erantzuten du; eta kupelak ere berdin. Ni ez naiz merke zurri ibiltzen –esaten dit Jabierrek–. Geixeago pagatu bear dala, pagatu; baiña sagardozailei gogozko zaien edaria eskeñi. Ori da noski, nere ustez, propagandarik onena. Aspalditik konturatuta gaude gure etxeko telefonoaren zenbakia askotxok dakiala memoriz. Eta Euskal Erriaren alde askotatik izaten degu deia. Batek onenbeste botilla bear dituala, besteak ez dakit zenbat. Udazkenean, sagardoa egiten asten geranean, kupela asko betetzen ditugu ustez. Baiña banatzen asten geranean, konturatzerako bat ere gabe gelditzen gera. Lenago ere sagardozale asko etorri izan da gure sagardotegira, eta gaur ez dator gutxiago. Edozein lantegi dala ere, borondaterik onez lanean ari danak orixe nai izaten du: egiten ari dan lan ura izan dedilla jendearen gogozkoa.

Jabier Sarasola gizon burutsua eta azkarra da. Lanean aspertzen ez dan oietakoa. Arrigarritzko obrak eta estalpeak dauzka bere etxe ondoan egiñak, eta estalpe aien barruan dauzka tolare bikaiñak eta konta ezin ainbat kupela eder dotoreak, batzuk zurezkoak, eta txapazkoak edo *inoxidable* diranak besteak.

Ontzi oiek sagardoz betetzen dituanean lasaitzen da gizona, sagardoak izaten duan lanik gogortxoena eginda dagoala ikusirik.

Baiña sagardoz beteta dauden kupel oiek izaten dute begiratu bearra. Sarasolak maiz egingo die bixita ea kortxoak ondo dauzkaten eta jariorik edo ito-terik daukaten ikustera.


Eta udazkenean, egiten dan sagardo ori botilletan sartzeko garaia datorrenean ere, ematen du bere buruaustea. Kupeletan dagoan sagardoa probatu bear izaten da maiz, eta sagardorik elduena edo botilletan sartzeko moduan dagoanari ekiten zaio lengo, eta gero bestea: eta orrelaxe kupelak danak ustutu arte.

Sagardoa botilletan sartzeak ere badu bere lana. Gizon-talde bat bear izaten da ortarako ere. Bat jarduten da botillak utsak zintaren ondora eramaten. Beste bat botilla uts oiek zintari jartzen. Beste bat makinarekin kortxoa sartzten. Beste bat zintari botilla beteak kentzen. Beste bat karretillarekin bear dan lekura eramaten. Eta beste bat edo bi pillan txukun jartzen. Zortzi-amar gizonentzat izaten da eskua nora luzatua.

Lan ortarako ere lendik oituta dagoan jendea ohea izaten da. Eta orrelako lagun jatorrez ondo osatzen da Jabier. Goizean goiz etortzen zaizkio borondaterik onenez laguntzera, nola bere anai Luis, koiñadu eta gaiñontzekoak. Joxe Mari Salaberria ere, mekanikoa danez, zintzo etortzen zaio makinari begiratzera.

Eta sukaldari txukuna bezin serbitzari leiala dan Jabierren emazte Maria Jesus ortxe jarduten da sagardoarekin burruka, lanean ari diran gizon oientzat gosari goxoa prestatzen; eta, gosaria bezelaxe, gaiñontzeko otorduak. Bere eginkizunak zuzentzen ez da gelditu ere egiten. Ez da barrunbe oietan zikinkerik askorik ikusten. Baztarrak txukun edukitzea gustatzen zaio, eta poza ematen du olako etxe batean sartzeak.

Oiarbide sagardotegira dijoana ez da baraurik irtengo, aseta baizik. Eta lanera joaten diran lagun jator oiek ere ez dituzte ezer eman gabe utziko. Borondaterik onenez emango die daukatenetik. Biotzbera bezin eskuzabala baita Jabier, eta bere emazte Maria Jesus ere berdin.



Sebastian Salaberria eta Luis Mari Loinaz

Neri asko laguntzen didate. Badira lau bat urte, eskubiko iztarretik operatu edo ebakuntza egin zidatela. Sendagillearen kontsultara askotan joan bear izaten nuan, eta Oiarbide baserriko famili leial onek eraman eta ekartzen ninduten kotxean.

Donostian, Eritetxean edo *Hospital Aránzazu*-n berrogei eta zortzi egun pasa nituan. Egunero etortzen zitzaizkidan ikustalditxoak egitera, eta etziran esku utsik etortzen. Badakite ni frutazalea naizela, eta ez nuan fruta faltarik izan, eritetxean egon nintzan egunetan. Egunkaria ere ekartzen zidaten, eta jakiten nuan gertakizunen berri.

Badiet Oiarbidekoei bein ere bear bezela pagatuko ez dieten zorra.

Ni ere aldizka joaten naiz Oiarbidera, Sarasolaren sagardotegira. Len garai batean baiño gutxiago edaten det. Baiña sagardoa izan da nere edari maitagarriena beti. Lagun jator askorekin joan izan naiz sagardotegietara, eta auetako bat da Luis Mari Loinaz.

Gizon jator eta leial au Donostian, Aiete baillaran, Oriamendi deritzaion ur-depositoaren ardura-duna degu, eta borondaterik onenez bera prestatzen da kotxearekin ni noranai eraman eta ekartzeko. Gizon prestu onekin ere beti zorretan nago.

A!... Ia aztu zitzaidan. Bada beste gizon jator bat ere, Sarasola jaunari laguntzera etortzen dana bere familiarekin. Anoeta erri politean bizitzen dan Manuel Odriozola jauna da bera.

Neri ere asko lagundu izan didan gizon leial bat da au. Esan bezela, orain lau bat urte, 1993-an, eskubiko iztarretik oiñazetan luzaro egon ondoren, operatu nindun Blázquez sendagille jaun ospetsuak. Baiña ortarako aurrez pauso asko eman bear izan zuan nere lagun Manuel Odriozola jaunak, adieraziz berak aspalditik ain konfiantza aundiko laguna duan Blázquez sendagille jaunari ni nor naizen eta, mesedez, al zuan modurik onenean egiteko neri egin bear zidan ebakuntza.

Arretaz entzun zion sendagille jaunak. Bere familiarikoa bat banintz bezelatsu artu nindun, eta operazio edo ebakuntza bat ez dago obekiago irteterik. Nere iztarrak itz egin al baleza, esango luke zerbait. Gaur, sendagille ospetsu oni esker, miña zer dan ez dakidala bizi naiz. Eskerrik beroenez istimatzen diot Blázquez sendagille jaunari ain borondate onez egin zidan arrigarrizko mesedea.

Beste askori ere entzun izan diet esku oneko sendagillea dala bera, eta poza ematen du olako gizon leial batengana joateak.

Anoeta erri politean bizitzen dan Manuel Odriozola jauna aitatu dedan ezkerro, badet berari buruz zerbait esan bearra. Bere bizitzan eginkizun asko izan ditu, lana bere gogozkoa duan gizon leial onek.

Aldizka biltzen gera alkarrengana, eta berak ain borondate onez egindako lan txalogarri askoren berri eman izan dit.

Orain ogei bat urte, sei urte luzez bera izan omen zan Anoeta erri polit ortako alkate, eta garai artan gauza asko omen zeuden zuzendu bearrak errian: illerri edo kanposantu berria egin leku polit batean, eta bertara joateko kamio berria; uraren tuberi berria jarri bertara; errian ain premizkoa zan ur-deposito berria egin; len etzegoan pelota plaza berri estalia egin...

Amairu urte egin omen zituan *Cámara Sindical Agraria*-ko gorabeerak zuzentzen iru erri auetan: Errialde, Irura eta Anoetan. *Seguro Social*-a eta *Familia Numerosa* zuteneri beren pentsioak kobratzen lagundu. Eta zaarsaridun edo jubilatatu bear zuteneri ere bere laguntza eskeñi.

Beste eginkizun txalogarri bat bazuan Odriozola jaunak, 1973-garren urtean asi eta oraindik ere jarraitzen diona: Anoetako eliz torreko erlejuari astero-astero manibela aundi baten laguntzaren bidez kuerda ematea.



Manuel Odriozola alkate izendatu zuten egunean.

Ezkerretik: Ramon Murua, erriko erretorea, Manuel Odriozola, alkate berria, X. Santibáñez jauna eta Inazio Uzkudun, kargua uzten zuan alkatea.

Berreun da amabi urte omen ditu dalako eliz torreko erleju orrek; eta, lanean naiko nekatua da-goalarik, aberiatuta zortzi illabetean egon omen zan geldirik. Baiña garai artan Anoetako erretore zegoan On Ramon Murua jaunak eskaritxo bat egin omen zion Manuel Odriozola jaunari: mesedez erlejua martxan jartzeko. Baiña erriak atzera egin omen zuan. Eta ain erleju langillea eta zuzena geldituta ikusirik, pena ematen omen zion Odriozola jaunari, eta berak egin omen zuan konpondu eta martxan jartzeko modua.

Eta orain ere, esan bezela, astero-astero berak ematen omen dio erleju urtetsu orri kuerda. Ori da biotz oneko gizona izatea. Olakoxea da nere eta beste askoren lagun jator eta leiala dan Manuel Odriozola jauna.

Eta auxe ere esan nai nuke, ba, Oiarbide sagardotegiari buruz idazten ari naizen ezkerero. Nere anai Kasimiro zanak Beasaingo Garin baillarako baserri batekoa zuan lendabiziko emaztea: Martina Odriozola. Ezkondu eta urte batzuetan alkarrekin bizi ondoren il egin zan Martina. Zeruan beza atsedan.

Andik urte batzuetara nere anai Kasimiro zana berriro ezkondu zan. Oiarbide baserrikoa zuan bigarren emaztea: Gregori Sarasola, Jabier Sarasolaren izeba. Ezkondu eta andik urte batzuetara gaixoturik il zan Kasimiro zana, eta geroago il zan bere emazte Gregori. Jaunak berekin ditzala zeruan.

Jauregi

ERNANIN, Jauregi baserrian, sagardotegia ezagutu genduan. Jakiña, orain dala berrogei ta amabost edo irurogei urte.

Etxe zabal aundi eder bat da baserri au, leku patxaratsu batean, kamio ertzean dagoana, eguzkiak eta aize garbi osasungarriak gogoz besarkatzen dutela, zugaitz ederrez etxe ingurua apaindurik daukalarik. Ganaduz, baratzez eta belardiz ondo osatzen dan baserria degu bera.

Inguru ortan dan belardirik aundien eta ederrena ere bere etxe atzean dauka, ainbat eta ainbat sega-apustu sonatu jokutzen dana. Kamiotik gertu edo eroso dagoanez, jende asko bildu izan da beti bertan, sega-apusturen bat jokutzen dan bakoitzean.

Jan-edanetik ere aukera izaten da. Gose-egarrak ez da iñor irten izan Jauregi baserritik.

Sotero Etxeberria, bertako nagusia, gizon bikaina eta gozoa edo lagunartekoa; eta, ain umoretsua zanez, amaika txolarte eder paseak gera alkarrekin. Oraindik ere aztu eziñik daukat bere irripar gozoa bezin atsegiña.

Sukalde aundia eta ederra zutenez, negu partean beintzat suaren epeltasunean bilduko giñan lagun talde-aundi bat, eta antxe danok alkar zirikatuz, sumatzen ziran xelebrekeririk aundienak bata



Jauregi

besteari esanez. Baiña aserretu bein ere ez; eta, iñoiz taldeko norbait kopetillun xamar jartzen bazan ere, sagardoak berealaxe aztu erazten zituan aserreak, eta jendea jarri erazten zuan umoretsu.

Alaitasunezko zerbait kantatu bear zanean, geienetan neri erasoko zidan Soterok, esanez:

— Ea, Sebastian: konta zaiguzu Triguillo eta Caudillo nola diran. Eta *“no pintas nada”*.

Nik ekingo nion bertsoak kantatzeari eta txiste kontari, eta orduak errez joaten zitzaizkigun. Esae-rak dion bezela, gustoko lekuan aldaparik ez.

Urte batzuk badira Sotero il zala. Zeruan beza betiko atsedan.

Bere emazte alarguna, Maria Sarasola ere, emakume bikaiña da; eta, urte askoren jabe dan arren, gordin itxurazkoa dago oraindik ere, eta lanean ere etzaio aztu. Ortxe jarduten da al duana egiten. Sa-soikoa zanean ere borondaterik onenez ikusten genduan bere eginkizunak zuzen betetzen. Besteak beste, sukaldari egokia bezin serbitzari leiala izan da beti. Otordu goxorik egin izan degu, berak ederki asko prestatuta.

Lau seme-alaba izan dituzte. Gurasoak bezelaxe, zintzoak eta langilleak berak ere.

Tolare ederra eta kupelategia ere ezagutu genituan; eta, beren auzoetako baserritarrak joan izan diran bezelaxe, guk ere, Aiete baillarakoak giñanok, sagardoa egiteko garaia zanean, sagarra bertara eramaten genduan, tolarean jo eta sagardoa egiteko.

Beti izan da sonatua Jauregi baserria, eta gaur bein ere baiño sonatuagoa dala esango nuke. Len taberna, ganaduak eta baratz-lanaren bidez bizitzen ziran. Baiña urte askotxo dira ganaduak kendu ziztuztela. Etxe barruan eta kanpo aldetik ere obra aundiak egin dituzte eta goi-maillako jatetxe zoragarrri bat degu gaur Jauregi baserria.

Sotero zanaren seme Ramon Etxeberria jauna degu bertako nagusia edo zuzendaria. Bere aita zan bezelaxe, gizon jatorra eta langille egokia edo bizkorra. Ain borondate oneko bere emazte Adelina Abad eta biak langille asper eziñak dira. Beren famili zintzoa laguntzaille dutela, alegintzen dira beren egin-kizunak zuzen betetzen. Borondaterik onenez serbitzen dute bertara datorren jendea.

Noiznai aurkitu litezke Jauregi jatetxe ezagunean, aur txikien bataio-eguna dala, umeen komunio-eguna dala edo ezkontza eztaietarako bazkariak edo afariak dirala, kinto-lagunen bazkariak dirala, edo *empresa* edo lantegietako goi-maillako jaun agurgarriak dirala.

Eta zer esan sega apusturen bat bertan jokatzen danean? Eromena izaten da, bertara datorren jendetza ikusirik.

Baiña Ramon, bertako nagusia, burutsua da, gauzak urrutira ikusten dituan oietakoa, eta dotore asko antolatzen ditu an da emen maiak, exerlekuak, janariak, edariak eta bearrezko diran serbitzariak. Eta zerbaiten premiz aurkitzen danak orixe nai izaten du.

Aspaldi asi ziran Jauregi baserriko *Etxe-atzea* deritzaion belardi sonatuan sega apustuak jokatzen: orain ogei ta emeretzi urte, oker aundirik gabe, 1958-ko urrillaren 18-an, eguerdiko amabietan, ain zuzen.

Bertan lenengo apustua jokatu zutenak: Migel Irazusta *Polipaso*, Ernanikoa, eta Fermin Zulaika, *Paskualsoro*, Zarauzkoa. Fermin Zulaika egun artako irabaztuna.

Belardi ortan jokatu diran apustu danen berri ematea luze joango litzaiguke, eta azkena ikusi danaren berri emango det, idazten ari naizen nere liburu onetan.

Ain zuzen, 1996-an, urrillaren 6-an, eguerdiko amabietan, ondoren aipatuko ditudan lau segalari

auk artu zuten parte: Bengoetxea, Irungoa; Erauskin, *Etxetxo*, Lasartekoa; Mitxelena, Oiartzungoa; Aranalde, Gaztelukoa. Ordubeteko lana.

Irabaztuna: Mikel Aranalde, Gaztelukoa. Ebakitako belarra: 4.256 kilo. Bigarren, Bizente Mitxelena, Oiartzungoa. Ebakitako belarra: 4.093'5 kilo. Irugarren, Iñaki Bengoetxea, Irungoa; Laugarren, Antton Erauskin, *Etxetxo*, Lasartekoa. Esan bezela, lenengo saria, 85.000 pezetakoa, eta kopa Mikel Aranalde Gaztelukoarentzat izan ziran. Zorionak denei.

Ondoren, ondo merezitako omenaldia segalari elduei. Au da, berrogei ta amazazpi urtetik irurogei urtekoei. Gizon sonatu auk izan ziran, ain zuzen: Joxe Mari Zulaika, Zarauzkoa; Benito Otegi, Dionisio Mujika eta Jose Luiz Maioz, Asteasukoak; Leon Albeniz eta Manuel Galardi, Irungoak; Antonio Larraza, Joxe Martin Aburuza eta Joxe Amuruza, Oiartzungoak; eta Juan Joxe Itxaso, Astigarragakoa. Gizon auk ere jaso zituzten ondo merezitako esku-erakutsiak edo opariak.

Alkartasun-bazkari eder bat izan genduan Jauregi ostatu ezagunean, jendetza aundia bertan bildurik.

Eguna alaitzeko, gure artean genituan Txomin Garmendia eta Joxe Agirre bertsolariak. Saio txalogarririk eskeñi ziguten, eta gustora egon giñan entzuten.

Trikitixari ere autsak astindu zizkioten Amena-bar anaiak. Baziran nik baiño errezago oiñak jasozten zituztenak, dantzan ederki egiten zutenak; eta gu pozez aiei begira. Olaxe da mundu ontako izaera.

Nik egun artarako bertso-izeneko bat edo beste antolatu nituan, idazten ari naizen liburu onetan agertuko diranak; eta bertako nagusi Ramonek kantatu erazi zizkidan.

Eta zer esango degu? Jaialdi eder gogoangarri bat igaro genduala Jauregi ostatu ezaguneko famili leialaren inguruan. Eta berriro ere bertara joateko zaletasunarekin etxeratu giñan.

Ona emen nere bertsoak:

1 Belardi ortan ainbat apustu
nola diran jokatuak,
bertan ikusi izan ditugu
segalari sonatuak,
desapioka jardun ondoren
gero alkar probatuak,
lan ortarako erremintarik
onenak aukeratuak;
oieri esker dituzte sari
ederrak etxeratuak.

2 Ain dizdiratsu dabiltz gaur ere
garai bateko izarrak,
argi egiten dute oraindik
Jaungoikoari eskerrak.
Aitortzen degu belar ebaten
izan dirala azkarrak,
zorion beroenak dauzkagu
aueri eman bearrak,
merezitako omena dute
lengo segalari zarrak.

3 Danok dakigu kirol politez
aukera nola daukagun,
guk euskaldunok sega-lan ori
zeiñen gogozkoa degun!
Alkar probatu ere iñoizka
ta bizkorrena txapeldun,
len sasoikoak ziranak ara
nola agertu zaizkigun,
zar da gazteak merezi dute
danak txalotu ditzagun.

4 Etxe sonatu asko dauzkagu
oraindik Euskal Errian,
urruti gabe emen daukagu
bat Ernaniko lurrian.
Ostatu bikain zoragarria
ain paraje ederrian,
sukaldaritzan onak dirala
gaude esan bearrian,
premier dagona asetzen dute
Jauregiko baserrian.

Ernaniko sagardozaleak

ERNANIN baziran bi sagardotegi: Lastaola eta Lizarra baserriak. Lizarra baserria, bota berria dan arren, Ereñozura goazela kamio ertzean zegoan, Ernanitik pare bat kilometrora. Lastaola, berriz, Onyimendi aldera dago, Ernanitik iru bat kilometrora.

Orain irurogei ta zazpi bat urte gertatua da orain idatziko dedan au.

Lastaola baserriko aitona Juan Martin Ugalde egun batez Lizarra baserrira sagardotegira etorri omen zan sagardoa edan asmoz; eta bertan pasa omen zituan zortzi egun, jan da lo, etxera joan gabe.

Etzan nunbait jan da sagardoa edaten bakarrik jardun. Lagunartean musean ere bai saio ederrak noski. Egun batez oilloa ere jokatu omen zuan eta galtzea tokatu.

Lizarra baserriko Joxe Garaiar, gaur irurogei ta amalau urte dauzkan arren, garai artan mutil koskorra, eta aitona Juan Martiñek bialdu omen zuan bere etxera, Lastaola baserrira, esanez:

— Josetxo, joan adi gure etxera, eta esaiok nere emazte Balentinari oilloa galdu dedala jokoan eta emateko etxean dan ederrena.

Ala, joan omen zan Josetxo Garaiar mutil koskorra eta eman omen zion gertatu zanaren berri

Lastaolako amonari; eta bereala oillorik ederrena il, lumatu eta txukun asko paperean bilduta jarri omen zion, eta:

— Tori, Josetxo. Eraman zaiozu gaixo orrek nere senarrari.

Abiatu omen zan Josetxo oilloa xestoan artuta, eta amonak bereala otsegin omen zion:

— Josetxo, atoz pixka bat mesedez! Gure gizona zortzi egun auetan arroparik aldatu gabe egongo da eta eramán zaizkiozu garbiak.

Gaurko zenbait andrek baiño geiago maite zuan arek senarra. Berriz ere joango zan aitona Juan Martin sagardotegira lasai. Alako emaztea ez da urrearekin ere pagatzen.

* * *


Gaur aztu samartu dira oitura aiek, baiña garai batean Euskal Errian ezaguna genduan auzolana. Ni neroni ere jardun izan naiz lantegi ortan, eta ondo dakit bere berri.

Auzolana izaten zan, zerbait baserri-lan egin bear bazan, auzoak alkarri lagunduz egiten ziran bide egiteak zirala, belar da garo ebateak, laiaketak, arto ereiteak eta gari jotzeak. Lan aueri auzolan deitzen zitzaien.

Arratsaldean lauetakoa edo merienda ere izaten zan: gazta, ogia eta ardoa, biotz bixigarri. Gazta eta ogia janez, jendeak gogoz estutzen zuan zatoa.

Garai aietan, lentxeago aitatu ditudan lan auetako bat amaitzen zanean, auzolanean jardun ziranak sagardotegi batera joateko oitura zan; eta bertan lasai, etxerako presarik gabe, jan da edan, bertsotan edo musean saio batzuk egin eta lo ere bai lasai asko bertan, belar ondua edo garo gaiñean e tzanda, bein baiño geiagotan.

* * *



Lastaola

Ez dakit egia edo gezurra dan, baiña Ernanin gertatua dala entzun izan det orain kontatuko dedan au.

Egun batez, taldekoren baten soroan artoa ereiten jardun omen ziran; eta ondoren, oiturari jarraituz, sagardotegira danak presarik gabe noski. Geroxeago konturatuko zeratenez, egunak omen zeramazkiten etxeratu gabe, eta taldeko norbaitek ala dio:

— Goazemazute etxera, mutillak! Onezkero gure etxean gozoak egongo dituk!

Eta beste batek:

— Bai. Joan egin bearko diagu. Urrena lasaiago egongo gaituk.

Alaxe, “Agur, etxekoak!” esanda, abiatu omen ziran etxe aldera, eta or ikusten dute artoa jaioa dagoala. Etziran baso bana sagardo edanda etxeratzeko asmoan joan sagardotegira.

San Isidro elizara joaten omen zan Jaunari bere otoitzak eskeintzera, eta laborea berdin etortzen omen zitzaion soroan. Baserritar aiek ere sagardotegian zeuden bitarte, soroan artoa jaioa. Mirari bat dirudi.

* * *

Ernaniko gertakizunen berri ematen ari naizen ezkerero, au ere idatzi nai nuke, ba, nere liburu onetan.

Ernanin, Portua baillaran, bizitzen zan Bernardo Zabaleta. Bernardo *Enplasteroa* deitzen zioten geienak. Txirrita bertsolari sonatuaren lengusua zan. Diru pixkaren baten egarriz Ameriketara izana; eta, an urte batzuk igaro eta bere ametsa egi biurtu zuanean, berriro ere Ernanira, bere errira, etorri zan, lenbizi izan zan Aldagaia baserrira.

Berrogei ta bi milla duro ekarri omen zituan; eta garai artan, jakiña, ez da atzo goizeko kontua, izan litezke irurogei ta amabost edo larogei urte au zala, eta Ernanin zan aberatsena bera omen zan.

San Juan egun batez iritxi omen zan bere erri-
ra; eta, arritzekoa ez danez, Ernani festa-giroan ze-
goan, erri guztia jendez gainezka beterik, eta umo-
rea nagusi. Bernardo traje ederrarekin eta lastozko
sonbreroarekin sartu omen zan Egañaren ostatuan.

Txirritak ere aldizka ostatu ortan egiten zituan
jan da lo. Bertako etxekoandre Anttonik esan izan
didanez, gaur ere *Txirritaren kuartoa* deitzen omen
diote, berak lo egiten zuan gelari. Etxean batak bes-
teari galdezka asten omen dira:

— Alako arropa, oiñetakoak edo beste edozer
gauza nun da?

Eta:

— *Txirritaren kuartoan.*

Dana dala, sartu omen zan gure amerikanoa da-
lako Egañaren ostatuan. Lendabizi mostradorera jo-
an omen zan, eta tabernariari botilla bat ardo eskatu.
Urrutira ikusi omen zituan mai batean nola zeuden
Txirrita, onen lengusu Saiburu eta beste jende asko,
eta mai artantxe jarri omen zuan botil ardoa:

— Kaixo, jaunak! Arratsalde on! Au edan nere
kontura.

Ori esanez, komunera joan omen zan pixa egi-
tera, eta Txirritak galdetu omen zion bere lengusu
Juan Joxe Lujanbio Saibururi:

— Nor dek botil ardoa maira ekarri duan gizon ori?

Saiburuk:

— Ez al dek ezagutzen? Ameriketan zan gure
lengusu Bernardo.

Eta maian norbaitek au esan omen zion Txi-
rritari:

— Bertso bat kantatzea merezi luke orrek, Joxe
Manuel.

Garai artan ez baizuan edozeiñek eskeintzen
botilla bat ardo.

Txirritak ondo omen zekian bere lengusuak Ameriketan nolatsu egiña zuan dirua. Bernardok bere lantegia edo eginkizuna oteletara esnea partitza omen zuan. Auxe zuan eguneroko lan jakiña, eta etziran izango litro bat edo bi. Auskalo zer esneputzuak banatu bearko zituan jatetxe aundi oietan, eta disimuloan ixilka ura botatzen omen zion. Bere ametsa egi biurtu zuan aberasturik, eta Txirritak gai oni buruz kantatu omen zion bertso au bere lengusu Bernardori, komunetik etorri zanean:

Ameriketan ere
badira listuak,
len pobreak ziranak
gaur aberastuak.
Esnea eta ura
alkarri nastuak,
enpatxua kentzeko
ez dituk gaixtuak.

Urte asko dira Bernardo il zala. Zeruan beza atsedean.

Nik ere ezagutu nuan gizon au, eta artu-emanak izan genituan alkarrekin. Jakiña, nik ezagutu nuanerako ere naiko zaartua zegoan gizarajoa.

Egun batez, bere illoba Agustin eta irurok alkartu giñan, eta ala esan zidaten: asto bat erosteko zebiltzala. Ain zuzen, nik baneukan etxean asto bat, oso txintxoa eta umilla gaiñera. Ala, ikusi zuten, gustatu zitzaien, tratua egin genduan eta eraman zuten. Nik alperrik bezelatsu neukan etxean eta berentzat ondo etorri zan.

Nik iñoiz izaten nuan Ermanira etorri bearra, eta emen ikusten nuan nere lagun Bernardo bere astoarekin nola zebillen kalez kale, tabernetan txerri jana biltzen. Iñoiz baxoerdi bana edo beste ere edaten genduan, kontu zaarrak esanez; eta bere lanean jarraitzen zuan, eta nik ere izaten nituan nere eginkizunak. Olaxe ibiltzen giñan.

* * *

Ameriketatik etorri eta gero, Esparza Donostia-ko kontratista sonatuaren deia izan omen zuan Bernardok, obran enkargatuaren eginkizuna betetzera ea joango zan, eta baietz erantzun omen zion. Asi omen zan lanean eta nagusiak, Esparza jaunak:

— Argiñak bear ditugu, Bernardo. Zuk bai al dakizu argiñen bat lanik gabe nunbait badagoan?

Eta Bernardok:

— Bai; badakit. Nere lengusu bat argiña da eta, esan didatenez, lanik gabe dago.

Ala, abixatu omen zion Txirritari, eta bereala erremintak artu ta joan omen zan lanera.

Añarbe alde ortan izan bear zuan paretak egiten lan puska bat. Lanean ondo asi omen zan Txirrita, baiña bai parrandak egiten ere maiz. Eta egun batez Bernardo enkargatuak esan omen zion:

— Begira, *primo*: neretzat lotsakizuna dek i orrela parrandan ibiltzea, lanera etorri gabe; eta ni ere nagusiak estu artzen niok. Ez baaiz egunero lanera etortzen, bialdu egingo aut.

Eta Txirritak:

— Ez. Ez nakela bialdu. Neroni joango nauk. Iñor lantegitik bialtzea fama txarra dek.

Eta alaxe aldegin omen zuan, erremintak artuta, beste norabait.

Portua baillaran baserrian bizi da Bernardoren illoba Agustin. Biok aspaldiko lagun zaarrak gera. Gizon jator bat bezela portatu izan da beti.

Saldu-erosian edo ganadu-tratuan ibili izan da geienez. Nerekin ere bein baiño geiagotan egin izan ditu tratuak. Nik txekorrak azi egin ditut; eta, il-tokira edo mataderara eramateko moduan gizentzen ziranean, arakiñari bezela saltzen nizkion nere lagun Agustineri ere, eta beti ondo konpondu izan gera alkarrekin.

Jakiña, urteak dijoazen bezela, lanerako ere moteldu egiten da bat, eta Agustin gizarajoa aspal-ditxoan gaixo antzean dabil. Bere denboran langillea izan bada ere, gaur ez da len bezela baliatzen eta etxe alde bizi da.

* * *

Beste gertakizun au ere, Jose Egañaren alaba Antonik kontatu izan didanez, Txirritari gertatua omen da.

Danok dakigunez, Txirrita bere erritik urruti xamar ere bein baiño geiagotan ibilia zan, argintza dala, bertso saioak dirala eta abar. Baiña nundik edo andik San Juan pestetarako beti bildu izan zan bere errira, bertso arrigarrien bidez erritarrak eta erbestetik zetozenak poztu edo alaitzera.

Bere taldekoekin San Juan eskean ere urtero ibiltzen zan, bertso eta koplak ederrak kantatuz.

Erriko sagardotegi eta ostatu danetan ibiltzen zan arren, Egañarena zuan nunbait gogozkoena, eta bertan pasatzen zituan amabost bat egun, jan da edan eta bertsoak kantatu. Eta, diruak aitzen zitzaizkionean, lanera berriro ere. Orrelaxe ibiltzen zan.

Dana dala, garai aietan, beste ostatuetan bezelaxe, Egañaenean ere komuna bajua omen zuten; eta Joxe Egañaren emazte Juanitak pentsatu omen zuan erriko pestak zetozela, eta Txirrita ere zaartua eta naiko baldarturik zegoala; eta, makurtu eziñik ibili gabe, komuna berria altua, gaur dauzkagun auetakoa, jarri bear zutela. Alaxe egin omen zuten: komuna berria patxarakoa jarri.

Iritxi omen ziran San Juan pestak; etorri omen zan, beti bezela, Txirrita; eta, komunera beartu zanean, joan omen zan eta ez omen zan ateratzen, Jendea asi omen zan marmarrean:

— Txirritari komuna berria gustatu zaiok. Ez dek ateratzen. Gustora zegok nunbait.

Baiña andik puska batera or asten da Txirrita oiu larri batzuk egiñez:

— Atozte azkar, mutillak! Atozte azkar!

Jendeak pentsatu omen zuan ondoeza egingo zitzaiola; eta, larriturik, lasterka joan omen ziran lau bat mutil gazte indartsuak, eta:

— Zer dezu, Txirrita? Ez al zaude ondo?

Eta berak:

— Ondo nagoan galdetzen al didazute? Ondo egon banintz, ez nian iñoren bearrik. Ipurdia sartu zaidak komunean eta ezin nauk atera! Ea pixka bat laguntzen didazuten!

Ala, batzuek tiratzen omen zioten alde batera eta besteak bestera; eta alaxe, tiraka eta bultzaka ari dirala, or puskatu dute komuna, eta ango komeriak!

Arritzekoa ez danez, goxoa jarri omen zan Joxe Egañaren emazte Juanita, esanez alegia:

— Obe bearrez erriko pestetarako komuna berria jarri orrenbeste pagatuta, eta bereala puskatu! Utsa litzake, beste berri bat ekartzea balego! Pestetan gaudelako, dendak ere itxiak daude, eta ostatu dana jendez gaiñezka betea!

Eta Txirritak:

— Ez estutu, etxekoandre. Ez dezu nik pasa dedan larritasuna pasa. Argiña naiz eta karaitzarekin neronek egingo dizut berria.

Txirrita serio edo kopetillun omen zegoan, pasa zuan estuasunagatik; eta jende guztia parrez lertu bearrean.

* * *

Orain kontatuko dedan gertakizun au ere Txirritarena da. Onen arreba, Axentxi, Bizente Mendizabal kontratista sonatuarekin ezkondu zan.

Elizara joateko eguna aukeratu zutenean, gonbidatu omen zituzten familikoak, lengusuak, lagunak edo adiskideak, eta Mendizabal jaunaren koiñadu izango zan Txirrita aundia ezin, ba, utzi aztuta. Abixatu omen zioten ea maia alaitzera joango zan eta ez omen zuan bi bider esan bearrik izan.

Trajea ere bai omen zeukan etxean, gero noiz-bait pagatzekotan egiña, eta bere ura jantzita dotore asko agertu omen zan jendearen aurrean.

Apaiza ere konturatu omen zan egun artan ez-tzala blusa beltzarekin joan, eta:

— Kaixo, Txirrita! Dotore etorri zera traje berria jantzita.

— Bai, jauna. Aurreko astelen batez Tolosan izan nintzan perian, eta antxe artua det subastan.

Ezkonberriak elizako beren eginkizuna bukatu zutenean, ostatu batera joan omen ziran danak amaiketakoa egitera, eta etzan izango umore faltarik. Txirritaren inguruan izango zan bertsoa eta alaitasuna. Jendeari naiko parra egin eraziko zion.

Arratsaldeko orduak ere aurrera omen zijoazen. Ezkonberriak egun batzuetarako Donostiari agur egin bearra zeukatenez, Norteko estaziora edo geltokira joan bearra zeukaten, eta gonbidatuak ere orixe pentsatu zuten: Mendizabal jauna eta bere emaztea agurtu bear zituztela.

An omen zeuden geltokian danak trena noiz etorriko zai; eta On Bixentek, koiñadu egin berria zan Txirritari:

— Bertso bat kanta ezak, koiñadu.

Eta Txirritak:

— Bertso bat kantatzeko esaten al didak, len gutxi kantatu dizkiat eta?

— Bai. Kantatu dek makiña bat, eta entzun diagu ederrik. Baiña trena oraindik etzatorrek, eta bitartean nai nikek bertso bat kantatzea, baiña gogotan izateko modukoa.

Eta Txirritak au kantatu omen zion:

Nere arrebak orain badizkik
oi ta bost urte pasiak,
ori ez dik, ez, ikaratuko
elurak eta aiziak.
Portatzen baaiz emango dizkik
eskatze'izkaken klasiak,
ai, motell, ori bizi dan arte
i ez au ilko gosiak.

Jende guztia txaloka eskuak puskatu bearrean.
Alaxe alkar agurtu omen zuten danak, eta ezkonbe-
rriak trenean joan omen ziran.

Txirritak bazekian nunbait Errera baillaran
Matxainen sagardotegian sagardo ona zegoala eta
arako bidea artu omen zuan.

* * *

Txirritari norbaitek galdetu omen zion ea zer
moduz aurkitzen zan, eta ondorengo bertso auen bi-
dez eman omen zion bere berri:

Irurogei ta amalau urte
badaduzkat bizkarrian,
kargamenturik txarrena au da:
ezin utzi baztarrian.
Anka batetik kojoka nabil,
reuma daukat iztarrian,
baiña baditut laguntzalliak,
ez nago modu txarrian.

Jakiña, bertso onetan garbi adierazten du Txi-
rritak bazituala laguntzailleak. Etzegoala ain modu
txarrean. Mendizabal jaunarekin ezkondu zan bere
arrebak jarri baizion, zaar saridun bezela, eguneko
amar pezeta. Garai aietan laguntza istimagarria izan-
go zan ori; eta Txirritak, bere arreba eta koiñaduari
esker, azken urteetan etzuan diru faltarik izaten.

* * *

Ondorengo gertakizun onen berri ere eman nai nuke, ez dakianik baldin bada jakin dezan.

Santo Tomas egun batez, Txirritak eta Artzai-Txikia bertsolariak bertso saio eder bat egin omen zuten Donostian Antzoki Zaarrean; eta, entzun izan dedanez, aurkezle edo gai jartzaille Ernaniko Antoino Pagola izan bear zuan. Gaietako bat ondorengo au omen zuten:

— Txirrita, zu belar-soroak dituzun baserritar bat zaitugu. Eta zu, Artzai-Txikiya, artzaia zaitugu. Biok kantatu bear dezute bertso bana, Txirrita asita.

Ala, Txirritak:

Artzai-Txikiya, emango dizkit
lau bat arrazoi fuertiak,
ire ardiyak nere soroan
egin dizkitek kaltiak.
Iru lau aldiz eman zizkatek
punta berriai kortiak,
ikazienda oik erretira itzik,
nik itxiko'izkit atiak.

Eta Artzai-Txikiak:

Joxe Manuel, emango'izkizut
lau bat arrazoi klaruak,
gauz ori zuri sinistekotan
bearko dute txoruak.
Ez nago oso seguru baiña
ala ematen dit goguak:
Artzai-Txikiak ardik bezela
ditu Txirritak soruak.

Jakiña, Txirrita baserritarra zan, baiña etzuan bere belar-sororik; eta Artzai-Txikiak, naiz bere ogibidez artzaia izan, etzuan ardirik. Baiña ori zan ba-koitzari jarri zioten gaia, eta ematen dioten gaiari buruz kantatu bear izaten du bertsolariak. Entzuten zegoan jendeak naiko parra egingo zuan, eta kito.

* * *

Beste bertso polit bat ere bada Txirritak kantatua. Euskal Errian bat baiño geiago izan litezke bertso onen berri ez dakitenak, eta nik adieraztearekin ez det uste iñori kalterik egingo diotenik.

Txirrita eta Fermin Imaz bertsolaria, biak oso lagun izan baziran ere, gogor aserretuak izan bear zuten, itz itxusiak alkarri esaten zizkiotela, eta bertso mikatzak jarri ere bai batak besteari. Ortxe dauzka Aita Zabalak *Auspoa* saillean argitaratuak, nai dituanak irakurri.

Txirritak *Astoa* deitzen zion Fermiñi; eta, jakiña, Txirrita nola baizan askotaz aundiagoa, *Mandoa* deitzen zion Fermiñek.

Egun batean, Txirrita ostatu batean zegoala, or sartu da Fermin Imaz, eta ondorengo bertso au kantatu zion Txirritak. Negua izan bear zuan; ala du itxura bertsoak:

Soiñean jantzirikan
iru elastiko,
tabernara sartu da
atsalde guztiko.
Mandoak jotzen badu
Astoa ostiko,
ez dik geio muturrik
ardotan bustiko.

Ondorenean, jendearen parrak eta txaloak ez omen zuten azkenik.

* * *

Entzun izan det ondorengo bertso au ere Txirritak kantatua dala, orain larogei bat urte gutxi gorabeera.

Igande arratsalde batez, Txirrita sagardotegi batean bertsotan ari dala, mutil gazte batzuk sartu omen ziran. Adarra jotzearren, Txirrita toreatzen asi omen ziran, eta taldeko batek:

— Kaixo, Txirrita! Zer egiten dezu emen, andregaiarengana joan gabe? Ni baiño elduxeagoa zera zu, eta onezkero ezkontuta egon bear zenduan zuk.

Txirritak:

— Bai. Nik etxean esaten diat ezkontzea pentsatzen dedala, baiña gure amak ezetz esaten zidak. Oraindik gaztea naizela; eta, gaiñera, ezkontzeko lendabizi dirua aurreratu bear izaten dala, parrandak egiteari utzita eta abar.

Mutillak:

— Ez dakit, ba, Etzaitugu bein ere andregaiarekin paseatzen ikusten da...

Eta Txirritak:

— Nere andregaia ostatu batean zegok neskame serbitzen. Ain zuzen, Errenterin, *Pannier Fleury* ostatu sonatuan. Jaietan ere lana izaten dik, eta ez dek ain errez gu paseatzen ikustea. Baiña gure ezkontzari buruz zerbait itz eginda gaudek, eta neskatxak esan omen ziok etxeakoandreari beste neskame bat billatu bearko duala. Etxekoandreak, berriz, esan omen zio, ezkondu ondoren lengo tokira joan nai badu, antxe daukala bere lantokia; eta berak eta senarrak irabazten duanarekin ondo bizi gindezkeala, eta orrelako kontuak. Baiña gure amak ez dik entzun nai ezkontza-konturik, eta ez dek giro gure etxean.

Mutillak:

— Zuk kontua ugari darabilkizu, Txirrita. Baiña nik ez dizkizut danak sinisten. Ni, bai, banoa orain ere andregaiarengana, eta zu inbiritan egongo zera.

Eta Txirritak:

— Ik baiño suerte ohea izango diat nik. Ezkontzen banaiz, andreak naiko dirua ekarriko dik etxera, eta ni ondo nizi nitekek, lanik egin gabe ere. Baiña, ik jango badek, lanera joan bearko dek.

Eta ondoren kantatu omen zion bertso au mutillari:

Andregaiarengana
biakela juan,
ez aiz abiatutzen
berealakuan.
Txarren bat artzen badek
ona dalakuan,
eskarmentatuko aiz
probatutakuan.

Ondoren bai omen zan txalo-zaparrada ede-
rrik, eta alaxe agurtu omen zuten alkar Txirritak
eta gazteak.

* * *

Beste gertakizun au ere xelebrea da. Txirritak
bai omen zuan neska ezagun bat Frantzian neska-
me edo serbitzera joana, eta urte batzuk an pasata
etorri omen zan errira. Jakiña, bera bakarrik joan
omen zan emendik, baiña gero iru etorri omen ziran.
Erriak jakingo zuan noski gertatu zanaren berri,
baiña jendeari Txirrita zirikatzea gustatzen zitzaion,
eta egun batez sagardotegi batean norbaitek galdetu
omen zion:

— Kaixo, Txirrita. Frantzian zegoan neskatxa
ura etorri omen zan. Bai bi landare eder ekarri ere
bekin. Ezkondu al zan?

Txirritak:

— Ez, bada.

Eta ondoren kantatu omen zuan bertso au:

Neskatxa ori etorri zaiguk
lengo batean Paristik,
berebiziko erregaliak
andikan ekarri dizkik:
bi mutil koskor ille gorristak
ematen dutenak bixkik;
lan oiek egin erazi'izkanak
abildadiak badizkik.

Eta jendeak:

— Ori, ori! Bejondaizula, Txirrita! Orrek trago bat mereziko du! Goazen, edan dezagun!

Eta danak kupelera.

* * *

Txirritari eta sagardoari buruz idazten ari naitenez, au ere esan bear det.

Len, garai batean, pitarra izaten zan baserrieta-ko edaria. Norbaitek galdetu lezake zer izaten dan pitarra. Bada, pitarra izaten da sagarra tolarean jo eta ura bota izan zaio patsari. PISOIAREKIN zapaltzen dan sagarrari deitzen zaio patsa.

Sagardo mustioa egin bear danean, etzaio urik botatzen. Baiña bai pitarra egin bear danean. Eta, ura bota bear danean, ez du neurri jakiñik izaten. Sagar-urte ona danean, ura gutxiago botatzen zaio. Eta, sagar-urte ona ez danean, geiago.

Ez naiz oroitzen zein baserritan; baiña, sagar-urte txarra zan batean, zazpi zaku sagarrarekin emezortzi kargako kupela bete omen zuten. Morroiak egun osoa pasa omen zuan errekatik ur karraio.

Txirritak, berriz, oitura auxe zuan, baserri baten ingurutik pasatzen zanean:

— Txarro bat pitar emango al didazute faborez?

Baserri danetan ematen zioten txarro bat, eta bi ere bai. Baiña egun artan bat naikoa zuala esan omen zioten, eta abiarakoan:

— Pitar onek bazeuzkak bi gauza, onak: bata, ontatik edaten duana ez dek mozkortuko; eta, bes-tea, badezutela pixka bateko edaria. Aio, jaunak! Eskerrik asko! Urrenarte!

Baiña ez omen zan urte artan geiago baserri artara joan.

Faustinoenea

DONOSTIAN, Egia baillaran, eta ain zuzen Egia kalean, bazan, orain irurogei ta amar edo larogei urte, Faustinoenea izeneko baserri moduko etxe urtetsu aundi bat, eta bertan sagardotegi sonatu bat, beti jende asko ibili izan zana.

Ni neroni ere askotan izanda nago nere lagunekin sagardotegi ortan gerra aurrean, orain irurogei ta bost bat urte; eta gerra ondorenean ere bai.

Faustino Eizmendi bertako nagusia, errezildarra berez. Gizon jatorra, indartsua eta lagunartekoa edo atsegiña.

Donostian Kullasene baillaran dagoan Latxaga baserrikoa zuan emaztea. Emakume bizkorra, langille asper eziña, sukaldari aparta eta serbitzari leiala.

Bi seme izan zituzten, mutil bikaiñak eta indartsuak biak ere. Bat beintzat pestetan arri jasotzen jarduten zana zan, eta bestea ere ez motela. Aitari sagardo-lanetan laguntzeko, ai zer nolako bikotea!

Lentxeago esan det Egia kalean zala dalako sagardotegi ori. Garai artan kale ori bakarrik baizan inguru artan. Baiña gero, gerra ondorenean, Egia kalearen beste alderdian beste kale berri luze zabal eder bat egin zuten, Polloe kanposantua edo illerriaren aurretik, Ametzagaiñean barrena Altza baillara

edo Intxaurrondo aldera dijoana, eta oni jarri zioten Egia izena. Eta len Egia zan kaleari, *Virgen del Carmen*. Gaur ere izen oietxek dauzkate kale oiek.

Faustinok bere gogozkoa zuan sagardo egite lan ori. Etxean zeuzkan tolarea eta kupelak; eta aietxek sagardoz betetzen zituanean lasaitzen zan gizona.

Jakiña, sagardoak duan lana ez da or buka-tzen, naiz eta kupelak sagardoz betetzea lanik gogortxoena izan. Gero ere sagardoak baditu bere lanak. Kupela, sagardoz betetzean, andik illebete bat edo bira probatu bear izaten da, eta begiratu irakiteari utzi dion ala ez. Irakiteari utzi badio, kupelaren gaiñeko zuloa tapatu egin bear izaten da ondo, arnasik artuko ez duan moduan. Gero, bere garaian, botilletan sartu eta apaletan edo lurrean pillan jarri, eta illebete bat edo bira edateko moduan izaten da.

Faustinok gizon-sagardoak edo edari onak zekian egiten; baiña emakumeen gogozkoak egiten ere iaioa zan. Emakumeak, bitatik batean, sagardo goxoa naiago izaten baitu. Baiña, ortarako, Faustinok buruz jokutzen zuan. Kupela bat edo beste sagar gezarekin egindako sagardoz beteko zituan; eta, botilletan sartzen zuanean, aparte jarri. Eta gizon-sagardoa edo edari txinpartatsua egiteko, sagar gazia eta geza biak nastuko zituan, baiña bere neurrian, gazia geixeago zala; eta ari deitzen zitzaion gizon-sagardoa.

Faustinoren sagardotegian aste-egunetan ere beti ibiltzen zan jendea. Baiña igande eta jai-egunetan erromerira balijoazte bezela joaten zan jendea sagardotegietara. Famili osoak: larriak eta txikiak, elduak bezela gazteak ikusten ziran. Batzuek etxetik eramaten zuten bazkaria edo merienda; baiña beste askok naiago izaten zuten sagardotegiko etxeoandre sukaldari txukunak ain ederki prestaturik zeuzkan usai gozoa zerioten kaxuela aietatik jan.

Gaur famili askotan ikusi litezke kotxe bat bezela bi edo iru, eta jendea irrikitzen egoten da igandea edo

jai-eguna noiz etorriko dan zai beren ibillalditxoak egiteko, eta batzuetan luzeak eta arriskutsuak ere egin bear izaten dira, eta or dijoaz beren ametsa egi biurtu asmoz, naiz iñoiz negarrez edo atsekabeturik etxeratu.

Baiña orain irurogei urte, nola ez genduan gaur daukagun kotxe aukerarik, etxetik irten eta ibilalditxo bat oiñez egiten bagenduan, konforme izaten giñan.

Orretxegatik, Faustinoren sagardotegian, eta batez ere jai egunetan, arrigarrizko jendetzak biltzen ziran. Gizonezkoak bezelaxe ikusi zitezkean emakumezkoak ere, erdeldunak geiago euskaldunak baiño. Jakiña, emakumezkoak sagardotegira joate ori gaur ez da nabarmentzen, garai artan bezela. Gaur emakume euskaldunak berdin ikusi litezke, sagardotegietan bezelaxe, tabernan eta kafetegietan ere; eta garai bateko karabineroak bezin egokiak dira zigarroa erretzen ere. Jakiña, gizonaren pareko omen dira orain, eta ez da giro gonadunekin. Gonadunekin esaten det, baiña aspaldi asi ziran gizonarentzat egiñak diran galtzak berenganatzen. Eta gaur ez da errez, kafean edo beste nunbait ikusita, emakumezkoa ala gizonezkoa dan ezagutzen.

Garai batean, buruan ille luzea ere emakumezkoak bakarrik ibiltzen zuten, eta belarritakoak ere berdin.

Ez dakit mesedegarri edo kaltegarri izango diran, baiña bapo aldatu zaizkigu Euskal Errian genituan oiturak. Garai bateko aiton-amonak begira baleude, zer esango ote luteke, gure lur paregabe onetan egin dan aldakuntza ikusita?

Ain da negargarria gure egoera tristea. Noizbait konturatuko al gera noski anaiak anaien aurka gabiltzala eta bide ortatik ez datorrela adiskidetasunik eta pakerik. Nai genduke mundu guztiaren jaun eta jabe, eta ori ez da bidezkoa. Burua makurtu bear danean, makurtzen jakin bear degu, eta merezi duanari arrazoia eman. Ori da gizalegea.

Noan berriro ere Faustinoren sagardotegira. Faustिनok, naiz berak etxean sagardo asko egin, arrigarri saltzen zuan tabernetara eta baillarako beste etxe askotara, eta kanpotik edo beste sagardotegietatik ere ekarri izan zuan inoiz, etxeko premia osatzeko.

Au neronek ikusia daukat. Ni Donostian, Aiete baillaran, Azken-Portu baserrian bizi nintzala, bertako nagusi Juan Marik sagardoak egiten zituanenez saltzeko alegia, Faustino etorri izan zan bein baiño geiagotan bere lagun-talde batekin sagardoa probatzera, erosteko asmotan, eta:

— Kaixo, Juan Mari. Arratsalde on.

— Kaixo, jaunak. Berdin. Sagardoa bear dezu zuk, Faustino?

— Bai, Juan Mari. Onak al dauzkak?

— Bai, bai. Sagardo onak dauzkat nik. Probatu ditzagun.

Juan Marik, betiko oitura zuanez, etxean zeukan onenetik asiko zan kupela txoxten, eta Faustिनok:

— Au ona zegok.

Gero bestea.

— Au ere bai.

Eta orrelaxe probaketan. Baiña Juan Marik bazuan kupela bat, geienetan sagardo goxoa ateratzen zuana, aldi luzean *kin-kun* eta *kun-kun* beti irakiten egoten zana, eta ura etzan gizon-sagardoa izaten, emakume-sagardoa baizik; eta, sagardo goxo ura probatu ondoren, ala dio Faustिनok:

— Aizak, Juan Mari: sagardo au, goizetan gailleta batzuk janez edateko modukoa zegok.

Juan Marik:

— Banekian zer esan bear zenduan. Nik ez dakit zer deabrukeri duan kupel onek. Beti edari goxoa ateratzen du.

Eta Faustinok:

— Ez adi estutu, Juan Mari. Nik etxean gizon-sagardoa bezelaxe bear izaten diat emakume-sagardoa ere, eta bi kupelak artuko dizkiat.

Etzuan badaezpadako poza artu Juan Marik, au entzun zuanean. Garai artan, kupela bat sagardo erabat saltzea mirari bat bezelatsu baizan, eta bi kupela saldu zituan batera. Loteria tokatu balitzaio baiño ere poz aundiagoa banatu zan Juan Mariren biotzean. Alaxe, bi kupeletako sagardoak eramán zítuan Faustinok, eta etzan asarre Juan Mari.

Gero, gelditzen ziran kupelak ere ustutzen ziran. Batzuk etxean txotxean saltzen ziran, eta besteak tabernetara eta lagunarte edo soziedade batzuetara.

Eta berriro ere neretzat gelditzen zan lana. Juan Mari gizon lodia zanez, kosta egiten zitzaion kupelaren barrura sartzea; eta, ni nola bainintzan gaztea eta mearra edo argala, erbiñudea gurdi-pertikaren kabilla-zuloan sartzen dan bezin errez sartzen nintzan kupelaren ate-leiotik barrura.

Lendabiziko lana, kupelaren barruan zegoan liga zaarra kanpora bota, urez ondo garbitu eta legortzen utzi; eta, berriro sagardoz bete bear ziranen, egun batzuk aurretik nagusi Juan Marik esango zidan:

— Kupelak sagardoz betetzeko prestatu bearrak zeudek.

Eta nola geienetan neroni jarduten nintzan lan ortan, banekian zer neukan egin bearra. Trintxaren moduko erreminta batekin sego zaarra kendu kupe-lari, eta sego berria eman ol-tarte danetan, kupelak jariorik izan ez dezan; eta kupelaren ate-leioa ere garbi-garbi egin, sego berria eman ondo, itxi eta segidan beste kupelera. Alaxe, ontzi danak prestatu arte. Gogozko lana nuanez, gustora jarduten nintzan, bertso zaarrak kantatuz.

Berriro sagardoz bete bear ziranean, geienetan iru lagun izaten giñan. Garai artan eskuz jotzen genduan sagarra. Makina aundi xamarra zan; eta Aieten, Arostegi baserrian morroi zegoan nere lagun Xanti Lujanbio eta biok jartzen giñan makinaren alde banatatik. Nagusi Juan Marik, berriz, sagarra bota makinari, eta palarekin tolarean patsa zabaldu.

Ogei ta bost edo ogei ta amar karga sagar jotzen genituan asialdi bakoitzean, eta au ere jakin bearrekoa da: karga sagarra sei zakurekin egiten dala alegia, eta txuleta jaten baiño gustorago jarduten giñan sagardo egite lan ortan.

Oiñak ere urte guztian ibiltzen genituan garbie-nak orduantxe ibiltzen genituan. Gaur gomazko oiñetakoak ibiltzen dituzte tolarean. Baiña garai artan etzan gaur daukagun oiñetako aukerarik, eta oiñutsik ibiltzen giñan. Alare, etzan iñor nazkatzen. Berdin-berdin edaten genduan sagardoa.

Orain ere arrastotik aterata nabil, baiña bereala sartuko naiz irten naizen bidera: Faustinozen sagardotegira alegia.

Gero, urte askoan lantegi ortan jardun ondoren, sagardo egiteari utzi egin zion Faustinoz. Urte-en zama aundia ere berekin zeraman gizarajoak bizkarrean, eta aspertzea ere ez da arritzekoa.

Eta bere etxea, urtetsua edo zaarra nola baizan, bota eta kale-etxe berri aundi eder bat egin zuan bertan; eta alde batean bere semeak erreminta-denda edo ferreteri aundi eder bat jarri zuten, eta beste aldean, berriz, Kutxa Munizipalaren bulego eder dotore bat zabaldu zan. Zeiñek esan garai batean sagardotegi sonatu bat zala, gaur etxe berri eder ori dagoan lekuan?

Zoritxarrez, orrela galdu dira gure Euskal Erri maite onetan sagardotegiak eta beste oitura on asko. Negargarria da benetan gure lur paregabe one-

tan ezagutu degun aldakuntza. Berrizale gera, baiña ardoa ere zenbat eta zaarragoa ohea da, esaerak dienez; eta ardoa bezelaxe beste gauza asko ere.

Esate baterako, etxekoandre edo sukaldaritzan ona dan batek, salda ona egin nai duanean, geienetan ganadu zaarraren aragi-ezurak edo oillo zaarraren pusketak sartuko dizkio lapikoari.

Bestela, entzun dezagun Txirritaren bertsolari aundiaren ateraldi xeblebre au. Egun batez, Txirrita joan omen zan ostatu batera, eta salda eskatu zuan. Atera omen zioten katillu aundi bat; eta, ura artu zuanean, etxekoandreak:

— Txirrita, saldaren gaiñean zer nai zenduke?

Eta Txirritak:

— Saldaren gaiñean? Izarrak —erantzun omen zion.

Izarrik gabeko salda izango zan nunbait, aula alegia.

Baiña ara orain ere noraiño joan naizen Faustinoen sagardotegitik asita.

Kontuak kontu, urte asko dira mundu ontako lanak eginda Faustino betiko agurtu zala. Larogei ta amairu urterekin eman zuan azken arnasa. Eta ondoren emazteak ere bai. Jaunak berekin ditzala zeruan.

Flores-berri

DONOSTIAN, Lugaritz baillaran, Eriz pasealekuan, kamio ertzean, leku patxaratsu batean dago Flores-berri izeneko baserria, eguzkiak eta aize osasungarriak gogoz maitatzen dutela. Orain irurogei ta amar bat urte egindako etxe eder bat degu bera.

Mariano Lasarte bertako nagusia, gizon ospetsua bezin jatorra. Urte askotxo dira Mariano il zala. Zeruan beza atsedean.

Zer famili izan zuan seguru esateko ez dakit; baiña iru edo lau seme-alaba ote zituan errezeloa daukat, aspaldiko kontua da ta.

Seme zaarrena, Joxe Krutz. Ortaz, bai, ondo oroitzen naiz. Berak emanda askotan edan izan degu sagardoa. Mutil jatorra eta leiala zan. Ezkondu zanean, aitak etxe berria egin zion, Etxe-txuri izena duana. Au ere Lugaritz kamio ertzean, Flores-berri baserritik gertu dago.

Marianoren alaba bat ere ezagutu nuan. Maria Teresa uste det zala. Neskatxa polit askoa, bere irripar goxoarekin. Bera zan geienetan kupelaren ondolan sagardoa saltzen egoten zana; eta, jende gutxi xamar zanean, bakarrik ere egoten zan une batzuetan.

Alakoetan, ni ere joaten nintzan, sagardoa edateko aitzakian, kupelaren ondora neskatxarengana. Be-

ra ain bertsozalea izanik, nik kantatzen nituan bertsoak entzun nai izaten zituan, eta antxe jarduten nintzan nekizkien edertxoena berari eskeintzen.

Baiña alakoetan Mariano, bere aita, ain gizon serioa eta errespeto aundikoa izanik, egun batez auxe esan zidan:

— Sebastian, nere alaba *neutral* dago, e?

Esan nai zidan, alegia, ni ez nintzala ondasunez neskatzaren maillakoa, famili ori ondasun askoren jabea baizan, eta ni beartsua edo pobrea izan. Maitasunez aberatsa, bai, baiña ondasunez urri. Beartsuari ez baizaio bein ere alkandora ipurdira irixten, eta ortan izaten dira komeri txarrak.

Marianok, beste sagardotegi askotan bezelaxe, sagardo on txinpartatsuak egiten zituan geienetan. Neronek irakurri izan det, orain irurogei bat urte egunkarian: "*Actualmente las mejores sidras en Guipúzcoa las tenemos en las siguientes sidrerías: Urres-ti-azpi, Flores-berri y Munto*". Eta etzan gezurra.

Neroni ere, sagardoalea izan naizenez, bein baiño geiagotan izanda nago baserri oietan, eta badakit zerbait edari gustagarri orren berri.

Lentxeago aipatzen ditudan iru baserri oietan, gaur ez da sagardorik egiten; baiña Euskal Erriak ez ditu ain errez aztuko etxe oien izenak, beste asko eta askorenak bezelaxe. Erriaren oroimengarri bezela izango dira.

Azken urte auetan gure sagardotegiak bakandu bazaizkigu ere, bein ere baiño sagardo geiago egiten dala esango nuke, gu bizi geran lur ontan; eta gure begien aurrean daukagu gertatzen danaren arrazoia.

Len, garai batean, sagardotegi aundiak eta txikiak, danetatik genituan; baiña aspaldi asi ziran sagardotegi aundiak indartzen eta txikiak bakantzen, eta ezin esan genezake sagardotegi txikiak bakan-tzearekin sagardo gutxiago egiten danik, alderantziz

baizik. Gaur dauzkagun sagardotegiak aurrerapenez ondo osaturik dauzkagu.

Bertako sagarrarekin ondo osatzen giñala bear genduan sagardoa egiteko, baiña gaur geienbat erbestetik ekartzen da, eta sagar ona gaiñera.

Norbaitek esan lezake sagardoa edari garestia dala; baiña konturatu gaitzen bear degun sagarra emen bertan bagendu askotaz ere merkeagoa izango litzakeala ain gustagarria dan gure sagardoa. Baiña emen ain bearrezko ditugun beste gauza asko bezelaxe, sagarra ere urrutitik ekarri bear, eta orretzek garestitu erazten du merkea.

Badet beste zerbait geiago ere Flores-berri baserriari buruz esan bearra. Une guztiak etzirala, alegia, gozoak edo pozgarriak izaten; samiñak edo mikatzak ere bai aldizka, eta guk ere pasa bear izaten genituan batzuetan estuasun latzak. Oraindik ere oroitzen naiz gau batez baserri ortan pasa genduan larrialdi beldurgarria.

Gerra aurretik zan: 1934-garren urtean gutxi gorabeera. Garai artan ere, oraintxe bezelaxe, bazan Euskal Errian asmo txarreko jende biurria, pakea baiño gerra naiago zuana alegia.

Igande arratsalde batez, gu, lau edo bost lagun, beti bezela alkartu giñan; eta Flores-berrin sagardo ona zegoala eta bertara joatea pentsatu genduan, eta alaxe joan giñan, gero damutu bazitzaigun ere. Lenengoz dana arrosa kolorekoa genduan, baiña gero agertu ziran arantzak.

Gu joan giñanean, euskaldun jende paketsua zegoan, eta an ari giñan meriendatuz sagardoa edaten. Baiña illunabar aldera sartu zan etsai guztiak berekin zituzten erdeldun gazte-talde bat, eta begiratuan ezagutzen zuten jolaserako baiño burrukarako gogo geiago zeukatela. Azkenerako bapo nabarmendu ziran danak ere, eta etzan giro aien inguruan.

Gu, meriendatu genduanean, beti bezela umoretsu jarri giñan, eta nere lagunak neri ekiten zidaten, esanez:

— Zer? Gaur ez al diagu bertsorik, Sebastian? Ik badakizkik, ba, Xenpelarrek Betroiari bederatzizko puntuan jarritako bertso eder askoak.

Nola memoriz nekizkian, alaxe asi nintzan kantatzen. Baiña gure umoreak denbora gutxian iraun zuan, eta etzan atsegin teillatupe artan. Ala zioten erdeldun aiek, beren mingain zikiñak astinduz: obe genduala ixildu, berak etzutela ezertxo ere ulertzen da. Eta, pakea ohea zala pentsaturik, ixildu egin giñan.

Egun artan eguraldi ederra zanez, jende asko etorri zan sagardotegira, eta geienok euskaldunak, pakearen eta umore onaren aldekoak.

Baiña une batetik bestera an sortu zan beldurgarrizko burrukaldia. Orduan, gauza onik etzala pentsaturik, nere lagunak eta ni kanpora irten giñan; eta ain asmo txarreko belarrimotz aiek bereala artu zuten burutazio txarra.

Lendabizi, burruka dabilzala sagardotegian zeuden maiak eta silla danak puskatu ondoren, ate danak itxi, jendea barruan zegoala; eta argiaren ari danak puskatu.

Azkenik, sagardoa saltzen zegoan neskatxaren maia puskatu. Ori egin zuten duroak ostutzeko asmo txarrez. Arratsalde guztiko sagardo-diruak mai artantxe baizeuzkan neskatxak. Diru danak lurrean zabaldu ziran, eta belarrimotz aiek illunpetan dirua bildu ta bildu. Neskatxak, izaturik negarrez, aitari otsegiten zion:

— Aita! Aita! Etorri azkar!

Baiña bertako nagusi Marianok, buruz ain argia izanik, disimuloan telefonoz poliziei ots egin zien, eta bai azkar etorri ere.

Gu kanpora irten da bereala, etorri zan autobus aundi bat poliziz beteta, eta bereala sartu ziran sagardotegira. Linterna onak ere berekin zituzten. Gau illuna baizan. Bederatziak aldera zan gertakizun ori. Ateak itxi zituzten. Etzioten iñori irteten uzten; eta ekin zioten, gerrian zintzilik zeramazkiten berogariak eskuetan artuta, *dale* bati eta *dale* besteari. Kupira gabe astintzen zuten berogarria, eta tristeak ziran ango oiua eta karraxiak. Saiets-ezurrak ondo berotu zizkietenean egin zuten polizi aiek gau artako pakea.

Errugabeak ere izango ziran noski tartean soldata jasotakoak. Aiek ematen zidaten neri pena eta errukia.

Dana dala, artu zituzten belarrimotzak autobusean eta joan ziran poliziak beren kuartelera. Jakiña, garai artan Donostia askoz txikiagoa nola baizan, *guardias de asalto* izeneko polizi aiek kuartel bat bakarra zeukaten Donostia guztirako, eta bera *Inpernuan*. Norbaitek galdetu lezake:

— Baiña nolaz *Inpernuan*?

Erreza da ulertzen, eta ara emen erantzuna: Donostiari dagokion Añorga baillaran bi baserri ziran: bat *Inpernu*a eta bestea *Belen*. Bietan ezagutu genduan taberna. Ni neroni bein baiño geiagotan izanda nago taberna oietan, gaztea nintzala. Biak ere aspaldi bota zituzten, kale-etxe berriak egiteko.

Baiña gaur ere *Inpernu*a deitzen zaio inguru orri; *Barrio del Infierno* erderaz. Inguru ortan dago, baita ere, egin berria dan Errotaburu baillara. Dana dala, oraindik ere gogoan daukat nun zan polizi aien kuartela.

Autobus aundi luze batzuk zituzten, aurretik atzeraiño gaiña irikitzen zitzaietenak, eta poliziak autobusaren bi aldeetara saltatzen ziran, azkar asko gaiñera, eta etzan giro izaten aiekin. Sasoi bete-

an zeuden euskaldun mutil gazte liraiñak ere bazebiltzan taldean. Au ondo ikusi genduan udaberri zan igande illunabar batez, Azken-portu baserrian.

Etxeko danak apaltzen ari giñala, ustegabeen autobus oietako bat etorri zan poliziz betea, eta estu ta larri sukalderaiño sartu zitzaizkigun bost edo seiko talde bat, euskaldunak, pistolak eskuetan zituztela.

Bereala "Eskuak gora!" esan ziguten, eta guk parrari eman genion, broman ari ziralakoan. Baiña berak etzuten parririk egiten, begiratu zorrotza baizik, eta berriro:

— Eskuak gora esan det!

Jateari utzi eta danok eskuak gora jaso genituan, eta ala zioten alkarri:

— Ez dituk auek. Barkatu. Gabon pasa —esan da tximista baiño azkarrago aldegin zuten Ernani aldera.

Urrengo egunean jakin genduan Donostian lapurreta edo zerbait orrelako egin zutela. Baiña etziran goxoak etorri dalako *guardias de asalto* aiek.

Gorrotoa zien norbaitek ere bertso bat egin zien erderaz:

*Mamá, yo quiero ser
guardia de asalto;
no quiero trabajar
porque me canso.*

Lentxeago esan det garai artako polizi aiek *Inpernuan* zutela kuartela. Etxe aundi bat zan, Gipuzkoako Diputazioarena; eta bertan zeuzkaten almatzen aundiak. Aietan sartzen zituzten gauza asko, eta gero gauza oiek danak kendu eta polizientzat kuartela jarri zuten.

Baiña nola etxe aundia zan, gerra garaian espetxea edo kartzela ere bertan jarri zuten. Esan nai det, alegia, norbaitek okerren bat egiten bazuan, polizi aiek artu eta *Inpernura* eramaten zuten.

Donostiak bazeukan kartzela, ain zuzen Antigua baillaran, itxaso ertzean. Ondarretako kartzela zeritzaiona. Palazio eder bat zirudian etxe aundi bat. Baiña nola gerra garaia zan, naiz etxe aundia izan, presoekin beteta zegoan beetik asi ta goraiño; eta, iñork okerrrik egiten bazuan, *Inpernura* eramaten zituzten.

Baita elizan meza santua entzuten zegoan jendea ere poliziak artu ta *Inpernura* eramán izan zituzten. Neronek ezagutzen nituanak ere bai bat baiño geiago. Ez dago galdetu besterik gaur Ondarrabian komentu batean fraile dagoan Xalbador Zapirain Ataño-ri. Igande goiz batez Donostian Atotxan fraileen elizan meza santua entzuten zegoan jendea artu aurrean poliziak eta *Inpernura* eramán zituzten.

Zergatik uste dezute? Meza ura ildako eusko gudariengatik ixilka aterea zan, eta poliziak ori jakin eta elizako jendea eramán egin zuan, bereala libratu bazuan ere. Eta Joxe Zapirain zanak, ain bertsolari trebea zanez, bertso eder askoak jarri zituan gertakizun orri buruz, bera ere egun artan elizan izan baltz bezela.

Bertso oiek gaur ez dauzkat gogoan, baiña memoriz ikasi nituan eta iñoiz lagunartean kantatu ere bai. Ala ere, ara nola diran, *Auspoa* saillaren 123-4-5-garren zenbakitik artuta:

Dozen erdi bat bertso
biar ditut jarri,
denbora pasatzeko
entretenigarri,
lenguan funtziyo bat
zutelako jarri,
eta zer gertatu zan
esango det sarri:
erakutsi digute
inpernuko berri.

Entendimentutikan
nagola sanua,
ango pasadizua
esatera nua;
beñere etzait aztuko
orduko lan ua:
elizatik artuta
preso *inpernua*;
arren, libra gaitzazu,
Aita Eternua!

Ango pasadizua
nua esatera,
eta sinistatzia
posible ote da?
Borondatez juañan
meza entzutera,
barrenan giñan denak
kanpora atera,
gero preso eraman
kartzela batera.

Zer esatera nuan
au goguan jaso,
eta gende guziya
beldurtu zan oso;
esan dan funtziyu oi
izan dala kaso,
lagun asko giñaden
seme ta guraso,
elizan giñan danak
inpernura preso.

Kontatu bear ditut
orduko kasuak,
aztu gabiak dauzkit
goguan jasuak;
guziyak arrapatu

gaitu erasuak,
katolikuak eta
relijosuak;
alare ez gaitu erre
inpernuko suak.

Oiek egin dituzte
orrelako lanak:
presidiyuan sartu
elizara juanak,
nola emakumiak
igual gizonak;
berexi gabetandik
gaixto eta onak,
artu aurrian eta
inpernura denak.

Batzuek izutu ta
bestiak beldurtu,
eta jendia zuten
oso gogor artu;
memori ona daukat
naiz pixka bat zartu,
oien aziyua iñork
ez lezake partu:
bizirikan geundela
inpernuan sartu.

Nunbait guztiyak igual
genduen merezi,
gaixtorik eta onik
etzuten berexi;
alako funtziyorik
nik ez det ikusi,
batzuek eskapatu
ziyoten igesi,
jakiña *inpernuan*
etsaia nagusi.

Au ere esan nai nuke, ez dakianik baldin bada jakin dezan: gerra ondoren bota zutela, alegia, Ondarretako kartzela; eta orduan egin zuten orain Martutene baillaran daukaguna.

Ara noraiño iritxi naizen Flores-berri baserritik asita. Barkatuko al didazute mesedez, irakurle maitok, aspertu erazi bazaituztet.

Amara zaarra

DONOSTIAN, Amara zaarrean, ain zuzen Amara kalean, orain irurogei ta amar edo larogei urte baziran bi sagardotegi sonatu: bat Anton Amara esaten ziotena -Antonio Loinaz zan bera-; eta bestea Lokatene sagardotegia.

Gazteak giñala, orain irurogei ta bost bat urte, bi sagardotegi auetan edan izan degu sagardo ona edo gustagarria.

Gerra garaian, Antonio Loinazek utzi egin zion sagardoa egiteari; eta bere seme Manuel Aieten Azken-Portu baserriko Nikolasa Urrestarazurekin ezkondu zan, eta Donostian, Aldamar kalean, jarri zuten gero ain sonatua izango zan jatetxea edo otela, *Casa Nicolasa* zeritzaiona.

Badira urte batzuk jatetxe edo otel onen jabeak utzi zutela. Ain sukaldari sonatua dan Castilloren semeak artu zuan, eta gaur ere bera dago goi-maillako ostatu ortako buru.

Len esan dedan Antonio Loinazek sagardoa egiteari utzi zionean, beste seme batek eraman-ekarri-rako eta transporterako kamiona jarri zuan, eta asmatu zuala uste det.

Garai artan lana baizegoan nun-nai, eta kamioi gutxi. Itzaiak ziran orduko transportistak, orain larogei urte ere. Kamionen orde, itzaiak ziran kamioan

aruntz eta onuntz gauza karraio zebiltzanak. Eta gerra ondorengo urte batzuetan ere berdintsu ziran gauzak.

Beste asko bezelaxe, ni neroni ere, gerra aurretik asi eta ondorenean ere bai, ikatz-lanean ibilia naiz urte batzuetan, Patxi Erdoziaren agindupean. Bera genduan nagusia eta itzaien bidez egiten zan Donostia guztiko gauza geienen eraman-ekarria.

Beste lan mota batzuk ere egiten genituan, baiña geienbat ikatz-lana genduan. Gaur baiño ikatz geiago erretzen zan garai artan; eta Donostia guztian jarduten giñan, ikatz-almazenak zirala, ikatza saltzen zuten dendak zirala, otelak edo jatetxeak zirala, ikatza saltzen.

Garai artan bazan Ernaniko Florida baillaran fundizio aundi bat. An ere ikatz asko bear izaten zuten, eta bein baiño geiagotan joanak gaude, Donostian galera aundia bete eskuz eta itzaiarekin Ernánira; eta an ere eskuz palarekin ustu, eta berriro Donostiara ostera ere, galera edo gurdi aundia kargatzera, beste norabait eramateko.

Orain kamionak eta kotxeak ikusten ditugun bezela, garai artan alde guztietan itzaiak ikusten ziran. Esate baterako, baserri bakoitzetik goizean goiz asko irtengo zan itzaia idi-parea, galera edo gurdi aundiarekin, farol argia eskuan zuala.

Itzai sonatu bezela, Aieten, Borroto baserriko Domingo Ubarretxena genduan. Gizon onek bei esnedun mordo bat, txekor eta zaldien artean, bost edo sei idi bikain askoak beti edukitzen zituan etxean, inguru artan ziran ederrenetakoak.

Askotan ikusi izan degu bi idi-pare beren galera edo gurdi aundiarekin Donostiako kaleetan lanean dabilzala. Goizean bostak baiño len abiatuko zan kamioan beera. Gauean etxeratzeko bederatziaik edo amarrak izango ziran; eta lendabiziko lana, ganaduak uztarritik askatu eta jaten eman.

Ez dakit sinistuko didazuten, baiña au egia da: Domingo Ubarretxena gau batean baiño geiagotan ganaduen majera ondoan etzana dago. Idieri naiko bala jartzen zien majeran. Baiña idiak, zearo nekatuta zeudelako, etzan naiago izaten zuten, jan baiño, naiz eta goseak egon. Ainbeste ordutan zutik ibiltzen aspertuta egoten baiziran. Alakoetan, altza erazi egiten zituan, jan gabe ez baizegoan ibiltzerik. Bizimodu triste itzaiarena, eta berdin ganaduarena ere!

Dema edo idi-apustu asko jokaturakoa gizona zan Ubarretxena. Donostia inguruan *Domingo korrikalaria* deitzen zioten, sasoi zuala lasterkari aparta baizan.

Beingo batez, apustu sonatu bat jokatu izan zuan. Azpeitiarra zala uste det kontrarioa, *Uxo*a esaten ziotena. Au izango zan orain larogei bat urte. Donostian Easo kaletik irten omen ziran, Aldapetako kamioan gora Urnietara joan da etorri. Diru asko jokatu omen zan. Ubarretxena irabaztun, estuasunik gabe.

Orain ere abiatu naizen bidetik irtenda nabil; baiña bereala sartuko naiz Amara kaleko Lokatene sagardotegira.

Anton Amararen sagardotegian bezelaxe, Lokatenean ere jende asko ibili izan da beti. Anton Amararen familiak berak saltzen zuan sagardoa. Baiña Lokatenean, bere etxekoa etzan beste famili bat izaten zan sagardoa saldu eta jatekoa serbitzen zuana.

Ni ere lagunekin, eta bakarrik ere, asko ibilia naiz sagardotegi ortan; eta gerra garaian, orain irurogei urte, eta gerra ondorenean ere, Rejino izena zuan gizon bat ezagutu nuan, bere familiarekin sagardoa saltzen jarduten zana.

Gizon jatorra eta errespeto aundikoa zan Rejino zana; Astigarragakoa zala uste det. Bertsolari onenetako bat genduan bera. Gutxitan nabaitu izan nuan bertsoan; baiña kantatzen asten zanean, bertso sakonak edo egi biribillak zekian esaten.

Ala ere, etziran danen gogozkoak izaten berak esaten zituan egi mardulak. Sagardotegi ortara jende asko joaten zanez, goi-maillako euskaldun jauntxo batzuk ere joan izan ziran bertara bein baiño geiagotan, beren txapela gorria jantzita; eta jauntxo aiek ixildu erazi egiten zuten Rejino. Gerra garaia baizan, eta etzegoan nai zana esaterik, egia bazan ere.

Gu iñoiz bertsozaleak giñan talde bat biltzen giñan umore pixka bat jarri asmoz. Rejino ere etorri izan zan guregana, eta esaten genion:

— Rejino, gaur giro ona dagoala dirudi emen. Zure bertso bat edo beste entzungo genduke, ba, pozik.

Eta berak:

— Bai. Gogozko zait bertsoak kantatzea, baiña ezin asiko naiz. Txapel gorri oiek etortzen badira, kapaz dira artu eta *Inpernura* eramateko, eta ori ere ez nuke nai. Franco agintzen dagoan arte, nik ez det bertsorik kantatuko.

Ala, ez genduan geiago bertsotan nabaitu izan. Garai artan etzegoan bromarik.

Neroni ere estu artu izan naute dalako Lokatene sagardotegi ortan. Egun batez, euskaldun-talde bat bildu giñan baso bat edo beste sagardo edateko asmoz; eta, umoretsu geundenez, zerbait kantatzen asi giñan. Txirritak erromatarrei jarritako bertso bikaiñak, memoriz nekizkianez, kantatzen ari nintzala, or sartzen dira dalako txapel gorriekiko jauntxo aiek, eta zuzenean neregana, esanez:

— Zer kantatzen ari zera emen?

Nik:

— Txirritak erromatarrei jarritako bertsoak kantatzen ari naiz.

Eta berak:

— Nik ez ditut entzun nai bertso oiek. Ixildu zaitez mesedez, eta kontu izan. Nik berriz nabaitzen bazaitut bertsoak kantatzen ari zerala, *Inpernura* eramango zaitut.

Ori ere ez nuan nai eta ixildu egin nintzan.

Garai artan, naiz sagardotegian, tabernan edo kalean, iru lagunetaraiño bazegoan baimena euske-raz izketan jarduteko. Baiña iru laguneko taldea baiño geiagokoa ikusten bazuten, artu eta *Inpernura* eramaten zituzten. Txingurria baiño ugariago zebillen polizia, eta danak ere arkakosoaren antzekoak. Iñoiz lagun edo adiskideren bat kalean edo beste nunbait ikusten bagenduan, “Kaixo! Egun on! Arratsalde on!” edo “Gabon!” esanda, “Agur, gero arte” eta martxa bakoitza bere aldera. Olaxe ibiliak gera gerra ondorengo urte batzuetan.

Guardiazibillak kartzelan sartu ere izan gaituzte. Ez genduan ustez pekatu aundirik egin, baiña gauza gutxi naikoa izaten zan poliziak artu eta itzallera eramateko.

Gerra garaian gertatu zitzaigun orain esango dedan au ere. Ormaiztegiko trenaren zubia bota zutelako, Zumarragatik gauza guztiak kamioz zeuden ibili bearrak; eta, Patxi Erdoziarentzat lana egiten genduan, kamion bat sortu zuan nunbaitik eta Migel Antza txoperrari esan zion:

— Artu itzak taldetik bi mutil, lanerako lagun bezela, erorrek nai ditukenak; eta Zumarragatik Donostiara gauza karraio asi bear dezute.

Antza txoperrak Errera baillarako Manuel Gorra eta ni artu gindun, eta beste gauza askoren artean geienbat ikatza ibiltzen genduan. Egunean iru beaje egiten genituan Donostiatik Zumarragara.

Goizean lauretan irteten giñan Autonomia kaltetik, eta aruntzean Antigua baillaran Lizarriturri eta Rezola jaboï fabrikatik jaboïa eramaten genduan, kamiona beteta. Goizean seiatarako Zumarragan izaten giñan, eta ura bagoï batera ustü eta bereala beste zerbaitekin kamiona bete eta Donostiara.

Irugarren beajea egiterako, gauean amar t'erdia edo amaikak izaten ziran, eta amar pezeta eguneko soldata edo jornala.

Kontuak kontu, Eguberri egun batez kamionkada ikatzarekin gatozela, guardiazibillak Tolosan:

— ¡Altooo!

Gelditu giñan eta:

— ¿Llevan ustedes salvoconducto?

— *Pues no* —esan genien.

Ez baigenduan ezeren ageririk geurekin, eta kartzelara irurak. Baiña ez giñan bakarrik. An aurkitu genituan lagunak. Elefantea baiño aundiago ziran arratoiak aruntz eta onuntz abaillan. Eta, bazkal garaia zanez, ala zion Antza txoperrak:

— Gu goseak gaudek, baiña auek ere etzebiltzak aseta. Korri errez egiten ditek.

Bazeukaten tren-tunelak baiño zulo aundiagoak pareta zokoetan eta aietan ezkututzen ziran.

Gauean, illundu zuanean, etorri zitzaizkigun txapel okerrak eta esan ziguten:

— *Están ustedes liberados.*

Itz egin zutela alegia Erdozia gure nagusiarekin, eta esan zietela bialtzeko mesedez etxera, konfiantzako jendea giñala eta.

Baiña paper bat eman ziguten, bidean poliziak edo beste norbaitek gelditu erazten baginduan ere.

Berriro sartu nadin Amara kaleko Lokatene sagardotegira. Lentxeago esan dedan Rejino bertsolariak utzi egin zion sagardo saltzeari, eta ondorenean beste famili bat etorri zan Lokatene sagardotegira: Antonio Esnaola bere emazte Joxeparekin.

Famili onek lan asko egin zuan sagardotegi ortan. Sagardoa eta ardoa, bietatik jarri zuten aukeran.

Beste gauza on bat ere bazuten jendearen gozkoa. Danok ondo dakigunez, gerra ondorengo urte batzuetan gosete beldurgarri baten mende bizi bear izan genduan, emengo janari eta gaiñontzeko gauza guztiak erbestera eramaten zituztelako, eta ezer gabe gelditu giñan emen.

Baiña Antonio Esnaolak eta bere emazte Joxepak ogia sortzen zuten, eta esango det nola. Sagardotegi ortatik gertu zegoan militarren Intendentzia izeneko etxe aundi bat, eta ortxe bertan egiten zan Loiolako soldaduen kuartelerako bear zan ogi guztia, eta Intendentzi ortan ogia egiten zutenak soldaduak izaten ziran, eta geienak euskaldunak. Esnaolaren familiak konfiantza egin zuan soldadu aiekin, eta ixilka naiko ogia ekartzen zieten, eta Esnaola ondo eta mutillak ere etziran noski galduan irtengo.

Ixilka ekartzen zietela esan det. Baiña uste gabeen militar agintariak jakin izan balute ixilkako ogi-tratu orren berri, etzan makala izango soldadu gizarajoak jasoko zuten zigorra. Aldi luzean itzalean egon bearko zuten, eta Esnaolak ere joango bearko zuan *Inpernura*, beste asko bezelaxe. Eta gu ere eramango ginduzten, ogia jateagatik.

Garai artan Donostia guztian ez baizan beste sagardotegirik edo ostaturik Lokatenean bezela naiko ogia ematen zuanik. Guk, euskaldun jendeak, bertara jotzen genduan; eta erdeldunak ere ikasi zuten bidea. Urte batzuetan olaxe ibili giñan.

Gero, Esnaolaren familiak utzi egin zion sagardotegiko lan orri; eta Easo kalean, Moraza kalearekin kantoi egiten duala, taberna aundi bat jarri zuan, eta edozein ordutan ikusten genduan jendez gaiñezka beterik zegoala. Urte mordo batean orrelaxe jarraitu zuan famili orrek; eta gero Kutxa Munizipalak erosi zuan, gaur dagoan bulego eder ori jartzeko.

Munto


MUNTO baserria Donostian Aiete baillaran kamio ertzean dago, eguzkiak eta aize osasungarriak gogoz maitatzen dutela. Etxe aundi zabal bat da bera, antziñakoa, zaarra edo urtetsua. Bertako bizilagunak ziotenez, bosteun urtetik gora ditu etxe onek, eta oraindik ere zutik eta modu onean dago.

Bere inguruan ziran baserri asko bota dituzte, kale-etxe berriak egiteko. Baiña Munto ez dute botatzen; eta, diotenez, ez dute botako. *Monumento histórico* bezela utziko dute.

Munto lendabizi komentua omen zan. Geroago, ospitala. Ondoren, orain urte asko, sagardotegia; eta geroago sagardotegia eta taberna. Gaur ez dute sagardorik egiten baserri ortan, eta taberna ere ez dago.

Baiña sona aundiko sagardoak egin izan dira geienetan etxe ortan. Neronek ere gazterik ikasituan sagardotegi ortara bidea, nere bizitzan beti sagardozalea izan naizenez. Amalau edo amabost bat urte nituala, joaten nintzan jaietan nere lagunekin Munto baserrira.

Aietearrak ziran orduko nere lagun geienak: Erreka baserriko Ximon, Etxetxiki baserriko Joxe, Gure Pakea baserriko Rafael, Ugalde baserriko Pedro eta Donostian Anoetako Uralde baserriko Xanti.



Munto

Nere lagunak ziran aiek geienak illak dira. Jau-nak berekin ditzala zeruan.

Xanti zanak, Anoetan Uralde baserrian bizi zira-la, ostatua jarri zuan bertan, eta andik urte ba-tzuetara bota bearra izan zan jatetxe ori, kirol jola-setarako obrak egin bear zirala eta.

Baiña beste jatetxe eder bat egin zuten Anoetan bertan, *Hotel Anoeta* izena duana. Eta Uralde jate-txean jende asko ibiltzen bazan ere, gaur ez dago gutxiago *Hotel* berri ortan.

Xanti zanaren seme Joxek eta bere familiak la-gun eta ezagun askorekin dituzte artu-emanak, eta danok ondo artzen gaituzte, bertara joaten gerane-an; eta ez ondo artu bakarrik, borondaterik onenez ondo serbitu gaiñera.

Ain sukaldari apartak diranez, bein jatetxe or-tara joaten dana, berriro ere bertara joateko gogoar-ekin irteten da, eta orrek poza ematen du.

Munto sagardotegiko gertakizunekin ari naize-nez, badet zerbait geiago ere esan bearra. Munton bertakoak ziranak, lengo zaarretakoak alegia, iru bat gizonetzko ezagutu nituan: Agustin, Xanti eta Pe-dro Illarreta. Gizon langilleak eta zintzoak ziran ba-serri-lanetan, eta sagardoa egiten ondo ikasiak arre-ta aundiz.

Gizon auetako baten alaba Manuela Illarretare-kin Fernando Urrestarazu ezkondu zan. Lau seme-alaba izan zituzten, eta, gurasoak il ziranean, seme Isidrok eraman izan ditu baserriko gorabeerak.

Garai batean, orain urte asko, Aieteko kamioa erregebidea omen zan. Madritik Donostiara edo Do-nostiatik Madridera joan-etorria egin bear zutenean, Aieteko kamio ortatik ibiltzen omen ziran. Erderaz *camino real* deitzen zioten.

Goi-maillako jaun agurgarri asko etorri izan omen da Munto baserrira. Beste askoren artean, Frantziatik Napoleon ere Españira zetorrenean, Donostian Munto izaten omen zuan ostatu bezela, eta bertan pasatzen omen zituan bere atsedeen-egunak.

Gaur Españian daukagun errege Juan Karlos ere, gaztea zala, Donostian egin omen zituan bere ikasketak; eta, bere lagunekin ibillalditxo bat egiñez, Muntora etortzen omen zan sagardoa edatera. Ixidro Urrestarazuk serbitzen omen zioten ain gogozkoa zuten sagardo txinpartatsua; eta, bertan egonaldi luze bat egin ondoren, "Beste bat arte" esanez alkar agurtzen omen zuten ikasle gazteak.

Errege Juan Karlos Donostian bizi zanez, Muntoko Ixidrok bazuan osaba bat, Ixidro bera ere, aitararen anaia, illea eta bizar-moztaillea. San Bartolome kalean zeukan bere lantokia, eta errege Juan Karlos Ixidrorengana joaten omen zan burua apaintzera.

Ikusten denez, goi-maillako jaun agurgarri asko iritxi da Munto baserri sonatuan. Juan Karlos errege onen aitona zanak ere badu bere istoria, Alfonso amairugarrena, Españiako erregea zanez udarra partean bere atsedenaldea pasatzera Madritik Donostiara etortzen zanean, jakiña, Antigua baillaran dagoan *Palazio Real* izeneko jauregi etxe ortara.

Bere ibilalditxoa egitera edo paseatzera norabait joan bear zuanean, Aiete alde ori omen zuan bere gogozkoa, eta ortxe egoten omen zan, baserritarak baratzen lanean nola ari ziran begira. Alako batean baratzen lanean ari ziran tokira bertara joaten omen zan, eta zillarrezko duro bana ematen omen zien, esanez:

— *Tengan para tomar un poco de vino.*

Arrazoi txar bat aiñakoa izango zan eskupeko ori, ardo pixka bat edateko irrikitzen zeuden aitona gizarajo aientzat. Galdu etzedin, azkar asko gorde-

tzen omen zuten, paiñueloaren puntan bost edo sei korapillo eginda. Ez baizuten egunero izango olako opari dizdiratsua. Gauean, lotara joan da ere, duro zillar orrekin ibiliko ziran noski ametsetan.

Nik neronek ezagutu nituan, len esan bezela, garai artan emen gure artean ibiltzen ziran diruak. Bazebiltzan kobrezko txanponak, baiña baita ere zillarra eta ontzako urre dizdiratsuak ere. Gaur emen esku artean darabilkigun au baiño aberatsagoa zan garai artako dirua. Garaian garaiko kontuak.

Munto sagardotegiarekin ari naizenez, amaika umore paseak gera, bertan biltzen giñan lagunarte paketsuan. Garai artan etzan gaur daukagun alkar ikusi eziñik edo gorrotorik. Danok famili batekoak bagiña bezelatsu giñan; eta, zerbait eztabaida edo aserrerik sortzen bazan, sagardoak egiten zuan geienetan pakea. Umore txar guztiak azturik, jendea bertsotan edo kantuan asiko zan, eta geienetan alaitasuna nagusi.

Bertsolariak ere ezagutu ditugu Aieten. Beste batzuen artean, Berabera baserriko Joxe Sorozabal eta bere seme Nikolas. Iñoiz saioak egin izan dituzte alkarrekin batean eta bestean, eta ale ederrik eskeiñi ere bai jendearen gozamenerako, Munton sagardo ederra edanez. Orain irurogei ta bost bat urteko kontuak dira auek.

Neri ere esaten zidaten iñoiz:

— I, Sebastian: ik ere badakizkik, ba, bertso zagar eder askoak, Txirritarenak, Pello Errotarenak, Udarregi edo Pello Mari Otañorenak. Kanta itzik, ik ederki kantatzen dituk eta.

Ni gaztea nintzan garai artan: amalau edo amabost urte. Baiña nere gogozkoa zan bertso zaarrak memoriz ikasi ta lagunartean kantatzea, eta ikusten nuan jendeak gogoz entzuten zituala, eta danok alaitasun ederrean, sagardo txinpartatsua edanez.

Munton ere une guztiak etziran arrosa kolorekoak izaten. Gau batez izan zuten atsekabe galanta. Maliziz ondo orniturik zeuden gaizkille batzuek asmo txarreko azioa egin zieten.

Baserri ortan, beste baserrietan bezelaxe, edukitzen zituzten ganaduak: beiak, zekorrak, zaldia, eta egazti-talde aundi bat ere bai. Eta lapurrak, nunbaitik zerbait ostu nai duanean, geienetan burutazio gaiztoak erabiltzen ditu.

Munton ogei ta amabost edo berrogei bat oillo edukitzen zituzten, eta nolako oilloak gaiñera! Oillo gorri eder oietakoak. Egunez kanpoan belazean ibiltzen ziran, baiña gauerako beti etxera biltzen zituzten, eta zakur ar aundi bat ere antxe egoten zan, oillo aien inguruan lotuta, etxea eta bertako gauzak zaitzeko, etxeakoak bakarrik ezagutzen zituan oietakoa.

Kanpoko jendeari zaunka beldurgarriak egingo zizkion bere ortza zuriak erakutsiz; baiña gau artan eme bat eraman omen zuten. Sarrerako atea alde batetik puskatu omen zuten, eta zakur emea bialdu arrarengana; eta, biak jostatzen zebiltzan bitarte, lapurrak oillo guztiak, eta oillar bikain askoa ere bai, danak ostu, etxeakoak batere konturatu gabe. Zakur oillozaiak ez baizien zaunkarik egin.

Ederki utzi zuten Manuela etxeakoandre gajoa. Oilloak arrautza gorri ederrak jartzen zizkioten, sagardotegira zetorren jendea serbitzeko, eta gero dendara joan bear erostera. Ara zer mesedeak egiten dituzten lapurrak baserrietan eta nun-nai ere.

Garai bateko ijitoen antzekoak izango ziran lapur aiek ere. Len garai batean, orain urte asko, ijitoak ere joaten omen ziran elizara aitortzera edo konfesatzera; eta apaizaren galdera:

— Ezer ostu al dezu?

Eta ijitoak:

— Bai, jauna. Oillo bat badet ostua, baiña jarri bitza kontuan bi, gaur gauean beste bat ostu bear det eta.

Damutasun ederra zeukan arek ere.

Oillo kontuan ari geranez, Txirritak ere bertso baten bidez aitortu omen zion Atxukarro apaiz jaunari, Ernanin bere kuadrillarekin etxez etxe San Juan eskean zebiltzala, nola oilloak ostu izan zituzten. Onelatsu kantatu omen zuan:

Gero penetan egon ez dedin
esango diot bertatik
nola bi oillo ostu genitun
Astigarrako bentatik.

Santa Teresa

SANTA Teresa baserria Donostian, Aiete baillar-
ran, Ernanira dijoan kamio ertzean zutitua
zan etxe urtetsua edo antziñakoa zan bera. Orain
eun urte inguru sagardotegi sonatua izana. Ni,
orain dala irurogei ta bost bat urte, mutil gaztea
etorri nintzan Aietera morroi, Azken-Portu baserri-
ra, eta nik ez nuan ezagutu sagardotegi bezela,
baserri bezela baizik. Bertan bizitzen zan famili bat,
eta bazituzten ganaduak, eta baratzak ere bai.

Etxe orren ondoan, kamio ertzean, bazan ur-
aska aundi eder bat, Donostiako Udalak egiña.
Orain berrogei ta amar edo irurogei urte kotxe gu-
txi eta ganadu asko ibiltzen baizan kamio ortan.
Nola idiak, beiak, zekorrak, zaldiak eta astoak, ur-
aska ortan edaten zuten. Baiña gero asi ziran ko-
txeak, kamioiak eta autobusak ugaltzen, eta gana-
duak gutxitzen; eta urte askotxo dira Santa Teresa
baserria bota zutela, eta ganaduak ura edaten zu-
ten aska ere bai.

Baserri ori zan lekuan, gaur ikastetxe eder bat
dago egiña, *Colegio Mayor de Aiete* izena duana.

Entzun izan dedanez, baserri ortan sagardoa
saltzen zan garaian bai omen ziran Aieten bolari biz-
kor askoak; eta auen artean Txertubitarrak omen zi-
ran inguru ortan ziran sonatuenak.

Orain ere bada Aieten, aspalditxoan gaixorik dagoan arren, Euskal Errian ain ezaguna dan tokalaririk sonatuenetako bat. Manuel Matxain degu bera. Beste kirolari batzuekin Japonen izana da, tokalari bezela bere trebetasuna erakusten. Orretaz gaiñera, boletan ere bizkorra izana da. Eta goi-mailako bertso-jartzaillea ere bai. Ortxe daude berak idatzitako liburuan bertso eder askoak. Saria irabaziak jarrialdi bat baiño geiago ere bai, nai dituanak irakurri. Manuel Matxainen aita ere oso sonatua zan irrintzilari bezela. Euskal Errian irrintzilaririk sonatuenetako bat genduan bera. Gizon atsegiña eta umoretsua, Kubako gerran ibilia.

Beste gertakizun bat ere bada Santa Teresa sagardotegikoa. Nik entzun dedan bezela jarriko det emen. Domingo Kanpaña panaderoa omen zan, eta egun batez asto gaiñean etorri omen zan sagardotegi ortara. Ain zuzen, antxe egokitu Bilintx bertsolari sonatua, eta bertso au kantatu omen zion Domingo Kanpañari:

Asto baten gaiñean
Domingo Kanpaña,
etzijoak utsikan
asto orren gaiña.
Azpian dijoana
astoa dek, baiña
gaiñekoa ere badek
azpikoa aiña,
asto baten gaiñean
bestea alajaiña!

Pedro Leizaola

PEDRO Leizaolak Donostian, Grosen, Sagues baillaran zuan sagardotegia. Urte batzuk badira il zala. Zeruan beza atsedean.

Gizon onek konta ezin ainbat istori duan arren, nik dakizkidanak jarriko ditut liburu onetan.

Leizaola gizon bikaiña zan, eta umoretsua. Blusa beltza jantzi ezkeron, esan zitekean Txirrita bertsolaria zala. Kiloz ere ortxe-ortxe izango zan bera ainbeste.

Alkar ezagutzen genduan, eta itz egin ere bai makiña bat aldiz. Askotan joan izan naiz bere sagardotegira nere lagunekin, eta sagardo eder txinpartatsua edan ere bai, jendea bertsoetan edo kantari jarri erazten zuana.

Oraindik ere gogoan daukat nolatsu zan etxe ura. Sagues baillaran, itxas aldetik zuan sarrera sagardotegi orrek. An bertan zeuzkan tolarea eta kupalak; baiña eskalera luzea zeukan, Zectoria izeneko goiko kalera igotzeko, eta an janari-denda eta estankoa zeuzkan.

Sagardo onak egiten zituan, eta sagardoazale asko joaten zan bertara eztarria bustitzera.

Ez dakit Leizaolak zer famili zuan. Bere alaba bat ezagutu nuan, orain dala berrogei bat urte. Berak ogei bat izango zituan. Aita bezelaxe, lodi-lodia zan, eta ara nolaz ezagutu nuan.

Bere ogibidez *comadronea* edo aurra egin bear duten emakumeei laguntzen ibiltzen zana zan. Donostiako Residentzian edo Eritetxean egiten zuan lana. Gure auzoko baserri batean, Laxtuenen ain zuzen, San Jose egun batez, bertako etxekoandre Inaxik aurra egin bear zuan, eta Benta baserriko Pedrok bere motoan ekarri zuan eritetxetik *comadronea* zan neskatx ori. Jaiotza ura zala medio ezagutu nuan. Gaur irurogei bat urte inguru izango ditu.

Leizaolak bazuan kotxea edo automobil zaar bat, oso zaarra, noiznai aberiatu eta bidean gelditzen zitzaiona; baiña bere arekin egiten zituan iñoiz deabrukeri batzuk.

Esate baterako, egun batez bere lagun batzuk Getarira txakoliña edatera joatea pentsatu zuten, eta or esan diote:

— Aizu, Pedro: eramango al gaituzu zure kotxean Getarira?

Eta berak:

— Bai, bai. Joango gaituk. Neronek ere bazeukat gogoia txakolin pixka bat edateko. Nik bazekiat zeñek daukan txakolin ona.

Goiz batez atera dira Donostiatik iru edo lau lagun; eta, bidean kotxearen aberiak konponduz, noizbait iritxi omen ziran Getarira.

Ekin omen zioten bixigu errea jan da txakoliña edan. Eguna bertan pasa ondoren, danak ere bapo jarri ziranean, abiatu omen ziran Donostia aldera, etxeratzeko asmoan. Eta danak ere bai noski, baiña Leizaola loak tentatzen omen zuan; eta, berak nai zuanean gelditzen baizuan kotxe zaar ura aberia zuala esanez, begietan lanbroa bezela jartzen omen zitzaion, eta bidea ez ondo ikusten.

Usurbil aldera iritxi ziranean, disimuloan zerbait egin omen zion kotxeari, eta kamio ertzean baztertu eta au esan omen zien bere lagunei:

— Mutillak, kotxe onek aberia dik eta denbora puska bat bearko diat nik au konpontzeko; eta zuek bitartean or aurrean ikusten dan taberna ortan artu ezazute kafe bana edo zerbait.

Ala, lendabizi, zaku zaar aundi bat bota omen zuan kotxe azpira, eta ondoren konta ezin ainbat erreminta ere bai. Bera sartu omen zan nolabait kotxe azpira, eta etzuan seaskari eragin bearrik izango noski lo artzeko.

Bere lagunak kafea artu eta musean saio ederra egin ondoren, joan omen ziran kotxea zegoan lekura, eta:

— Kaixo, Pedro. Konpondu al dezu kotxea?

Berak:

— Bai. Lanik asko eman zidak, baiña konpondu diat beintzat. Goazemazute azkar etxe aldera. Lagun batzuk etortzekoak dizkiat afaltzera, eta onezkeru zai egongo dituk.

Alaxe etorri omen ziran Donostiara. Siesta ederra egin omen zuan eta bapo Leizaola.

Beste egun batez, azio xelebrea egin zion bere lagun bati, Martutene baillarako Aingelu baserriko Joxeri ain zuzen.

Diodan Joxe au, goiz batez eguraldi ederra omen zegoan eta trajea eta alpargatak jantzi eta Donostiara joan omen zan bere lagun baten illetara. Antxe alkartu Leizaola eta biak, eta eguna alkarrekin pasa omen zuten jan da edan eta kontu kontari.

Arratsalderako eguraldia txartu edo zearo biurritu omen zuan. Euria goian-beean gogotik, eta gauean bederatziak aldera Joxek esan omen zion Leizaolari:

— Bueno, Pedro: nik etxera joan bear diat Ernaniko tranbean.

Eta Pedrok:

— Egon adi lasai, euria erruz ari dik eta. Nik eramango aut kotxean.

Sartu dira biak kotxe zaar artan, abiatu dira Martutene aldera, eta Urbieta kalean sartu eta bere-ala or gelditu da kotxea ez aurrera eta ez atzera, eta ala dio Pedrok Joxeri:

— Ik pixka bat bultzatzen badiok, jarriko dek martxan.

Pedro kotxearen barruan ederki zijoan batere busti gabe; baiña Joxe zearo busti eta alaxe joan omen zan Amarraraiño, Urbieta kale guztian bultzaka, euria galanki ari zuala, eta izerdi patsetan, leer gaizto eginda.

Noizbait jarri omen zan martxan kotxe zaarra. Jakiña, Leizaolak nai zuanean egiten omen zuan ori, iñoren kontura par pixka bat egitearren noski. Noizbait iritxi dira Martutenera, eta gelditu gabe aurrera Astigarraga aldera, eta Joxek:

— Gelditu, Pedro, gelditu! Ni iritxi nauk etxera eta.

Eta Pedrok:

— Etzekiat gaur zer duan kotxe onek. Leen ezin asi eta orain ezin gelditu.

Ala, or joan dira Santiomendiraiño, Ermaña baserrira, sagardotegira, eta antxe gelditu.

Sagardoa edanez, Leizaolak kontatu omen zion jendeari zer nolako ibillerak egin zituzten Aingeluko Joxek eta biak, eta naiko par egin omen zuten an zeuden sagardozeak.

Ondoren esango dedan astakeri au ere Leizaolak egiña omen da. Naiko sagardoa edan da etxera abiarakoan, garai artako kotxeak, eta kamioiak ere bai, radiadorea izaten zuten, eta radiadoreak ura bear izaten zuan, ez berotzearren. Eta Leizaolak:

— Etxekoandre, ura emango al didazu mesedez, kotxeari botatzeko?

— Ez daukagu, ba, tanto bat ere, Pedro. Beeko errekatik urrutitik ekartzen degu, eta batere gabe gelditu gera; eta orain, giro onekin, nor joango da erre kara ur billa?

— Bueno, ez estutu, etxekoandre. Ekaitzu botella pare bat sagardo.

Eta, urik etzegoalako, sagardoa bota omen zion kotxeari, eta oso ondo etxeratu zan Pedro Leizaola. Kotxeak ere sagardoa naiago nunbait, ura baiño.

Leizaolak jende guztiarekin zituan artu-emanak, eta iñoiz ikusten genduan goi-maillako jauntxoekin ere. Egun batez bazirudian antzerkia edo teatroa egiten ari zala.

Donostian, Elkano kalean, badago ostatu bat *Valentin Lasarte* izena zuana. Gertakizun au izango zan orain irurogei bat urte. Garai artan izen bera zuan ostatu orrek.

Donostian sonatuak izan dira Lasartetarrak. Beste anai batek, Joxek, Puerto kalean zuan ostatua. Anai zaarrenak, berriz, Marianok, Lugaritz bailaran Flores-berri baserrian zuan sagardotegi eder bat, sagardo onak egiten zituana.

Sartu nadin irten naizen bidera eta esan dezadan Elkano kalean gertatua. Gau batez ostatu ortan bildu zan lagun-talde aundi bat, eta talde ortan zan, baita ere, Donostiako alkatea zan On Antonio Pagaoga jauna, eta Leizaola ere bai bere kotxe zaarrarekin.

Or sortu dute eztabaida gogor bat, azkenean apustua egiteraiño. Garai artan Donostian, Bulebarean, San Jeronimo kalearekin kantoi egiten zuala, bazan *Café Oriental* izeneko ostatu bat, eta taldeko norbaitek esan dio Leizaolari:

— Aizu, Pedro: danontzat kafea jokatuko dizut ni oiñez korrika eta zu zure kotxearekin zein lenago joan, orain gauden ostatu ontatik *Café Oriental*-era.

Eta Leizaolak:

— Bai. Jokatuko diat. Ik ez didak gaur neri irabaziko.

Egin dute apustua eta kotxe zaar artan sartu dira lagun batzuk, alkate jauna ere bai, eta ekin dio-

te biak batera, oiñezkoa korrika kamioz Bretxan barrera, baiña Leizaola Bulebarko arbola tartean barrera. Eta gaueko serenoak etorri omen ziran lasterka, esanez:

— ¡Alto! ¡Alto! Ez al dakizu emendik pasatzea debekatua dagoala?

Leizaolak:

— Zer? Txoratu egin al zerate edo zer pasatzen da emen orrenbeste buillarekin? Nik apustua det eta utzi neri pakean.

Serenoak:

— Ezetz, ba, ezetz! Ez dagoala emendik pasatzerik! Munta pagatu barko dezu. Utzi bertan kotxea.

Eta Leizaolak:

— Munta pagatu dezala atzean dijoan orrek. Berak esan dit segitzeko emendik zuzenean.

Gezurra esango zuan noski; baiña serenoak begiratu omen zuten kotxe barrura eta or ikusten dute alkate jauna. Serenoak, beldurturik, ala omen zioten:

— Barkatu, mesedez. Segi, segi lasai.

Ala, Leizaolak errez irabazi omen zuan apustua; eta, oiñezkoa iritxi zanerako, maian omen zeuden kafea artzeko prest. Eta gero betikoa: alkarrekin ikamika, tranpa egin zuala, ori ez dala gizon bezela jokatzea, eta abar eta abar.

— Nik ez det pagatuko! Zuk, garbi jokatzeko, ni etorri naizen bidetik etorri bear zenduan.

Baiña ala omen zion alkate jaunak: pakea bear zala. Berak berdindu omen zituan ango kroxxak, eta berriz ere danak lagun.

Beste egun batez, au Donostian, Aiete baillaran, Azken-Portu sagardotegian gertatu zan. Ni ere garai artan baserri ortan bizitzen nintzan.

Leizaola, ain sagardozealea zanez, noiznai genduan Azken-Portun. Tragoxka maiz xamar gustatzen

zitzaion, eta an jardun giñan arratsalde guztian, kupela batetik txurrut eta bestetik txurrut, bertako nagusi Juan Mari, bere koñadu Patxi Leizaola eta ni.

Jakiña, Pedrok guk baiño ondotoz geiago betetzen zuan basoa, eta azkenerako neurritik pasatzeraiño edan zuan gizarajoak. Meriendatu genduan ederki tortilla bakailloarekin, naiko txuleta errea, eta tragoa maiz. Gero ziran komeriak. Gauean amarak aldean etxera joan bear zuala eta ala zion:

— Gonbidatzen zaituztet kafea artzera. Aieten, Gasparren tabernan artuko diagu lasai.

Juan Marik eta Patxik etzuten joan nai, bidean baztarren bat jo ta min artuko zuten beldurrez.

Asi zan, ba, bere kotxe zaar artan sartzen eta ezin zan iñolako moduz sartu. Ain gizon aundia, eta arrapatu zuan legatza ere berekin zeraman.

Baiña dañon artean lagunduz, sartu genduan beintzat exerlekuraiño, bolanteari eldu zion eta etzuan berak nai ordu martxan jarri.

Gaiñera, Leizaolak artean lanik zailena egiteko zeukan. Donostiatik Azken-Portura etorri zanean, bere kotxe zaarra Ernani aldera begira utzia zuan kamio ertzean; eta, berriro Donostia aldera begira jartzeko, maniobrak zeuzkan egin bearrak.

Azken-Portun etxe ondoan urtetan an egon zan idi demak jokatzeko arri aundi oietako bat, bi milla eta zazpireun kilo pixatzen zituana. Maniobra egiten asita, arri uraxe jotzen zuan kotxearen atzekaldea-ekin, eta ni ari nintzaion erakusten:

— Ez, Pedro! Beste aldera!

Urrena, berriz, etxe-kantoia *danba!* jotzen zuan. Kosta zitzaion ederki. Konta ezin ainbat maniobra egin zituan, baiña azkenean beintzat nolabait jarri zuan bere kotxe zaarra Donostia aldera begira, eta ez giñan asarre.

Kotxe zaarrak artu zituan beintzat kanketako galantak, arria eta etxe-kantoia jota. Urrengo egunean txapistak izango zuan lanik asko txapa zaarrak zuzentzen.

Dana dala, asi zan oiuka:

— Goazen, mutillak, kafea artzera!

Juan Mari eta Patxi jarri ziran kotxe ondoan, eta atarekin soiñua atera ere bai iriki eta itxi.

— Barrenen al zerate?

— Bai, Pedro! Segi lasai!

Leizaolak usteko zuan besteak kotxe barruan zirala: baiña nola etziran sartu, Gasparren tabernan berak bakarrik artuko zuan kafea.

Urrena Azken-Portura etorri zanean, ala zion:

— Zer pasa zitzaizuen aurreko gauean? Uste nian kotxe barruan ziñatela, ta beldur gelago nian bidean galdu ote ziñaten.

Juan Marik:

— Bai! Denborarik edo astirik eman al ziguzun? Bereala aldegin zenduan, da gu lotara joan giñan.

Eta Leizaolak:

— Lotara joan ziñatela? Ederki egin zenduten. Nik kotxean egin nian loaldi ederra, bidea ez nian ondo ikusten da.

Leizaolak, janari-denda zuanez, egunero izaten zuan lana kotxearekin dendetara eta tabernetara ogia partitzen; eta, kotxe zaarrak noiznai aberia zuanez, bizikleta zaar kaxkar bat ere bazuan, eta bere arekin ibiltzen zan Grosen kalez kale, zaku ogia bizkarrean zuala. Eta jende guztia arriturik berari begira, ainbesterañoko gizon puska bizikleta kaxkar baten gainean ikusita.

Alakoxea zan Pedro Leizaola zana. Zeruan beza atsedeen.

Aduritz

AUXE da nere sorterrria dan Oiartzungo udalak 1984-garren urtean artu zuan asmo ona: erriko seme bati omenaldi gisa liburu edo zerbait eskeiñi bear zitzaiola alegia.

Ala, egun batez nitaz oroiturik, udal onetako kontzejala zan Iñaki Arbelaitz jauna, Aita Zabala eta ni irurok bildu giñan alkarrizketa bat egiteko asmoz. Gizon auek esan zidaten nik bertso asko neuzkala an da emen banaturik, eta bertso auek danak bildu ta liburu eder bat egin bear gendukeala.

Alaxe osatua det *Nere soroko emaitzak* izeneko liburua; eta bere aurkezpena edo argitaratzea 1984-garren urteko garagarrillaren 1-ean ostiralez egin zan, Oiartzungo Udaletxean, Iñaki Irigoien jauna alkate zalarik.

Baita ere egun ortan bertan eta ordu berean, arratsaldeko seiretan, erri guztiaren izenean, udalak bertako seme kutun eta agurgarritzat autatu zuan ain bertsolari goi-maillakoa bezin zuzena zan Manuel Olaizola Uztapide zana.

Antxe gure artean genduan bere emazte naigabetua ere, eta berari eman zizkioten ain ondo mereziak zituan esku-erakutsiak, txalo-ots arrigarri bat entzuten zala.

Txistulariak ere, berak ain ondo dakiten bezela, borondaterik onenez bete zuten beren egitekoa.



Ezkerretik: Martzelino Manterola, Sebastian Salaberria, On Manuel Lekuona, Iñaki Arbelaitz eta Mariano Ostolaitz zana, 1984-an.

Joxe Joakin Mitxelenak eta Koxme Lizasok ere bertso-saio ederra eskeiñi ziguten, kantatu zituzten bertso biotz ikuigarrien bidez emazte alargunari beren samin-agurra eskeiñiz.

Ardo zaar urtetsuarekin ogitarteko goxoak ere eskeiñi zizkiguten.

Emen liburu onetan ikusiko dituzutenez, argazki bat edo beste ere atera zizkiguten; eta txolarte polita pasa genduala esan bear.

Urrengo egunean, illaren 2-an, larunbata, Aduritz sagardotegian, lagunarteko afari goxo baten ondoren bertsolari-txapelketa bat ospatu zan, sagardotegia jendez gaiñezka beterik zala, bigarren maillako bertsolariak bertan parte artu zutelarik. Amar gizonek osatu zuten taldea. Jexux Oiartzabal *Xamoa II* garaille edo txapeldun gertatu zan.

On Manuel Lekuona apaiz jaun agurgarriak, bertsolari-jai artan partaide zanez, berak ezarri zion txapela buruan irabaztunari, txalo zaparrada aundi bat entzuten zala.

Gai-jartzaille eta txapelketaren arduradun Juan Krutz Ezeiza *Kaxka*.

Epaimaia ondorengo auek osatu genduan: Antonio Lekuona Aranburu, Martzelino Manterola, Mariano Ostolaitz, Koxme Lizaso eta Sebastian Salaberria.

Garagarrillaren 3-an, igandea, *Madalen-soro* pelotalekuan, bertsolari gazteen saioa edo jaialdia.

Garagarrillaren 10-ean, *Bertso-Aste 84*-ko bertsolari jaialdi nagusia *Madalen-soro* pelotalekuan.

Onenbestez amaitu ziran gure erriko jaialdi atsegin auek. Danak ere jaialdi bikaiñak edo jendearen gogozkoak zirala esan bear.

Gero, urte artan bertan, uztaillaren 10-ean, Euskadi Irratitik izan nuan deia, *Nere soroko emaitzak* bertso-liburu oni buruz alkarrizketa bat egin

bear genduala esanez. Ordu erdi luzeko alkarrizketa ori Joxerra Garzia Garmendia jaunarekin egin nuan. Bazan une artan gurekin beste neskatxa gazte eder bat ere. Ez dakit nola zuan izena.

Egun artan gai asko ikuitu genituan arren, geien astindu genduana kultura gaia izan zan. Joxerra jaunak galdera asko egin zizkidan, eta geienetan era ontan izaten zan nere erantzuna:

— Ni oker ez banago, garai batean gaur baiño kultura eta errespeto geiago zan gure Euskal Erri maite ontan. Arrigarria edo obeto esanda negargarria baita urte gutxiren buruan gure gaztediak egin duan aldakuntza; eta ez daukagu ezertxo ere esaterik, gazte auek baitira beren ustez jakintsuak.

Gero, ondoren, Joxerra jaunak galdetu zidan ea mesedez bertso bat edo beste kantatuko nituan *Nere soroko emaitzak* bertso-liburu oni buruz, eta onelatsu izan ziran une artan kantatu nituanak:

Ikusirikan euskal kultura
nola dijoan gainbera,
xuxpertz dedin bertso berriak
jartzen alegintzen gera.
Makiña batek egin dit neri
liburu onen galdera,
au irakurri nai dezutenok
orain dezute aukera.

Len zabaldurik neuzkan aleak
ara denon bistan jarri,
nere lantxo au izan dedilla
guztien mesedegarri.
Ta orain jakin nai badezute
nere bertso auen berri,
liburu-dendan or daude salgai
nai duanak irakurri.

Eta gero, alkarrizketa amaitzeko, Joxerra jaunak galdetzen zidan nere sorterriari bertso bat kantatu bear banio zer esango nioken bertso ortan.

Nik erantzun nion biotz osoz maite dedala edo zerbait orrelako esango niokela.

Au, guztiok ondo dakigunez, seme batek lenengo geien maite duana ama izaten da; eta gero, familiariaz gainera, bere lurra edo sorterria. Eta onelatsu izan zan nere bertsoa:

Nere sorterri biotzekoa,
garbi aitortu nai dizut:
bataioaren sakramentuak
nik ortxe artuak ditut.
Zorion bero maitekorrenak
zuri eskeintzen dizkizut,
beste erriak ere bai baiña
geienbat zu maite zaitut.

Onelaxe bukatu genituan Oiartzungo Aduritz sagardotegiko gertakizunak eta Joxerra jaunarekin Euskadi Irratian egin nuan alkarrizketa.



Koxme Lizaso bertsolaria eta Sebastian Salaberria, 1984-ari.

Zarategi

ZARATEGI baserria Donostian, Altzako Intxaurrondo baillaran zegoan, eguzkiak eta aize garbiak gogoz maitatzen zutela, leku alai eta patxaratsu batean, kamio ertzean zutitua.

Baiña urte batzuk badira, baillara ortako beste baserri asko bezela, Zarategi ere bota zutela. Gaur, baserri oiek ziran tokian, arrigarritzko etxe pillak daude zutituak; eta erri aundi bat dirudi gaur Intxaurrondo baillarak.

Zarategi baserriko nagusia Antonio Arruti Arrieta zan, izenordez *Erbia* esaten ziotena, gizon atsegiña eta umoretsua. Bertsolaria gaiñera. Biok bertso-saioak egin izan genituan iñoiz. Sagardo onak egiten zekiana.

Ni nere lagunekin askotan izana naiz sagardotegi ortan, eta amaika umore eder paseak gaude dalako *Erbia* sonatu orrekin. Aundi xamarrek esaten genizkion alkarri, baiña aserretu bein ere ez.

Sei alaba izan zituzten Antoniok eta bere emazte Maria Arrieta Etxebestek. Neskatxa eder liraiñak ziran danak ere. Aurpegi alaiz itz egiten ziguten sagardotegira joaten giñan sagardozeleoi. Oraindik ere nere begien aurrean dauzkat beraien irripar goxoa eta esaten zizkidaten itz eztitsuak. Ez ninduten aspertu ere egiten. Beraiekin igarotzen nituan txolarte aztu eziñak ain ziran pozgarriak.

Baiña samingarriena izaten zan *Erbia* ukuilluko atearen zirriztutik zeletan egoten zala; eta, alakoe-tan, "gero arte" alkarri esan da lagunetara joaten nintzan sagardoa edatera.

Nik nere bizitzan kontrario gutxi izan det; lagun asko eta jatorrak edo leialak geienak. Batzuetan lagun-talde batekin joaten nintzan sagardoa edatera, eta urrengoan beste batzuekin. Bazekiten ni joaten banintzan umorearen faltarik etzala izango. Ni asten bainintzan bertso zaarrak edo berriak kantatzen, joaten giñan lekura joaten giñala. Berealaxe piztuko genduan umorearen sua.

Ni Zarategi sagardotegira joan izan naizenez, geienetan lau bat lagun izaten giñan: Adrian Larrea, zegamatarra; Pontxio Aranburu, urnietarra; Joakin Zubillaga, Donostian Kullasene baillaran dagoan Latxaga baserrikoa. Gizon jatorrak eta umoretsuak danak ere. Pakea benetan maite duten oietakoak.

Ni garai artan Donostian, Aiete baillarako Azken-Portu baserrian, bizitzen nintzan. Ogei ta lau bat urte neuzkan. Nere lagunak elduagoak ziran. Adrian Donostian fabrika bateko guarda zan. Pontxio, Donostiako Udalak izaten dituan obren arduradun edo sobrestantea zan. Joakin, kamioi batekin bere kontura ibiltzen zan lanean eraman-ekarrian. Irurak il ziran. Zeruan bezate atsedean.

Donostiako Udalak ere lan asko ematen zion Joakini, berak kamioi gutxi zeuzkalako. Lan oietako bat Artikutzako sailletatik egurra ekartzea izaten zan; eta, nik udalarentzat lana egiten nuanez, Joakin eta biok askotan joanak gera mendi oietara egur eske.

Garai artan Donostiako Udalak bazeuzkan Artikutzan irurogei gizon edo langille, bertako mendietako egur-lanak eta garbitasunak egin eta txukun jartzeko; eta, berak bearrezko zituzten janariak eta edariak udalaren kontura izaten ziranez, gauza oiek danak nik erosi eta bialtzen nituan Joakin Zubillagaren kamioiean.

Artikutzan bertan bizitzen zan On Martin Alberdi administradore jaunak bialtzen zidan bear nuan dirua gauza oiek erosteko. Ogia astean bi egunetan bialtzen nien: asteartean eta ostiralean; eta, danok ondo daki-zutenez, gerra ondorengo urte latz aietan gosete bel-durgarri baten mende bizitu giñan emen. Gauza guz-tiak kupoi edo *vale* batzuen bidez ematen zizkiguten dendan. Ortarako, On Martinek Artikutzatik gizon bat bialtzen zuan kupoiak eta diruarekin, esanez:

— Auek eraman Sebastiani Donostiara.

Eta ogei ta amazapi kilometroan oiñez etortzen zan ain jatorra eta leiala zan nere lagun Antonio gi-zarajoa; eta goizean zortzietarako nere eskuetan izango ziran. On Martinek gizon orren bidez bialtzen zituan gauzak. Ez dago gaurko gazteei au esan bes-terik. Askotxo baitira gaur, zoritxarrez, nekatuta jaiotzen diranak ere.

Barka zaidazute, mesedez. Zarategi bidetik ir-tenda banabil ere, berriro sartu nai nuke irten nai-zen bide orretara, sagardotegi orri dagozkion gerta-kizunak idatzi asmoz.

Lentxeago nion amaika umore eder pasa izan degula dalako *Erb*i sonatuarekin. Nere lagunak esango zidaten:

— Sebastian, joango al gaituk Altza alde ortara, *Erb*iari bixitatxo bat egitera? Onezkero luze iritzirik egongo dek, aspalditxoan ez gaituk izan da. Irekin aritzen dek bertsotan gustora, eta par pixka bat egin bear diagu.

Garai artan, orain berrogei ta amazapi urte, ez genduan gaur daukagun kotxe aukerarik, eta Joakin Zubillagak egingo zuan bere kamioiarekin tasistaren serbitzua, eta debalde gaiñera. Etzigun bein ere ezer-txo kobratu izan. Baiña guk esaten genion alkarri:

— Zerbait eman beariko zioagu Joakini. Bestela, esku-legorrak gerala esango ziguk.

Eta zerbait ematen genion:

— Au gasolina pagatzeko, Joakin.

Eskerrik askorik etzigun ematen. Gutxitxo izango zan nunbait ematen geniona. Etzigun artu nai izaten. Alakoetan, eskubiko eskua atzeratu egiten zuan, baiña ezkerrekoa disimulo ederrean zekian luzatzen.

Kontuak kontu, amaika joan-etorri egiñak gera dalako kamioi artan. Uste det bera bakarrik bialduta ere errez billatuko zuala Zarategi sagardotegira bidea. Beste sagardotegi geiagotara ere joan izan giñan, baiña geienbat orreraxe.

Konturatuko zeratenez, nere lagunak amets bakarra eramango zuten, sagardoz beren eztarriak bustitzekoa alegia. Baiña nik bi amets eramaten nituan: bat sagardoarena eta bestea bertan bizi ziran aingerutxo polit eta eder aiei ikustalditxo bat egitea.

Erle langillea jardin bateko lorategira joaten dan bezin gogotsu joaten bainintzan, beti biotza eskuan nuala, izar eder eta dizdiratsu aiengana. Bazirudian berak ere ni ikusteko zaleturik zeudela. Alakoxe aurpegi alai eta irripar goxo batekin egiten baizidaten ongi etorria.

Neroni bakarrik ere joan izan naiz iñoiz, lagunei ezertxo ere esan gabe. Bizikleta kaxkar bat baneukan etxean; eta, gaur baiño sasoi obea neukanez, konturatu gabe igotzen nituan mendi oietako aldapak.

Geienetan illunabar aldera joaten nintzan. Ate ondoan lotuta zegoan txakur beltzak ezagutzen ninduanez, bereala egingo zizkidan adiskidetasunezko zaunka txiki batzuk, bere isats biurria astinduz; eta luzaro gabe agertuko zan ain maiteak nituan neskatx aietakoren bat. Eta nik:

— Arratsalde on Jainkoak.

Berak:

— Berdin, Sebastian. Sagardoa edateko asmoan etorriko zīnan noski?

— Bai. Mesedez ematen badidazu, Paula, istimatuko dizut, egarri antxean etorri naiz ta.

Bereala etorriko zan txarroa eta basoa eskuetan zituala, eta andik laster ogitartekoa ekarriko zidan, tortilla goxo askoa bakailloa eta arrautzarekin egiña; eta, beti bezela, alkarri maitasunezko kontu txikiak kontatzen asiko giñan.

Baiña une artan nunbaitik ere agertuko zan guk agertzea nai ez genduan zorioneko *Erbia*, esanez:

— Orain ere emen al aiz? Goazemak kupelera, trago bana egin dezagun.

Ez baizitzaion gogozko guk egiten genduan itzaldi goxo ura. Eta, neskatxarengana ni berriro ez joatearren, bereala asiko zitzaidan:

— Ik bertso zaar asko dakizkik eta kanta itzik. Jendeak gustora entzungo dizkik.

Maleziz ondo orniturik zegoan *Erbiak* bazekian ni, bertsoak kantatzen asi ezkeru, ez nintzala neskatxarengana joango.

Aldizka keiñu egiten nien; baiña nola *Erbiak* begiak erne zeuzkan, beste une baterako uzten genduan elkarrekin egin nai izaten genduan itzaldi goxoa.

Berak ere bertsoan ondo zekianez, bazekian iñoiz saio ederrak egiten. Neri ere noiznai egiten zidan desapio, esanez:

— I omen aiz bertsolaria.

Nik:

— Badakit ez naizela bertsolari ona eta gutxiagorik ere. Baiña biok asten bagera, olio ur gaiñera igotzen dan bezela igoko naiz ni ere, eta zure gaiñetik joko det kukurruku.

Eta berak:

— Ik nere gaiñetik kukurruku joko dekala? Kostako zaik ederki. Ik nai dekanean egingo diagu saioa.

— Nik nai dedanean? Ba, datorren ostegun arratsaldean etorriko gera gu, seiretatik zazpirak tarte ortan. Zuk jarri merienda ona, eta orduantxe probatuko gera biok. Ez degu gauza aundirik jokatuko: zuk jartzen dezun merienda ori pagatu dezala gutxien danak.

Berak:

— Bueno, ondo zegok. Gero ez adi asi emen umeak bezela negarrez, galdu egin dekala ta. Kartera onarekin etortzen al aiz?

Eta nik:

— Galdu? Gero ikusiko degu ori.

Gu lau lagunok joan giñan, esan bezela, zintzo esandako ordurako. Baiña *Erbia* falta. Bere alabei galdetu nien:

— Aita nun dezute?

Berak:

— Aita Ernanira joan da perira. Erreminta batzuk erosi bear dituala esan digu.

Eta nik:

— Erremintak erosi bear dituala? Ez dira errezak. Ez ote da oroitzen gaur bertso-saioa egitekoak gerala biok?

Neskatxak:

— Ez dakit, ba, nik. Guri ori esan digu.

Egon giñan zai gauean amarrak edo amar t'erdiak alderarte, baiña kale. Ala zion batek:

— Txakurrak artuta joan bearko dezute bidez bide. Oiek bereala artuko ditek *Erbi* arrastoa.

Eta nik:

— Gu ezin gindezke geiago aren zai egon. Etorriko da nai duanean. *Erbiak* geienetan gauez jaten du, eta Ernani aldeko sororen batean ariko da paotxa jaten. Orixe baita bere gogozko janaria.

Berriro ere kupelari bixitatxo bat egingo genion, eta "Gabon pasa!" esan da etxe alderako bidea artuko genduan.

Baiña berriro ere luzaro gabe Zarategi aldera begira jarriko giñan. Gure lagun Joakin tasistari esango genion:

— Altza alde ortara joango al gaituk, eztarria pixka bat bustitzera?

Eta berak:

— Bai. Nai dezutenean.

Alaxe joaten giñan, eta arrapatzen genduan ain erreza etzan *Erbi* paotx jalea. Bereala asiko zan guri esaten aurreko ostegunean berandu xamar etorri zala etxera, eta mesedez barkatzeko.

Nik esaten nizkion galantak: etzala itzeko gizona eta orrelakoak. Baiña ajola gutxi ari; eta etxera abiarakoan galdetu nion berriro ere:

— Bueno, Antonio: noiz egin bear degu bertso-saio ori?

Eta berak:

— Datorren ostegunean egingo diagu.

Altza aldeko baserritar asko joaten baizan ostegunetan Ernaniko perira; eta, etxerakoan, Zarategi sagardotegian sartzeko oitura baizuten geienak. *Erbiak*, berriz, bertotan asten zanean, entzule asko izatea nai izaten baizuan bere inguruan. Berari txalo geiago jotzearren izango zan noski. Ala, merientatzen genduanean, bereala asiko zan:

— Zer? Ekingo al zioagu? Gauza al aiz?

Eta nik:

— Bai, bai. Nai dezunean ekingo diogu.

Gogoan daukat oraindik ere nola azkar asko igo zan ganaduen ganbela gaiñera, eta bertan exerita jarri.

Nik ez nuan bera baiño gutxiago izan nai; eta, gaur baiño sasoi ohea neukanez, kupela luze oieta-ko bat bazeukan zutik sagardoz betea, eta ni aren gaiñera igo nintzan eta exerita jarri.

Sagardotegi dana jendez gaiñezka beterik zego-
ala ekin genion, ba, kantatzeari, eta neroni asi nin-
tzan gaiñera lendabizi.

Pentsatuko dezute noski zer gai artuko nuan.
Aspalditxotik ari bainintzaion alabatxo baten eskaria
egiten, eta *Erbiak* ondo zekian nik zertxo nai nuan.
Baiña ni neskaxa-kontuan asten banintzan, berak
Zorroaga Egoitzako aiton-amonen bizimodua konta-
tzen asiko zitzaidan, neri adarra jotzearren noski.

Kontuak kontu, onelatsu ziran kantatu geni-
tuanak.

Nik

Ez dakit, Antonio,
gogoan daukazun
aurreko egun batez
zer galdetu nizun:
ea alabatxo bat
neretzat badezun,
berdin zait Maximina,
Paula edo Asun.

Erbiak:

Ik dakik itzegiten
umil da xuabe,
serio jokatzea
danontzako obe.
Egin nai ukek nere
alabaren jabe,
baiña ez adi etorri
karterikan gabe.

Nik:

Ni ez nago oiñ utsik,
esango det garbi,

nola *Erbia* zeran
zuk begiak argi.
Ez pentsa nagonikan
patrikatik nagí,
Banko batean dauzkat
jarriak milloi bi.

Erbiak:

Gure baserri ontan
bazeukagu lana,
belarrak artu ziguk
juizio dana.
Baldin egia bada
esaten dekana,
danak utzita azkar
ator guregana.

Nik:

Andre on bat artzea
obeko det garaiz,
maiteko det benetan,
ain biotzbera naiz.
Zure alabarekin
ni ezkontzen banaiz,
kafea koparekin
izango dezu maiz.

Erbiak:

Borondate onetik
badaukak ugari,
kafea koparekin
emateko neri.
Orain asko agintzen
diok *Erbiari*,
gero ikusi bear
egia dan ori.

Ain umore ederrean geunden une artantxe etorri ziran gaueko guardak; eta, beren bastoi aundia-ekin *dan! dan!* atea joaz, "Erretira egin bear da!" esan ziguten. Eta gonbidatu genituan:

— Sagardo pixka bat edango dezute.

Gustora edaten zuten eta abiarakoan esango ziguten:

— Kantatzeari utzi egin bearko diozute, ixiltzeko ordua da ta.

Guretzat artean etzan ain berandu, baiña gizon aien agindua bete egin bear.

Berriro ere kupelari bixitatxo bat egingo genion. Ondoren, sagardotegira etorri ziran bertso-entzuleak juzgatu bear zuten gure bertso saioa; eta beren arteko ikamika edo zalaparta puska baten ondoren esango ziguten biok berdintsu egin genduala.

Erbiak etzuan begiratu ederra egin, ori entzun zuanean. Ala zion, txapela okertuz:

— Onek ola bear al du?

Neri esan zidan:

— Eta ik zer diok?

Nik:

— Neri zer galdetzen didazu? Epailariak izaten dira bertso-juzgatzailleak. Oiek gauzak zuzen egiten dituzte.

Berak:

— Gauzak zuzen egiten dituztela? Talde ortan izango dituk bat baiño geiago ire alde egin dutenak. Granuja galanta i!

Nik:

— Nik granuja naizela diozu? Ba, ni ez nintzan len olakoa. Baserri ontara etortzen asi ezkerio izango naiz ni granuja. Obe zenduke etxera begiratuko bazendu. Legez nik bear nuan gaur irabaztun; eta, era-

baki ori artu badute, pakeagatik egingo zuten. Zurekin ez baita giro izaten olakoetan. Ez al zera konturatu neri txalo geiago jo didatela?

Eta berak:

— Bai. Ire aldekoak izango ituan or txaloka jardun diran oiek. Danak igualak zuek: granuja galantak.

Azkenean, beintzat, berak ordaindu zuan bost laguneri merienda, eta gizon bezela gelditu giñan.

Alkarri itz gogor xamarrak esaten genizkion, baiña aserretzeko modurik ez genduan egiten. Ez baizitzaigun komeni asarretzerik, ez bati eta ez besteari ere. *Erbiak* bere gogozkoa baininduan ni; eta nik ere, egia esan, neurri batean maite bainuan *Erbia*.

Baiña *erbikumeak* neurri gabe edo biotz osoz maite baintuan; eta, aserretu izan bagiña, kabia zapuztuko zan eta auskalo zer bide artuko zuten *erbikumeak*, eta ori ere ez genduan nai.

Erbiak berak etzidan neri esaten, baiña bati baiño geiagori galdezka jarduna zan ni zer moduzko mutilla nintzan jakin nairik; eta, auen artean, bere auzoko Otxoki baserriko nere lagun jatorra zan Patxi Lazkanori ere galdetu izan omen zion. Eta Patxi Otxokik:

— Bai, bai. Sebastian ondo ezagutzen det nik. Mutil zintzoa eta jatorra da. Ori zuen etxera etortzen bada, zuen familian etzerate gaizki izango. Langillea eta umilla da.

Erbiak:

— Etzekiat, ba, bertsolariak parrandero xamarrak izaten dituk eta.

Patxik:

— Zu lasai ibili, Antonio. Nik badakit, Sebastianek gaur parranda egiten badu ere, biar ez diotela goizeko amarrak oean joko; eta, lanean asten bada, egingo du seiñalea an edo emen.

Gorabeera auen berri Patxik berak ematen zidan iñoiz. Ernanin perian alkar ikusten genduanean, Egañaren ostatuan alkarrekin meriendatuz, *Erbia* maiz xamar aitatuko genduan.

Patxi Otxoki aitatu dedan ezkerero, badet beste zerbait ere esan bearra. *Erbia* eta Patxi auzoak eta adiskide jatorrak ziranez, alkarrekin ondo konpondu izan ziran geienetan.

Baiña entzun izan det iñoiz naiko kopetillun ere ibili izan zirala beren artean; eta esango det zergatik.

Patxi Otxokik, eiztaria zanez, eiz-txakur bat edo beste geienean bere inguruan izango zituan, eta txakur auetakoren bat emea izango zan.

Erbiak berak ere izaten zituan ate-txakur bat edo beste, eta auen artean bazuan *Dobi* izena zuan txakur txuri txiki bat, lurrean ere ikusten ez dan oietakoa.

Baiña Zarategi eta Otxotegi baserriak bat bestearengandik ain gertu ziranez, *Dobik* ondo zekian bide orren berri, eta noiznai an izango zan Otxoki inguruan, Patxiren txakur aiekin jostatu asmoz.

Dobik emea zuan gogozkoena jostatzeko; baiña txakur geiagori gertatzen zaietena gertatzen zitzaion *Dobi* txikiari ere: nai ta ezin alegia. Ez baizan bereztat neurrikoa, eta ezin nai zuan bezela jostatu.

Txakur oiek ala ikusirik, Patxi iñoiz umore txaritzen zan, eta *Erbiarengana* joan da ala esaten zion:

— Antonio, txakur ori sartu ezazu kaiolatxo batean, eta atea ondo itxi ezaiozu, atera ez dedin, orrek jaulkitzen dituan azietatik landare kaxkarrak irtengo dira ta.

Eta *Erbiak*:

— Aldizka kolkoan ere ibiltzen diat, urrutira joan ez dedin. Baiña ni konturatu gabe kolkotik ere aldegiten zidak, eta egunen batean badiagu etxe ontan atsekaberen bat galanta. Aurreko egun batez ere or ibi-

liak gaituk egun guztian famili dana gure *Dobi* txatxu ori billatu eziñik; eta gauean, afaltzen ari giñala, sukaldeko armarioaren azpitik atera uan, eta ez giñun aserre. *Dobi* etxean falta bada, dana falta diagu.

Gorabeera guzti auen berri Patxi Lazkanok berak ematen zidan. Gizon jatorra baizan Patxi Otxoki. Oso gazterik egin giñan lagun. Etxean ostatua zutenez, bein baiño geiagotan izanda nago Otxoki baserrian, barrikotea zala edo karakol jate goxoak ere bai, sukaldari iaioak ain ederki prestatuak; eta gero, kafea artuz, bertso-saioren bat egingo genduan. Bertsoan ondo aritzen baizan Patxi.

Berak idatzi zuan *Tiro tartean bertsoan* izeneko liburu eder bat, eta bertan datozen bertsoak ere ez dira nolanaikoa.

Baiña mundu onetan betiko ez geranez, 1994-ko urriaren 8-an il zan, guztiok naigabetuta utzirik. Zeruan beza atsedean.

Lentxeago esan dedan bezela, Zarategi sagardotegiko neskatxa aiekin danekin ondo eraman izan det beti, eta iñoiz berrituko genduan ezkontza kontua ere. Baiña ainbesterañoko aukera zegoanez, nere modu esaten nuan:

— Asmatuko ote det danekin?

Erbuari ere antzematen nion ni famili ortara joatea nai ote zuan ere. Baiña egia esan, nik geiegi pentsatzen nuan nunbait, eta ortxe nere okerra. Txiritak bere bertso batean diona esan bear nik ere:

Umil eta serio
itz egin genduan,
baiña gusto guztiak
ez dira munduan.

Aukera edo poz geiegi ere ez baita ona izaten; eta neskatxa oiei adierazi nioten esanez, alegia, oraindik ez nuala ezkontzea pentsatzen eta geroago ikusiko genduala.

Urte artako txotxetik sagardoa edatea ere amaitu zan. Gero entzun genduan *Erbiak* sagardoa egiteari utzi ziola, eta guk ere beste sagardotegiren bateko bidea artuko genduan. Orretxegatik geldituko zan nere ametsa egi biurtu gabe.

Badet zerbait geiago ere Zarategi sagardotegiari buruz esan bearra: dana etzala arrosa kolorekoa izaten alegia.

Gu, lau lagunok, noiznai joaten giñan sagardotegi ortara, eta beti pake giroan edo umoretsu ibili izan giñan lagunarte zoragarri artan.

Baiña aldizka etortzen zan pakea maite etzuan gazte-talde bat, sagardoa edateko aitzekian, buruan amets gaiztoak ekartzen zituztenak: lau edo bost laguneko mutil gazte-talde bat, ogei bat urtetik gora zituztenak, erdeldunak danak, Intxaurrondo alde ortakoak.

Illunabarrean, zazpi t'erdiak edo zortzirak alde-ra etortzen ziran, eta luzaro gabe piztuko zuten gorrotozko sua, eta ekingo ziguten beren mingain zikiña dantzatzuz, itz itxusiak esaten zituztela.

Gu, euskaldun jendea, bilduko giñan geienetan sagardotegian; eta, Euskal Errian gure lurrean geundenez, bidezkoa zan noski gure izkuntzan mintzatea. Baiña ala zioten belarrimotz lotsagabe aiek:

— *¿Estos cabrones de vascos no sabrán hablar en castellano? ¡No se les entiende nada!*

Eta antzeko itz gordiñak esaten zizkiguten, eta batez ere neri zidaten gazte oiek gorrotorik geien, esanez alegia zertan joaten nintzan Zarategi sagardotegiko neskatx aiengana; ola jarraitzen banuan, kenduko zizkidatela otzak.

Guk, lau lagunok, ez genion sagardotegi ortara joateari utzi; eta, berriro ere joatea pentsatzen genduan, joan egiten giñan. Baiña infernuko etsaiak ziruditen gazte biurri oiek ere bai. Eta egun batez ekin ziguten min ematen zuten itzik gogorrenak esanez: aldegiteko azkar etxe artatik, bizia nai bagenduan.

Baiña ala ere ni ez ninduten geiegi izutzen egiten zizkiguten desapio aiek. Gerratik etorri berria bainintzan; eta, ogei ta lau bat urte neuzkanez, zoritxarrez banekian burruka ibiltzea zer zan. Aiek ez oraindik.

Ala, ez bat eta ez bi, or asten zaizkigu tiraka eta bultzaka, eta gu kanpora irten giñan azkar. Adrian belar-metaren tartean gorde zan. Etxe ondoan bai zeuden bost edo sei meta belar. Joakinek, berriz, kamionean sartu bear zuala esan zigun.

Pontxiok eta nik, ordea, egun argiz ikusiak genituan tomate-esola pilla aundia *Erbiak* belar-metaren ondoan jarria zeukala, eta pilla ortatik artu genituan esola oietako bana. Nik esan nion Pontxiori:

— Or beera dijoan bide ortatik joan bear ditek belarrimotz oiek. Ni jarriko nauk bide ertzean, i jarri adi aruntzago eta eman kupira gabe.

Nunbait berak ere gorde egin ziran, eta noizbait gordeta zeuden lekutik irteten asi ziran, esanez:

— *¿Dónde están esos cabrones?*

Gau illuna baizegoan, eta illargia ere ezkutatua izango zan; eta nik esaten nien:

— *¡Aquí estamos, aquí! ¡Ven, majo, ven que quiero calentarte las costillas!*

Eta etorri egiten zirari, batzuk nere aldera eta besteak Pontxiorengana, esku-utsik geundela uste baizuten. Baiña guk eskuetan geneuzkan zurezko armak, eta *dale!* mutur ezurrean eta lurrera. Pontxiok ere berdin: geroxeago bestea jo ta lurrera ura ere, eta gero bestea. Orrelaxe kendu genizkioten otzak. Denei txokolate berdiña ematen genioten: mi-katza, derriorrez artzen dan oietakoa alegia.

Erbia gizarajoa, berriz, zearo izaturik, an etzala gauza onik pentsatuta, atepak itxi, argiak itzali eta disimuloan gelako leiotik begira zegoala ikusten nuan.

Gure aurkako etsaiak, berriz, batek: "Ai, ai!"; besteak: "Oi, oi!"; besteak: "Auxilio!" esaten zutela. Denei eman genioten pasaporteak, eta an joan ziran maldizioka, baztar guztiak erre bearrean, bidean be-
era Intxaurren aldera.

Eta gu ere bai, Joakinen kamioiean sartuta, Ametzagain aldean barrena Donostiara. An utzi Adrian eta ni Aietera eramaten ninduten. Joakin eta Pontxio Donostian Marrutxipi baillaran bizitzen ziran beren familiekin eta garaiz etxeratzen ziran.

Egun artan, gaueko guardak joan baiño len itxi ziran Zarategi baserriko ateak. Gauean bederatzia alderako bukatu genduan ango konbatea, eta etxe-atariko txakur txabolaren ondotik kantatu nion ondorengo bertso au, bere gelako leioan ixil-ixilik begira zegoan *Erbiari*:

Euskaldunok gerala
lotsarik gabeak,
erdeldunak ez dira
batere obeak.
Ez gaitu ikaratu
oien atakeak,
gaurkoz egin ditugu
emengo pakeak.

Eta *Erbiak*:

Eskerrak osaturik
gaudela egurrez,
berotu dituzute
baiña ez ain errez.
Denok ere berdintsu
ziñaten indarrez,
ni etxera sartu nauk
iltzeko bildurrez.

— Gabon pasa, Antonio! Urrenarte! -esanda abiatu giñan.

Baiña, badaezbada ere, kamioiean ekarri genituan zurezko armak, oiartzuar Lartaundarrak Erromatik ekarri zituzten bezela.

Nik, beintzat, odol-kutsuak garbitu ta etxean ganbaran jaso nuan; eta, iñoiz ikusten nuanean, alai nion nereko:

— Onetxek egin zian justizia Altzan, *Erbanean*.

Berriro ere aldizka joaten giñan sagardotegi ortara, baiña ez genduan ikusten belarrimotz oietakorik. Ala ere ez giñan, badaezbada ere, esku-utsik ibiltzen. Artikutzako basoetan aukera zegoanez, nik propio egiten nituan zurezko armak, makilla motz sendo askoak neurrian moztuta, muturrean kozkorra izaten duten oietakoak. Oietako batekin bat ona eman ezkerero, ikusi bearko zituzten izar dizdiratsuak.

Len ez det esan, baiña belarrimotz oiek kezkatu jarri ninduten: Zarategi baserrira ezkondu izan baintzan ere, bixitak egingo zizkidatela alegia, eta gaizki ibili bearko nuala. Jaiotzez gaiztoa dana, gero ere ala izaten baita; eta ni pakezalea izan, berriz.

Azkena

NERE liburu berri au idazten asi nintzanean, ala nion nerekiko:

— Ai, Sebastian xaarra! Lan ederra artu dek. Badakik aldapa neketsu batean gora abiatu aizela, eta goiko gaillurra oraindik urruti dagoala.

Baiña, beti bezela, itxaropenik galdu gabe eta nere otoitzetan Jaungoiko alguztidunari ain premizko dedan zeru laguntza eskaturik, ara nola egi biur-tu dan nere ametsa, eta iritxi naizen ain urruti ze-goan goiko gaillur ontaraiño.

Eskerrak biotzez, Jauna, egiten dizkidazun me-sede on guztiengatik, eta berriro ere gogoan izango zaitut nere otoitzetan. Zu nerekin eta ni zurekin izan gaitzela ordu eta une guztietan. Ala bedi.

Bertso pare bat eskeintzen dizkiet irakurle zintzoei. Eta asko poztuko nintzake amaitu berria dedan liburu au zuen gogozko izatearekin.

Egun on batez Aita Zabala
etorri zan neregana,
antzeman nion zer izango zan
neretzako zekarrena.
Agindu zidan: “Liburutxo bat
egin al dan azkarrena”.

Zai zegoan da biali diot
berak eskatu zidana,
ez da izango aberatsa nik
egin dedan idatz-lana.

Egia esan, ezjakin bat naiz
baiña maixutzat naukate,
“Zuk liburu bat egin beazu”
errez esaten didate.
Oin bietatik elbarri nago
ta larogei ta bat urte,
berandu baiña ara nolabait
emandako itza bete,
utsegiteak izango ditut,
arren, barka zaidazute.

Itzatzea

SALABERRIAK bere azken bertso orretan ezjakin bat dala dio. Ez baitzuan aurtzaroan edo gaztetxo zala eskolara joaterik izan berak.

Bost bat urte zituala, guraso gabe umezurtz gelditu baitzan, Udarregi bertsolari aundiak "sagardotegiak gure kolejioak" esan oi zuan bezela, Salaberriarentzat ere baserriak izan ziran beretzat ikastetxeak, gazte denbora dana morrontzan pasea duanez; eta gero, anaiarteko gerra beldurgarri artarra joan bearra izan zuanez, bi tiro oin bakoitzetik bana artuta ankamotz gelditurik.

Ni geien arritzen nauana zera da: gaur daukan adin ortara iritxita, oraindik ere badaukala Salaberriak lanerako gogoia edo griña, eta ori ona da. Edozein lanetan ari dala ere, errezago aztu eraziko ditu iñoiz izaten diran kezkak eta buruaustak.

Azkenik, zorionak Salaberria jaunari gaur eskeintzen digun liburuagatik. Gure sagardotegiak zer izan diran ederki azaltzen digu; eta sagardotegiak, edozeiñek dakianez, gure Euskal Erriko puska edo zati bat ditugu.

A. Z.

Arkibidea

Itzaurrea.....	7
Eskeintza	9
Lenengo asekada	11
Barbotegi.....	19
Garai bateko dirua.....	29
Azken-Portu.....	33
Oriamendi	47
Oiartzungo sagardotegi batean.....	65
Urresti-azpi	77
Urresti-gain	91
Igeldoko Pako Kalonje eta Andoaingo Xanti Mendikute	99
Oiarbide	107
Jauregi	117
Ernaniko sagardozeak.....	125
Faustinoenea.....	141
Flores-berri.....	149
Amara zaarra.....	159
Munto	167
Santa Teresa	175
Pedro Leizaola.....	177
Aduritz	185
Zarategi.....	191
Azkena	209
Itzatzea.....	211



1051086
G-128/103



Sebastian Salaberria

“Gure kolejioak sagardotegiak” esan zuan Udarregi bertsolariak. Billera-leku ori bertsolari-iturri zala aitortzea zan ori. Baita euskeraren eta euskal izaerarena ere.

Sagardotegietan danetik izaten baitzan: bertso, kantu, ateraldi, zelebrequeri, jolas, apustu, itz-aspertu, umore... Baserritarrak eta kaletarrak, langilleak eta aundimendiak, era guztietako jendea zan an alkar-tzen zana. Eta danak euskera bizi eta jatorra ezpañetan zutela.

Ori ala izanik ere, sagardotegiaren berri adierazten digun libururik ez genduan orain artean, euskeraz beintzat. Utsune ori betetzera dator Sebastian Salaberriaren idazlan berria.



Astigarraga eta Hernaniko
udalen laguntzarekin
argitaratua



ISBN 84-89080-55-0



G